

**JUAN LUIS ZABALA**

# **Sakoneta**

**SS** narratiba  
**Susa**

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.  
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 1994 Juan Luis Zabala

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 1994ko iraila

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.com](mailto:susalit@armiarma.com)

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

# Sakoneta

Egunero-egunero, aste eta jai, 10.15ak inguruan iristen da Zumaiara Donostian 9.30etan irrendako tren. Tren horretantxe iritsi nintzen ni gaur zortzi Gipuzkoako itsasertzeko herririk politenetakoa den horretara. Ez nintzen asko entrentenitu bertan hala ere, nire asmoa Debaraino oinez joatea baitzen, Sakonetako hondartzetatik pasatuta. Zumaiara joanez gero derrigorrezkoa izaten den arren, gaur zortziko ibilaldi horretan ez nuen kaia bisitatu, ezta hondartzak ere. Tren geltokitik herri barrura doan kalea ibili eta herri barruan sartu orduko, Gurutze Gorriko postuaren ondotik gora, Zaskate baserrirantz eta San Pedro bailararantz abiatzen den bidea hartu nuen. Arri-tokietako elizatxoaren eta Zumaiako hilerriaren ondotik pasatu eta, aurreraxeago, behera begira geratu nintzen une batez. Ederki ikusten zen Zumaiara, oso-osorik. Urri amaierako goiz gris hartan huts-hutsik zeuden Mariantoneko talaiak eta Urola amaitzen deneko itsasahoak bereizten dituzten Itzurun eta Santiagoko hondartzak. Izuz-

tarriko tunelean, aitzitik, autoak eta kamioiak etengabe sartzen eta irteten ziren, sartzen zirenak Getaria eta Zarautzerako bidean, handik etorki Zumaiara iristen irteten ikusten nituenak.

Oroimina datorkit gaur zortziko ibilaldi horretaz pentsatzean. Ederra da hor zehar lasai-lasai ibiltzeko aukera, konpromezu zehatzik gabe, betebeharrak derrigorrezkorik gabe. Oinez Debaraino iristea beste lanik ez nuen, eta eginbehar hori bera ere ez zen erabat derrigorrezkoa. Denbora aldetik, berriz, egun osoa nuen, egun osoa zen neurea. Alegia, ilundu baino lehen iristea aski zen, eta zazpitik gora ziren aurrean nituen orduak, neure-neureak, erabat libre edozertarako. Astebete baino ez da igaro eta sekulako oroimin samurra sentitzen dut, lanetik eta eguneroko betebeharretatik libre hartu nuen egun hartaz pentsatzean. Urrun geratzen zait -iristezina iruditzen zaidalako beharbada- askatasun une labur baina gozo hura, azken urteotan neure-neure sentitu dudan tarte bakarra apika, ondo pentsatzen hasiz gero. Elkarren aurkako konkurrentzia ero honetan ez dugu arnasa hartzeko astirik. Atsedean une guztiek ere alde zuzenetik finkatua

dute dagokien betebeharra, bakoitzari ondoen egokitzen zaion konpromezua. Eguneroko lana ez denean, etxeko konponketak izango dira, edota Frantziako Landesetan erosi eta alokairuan utzita dugun etxearen paper eta gorabeherak. Auto nazkagarri horrek ere baditu bere lanak, eta familiak ere eskatzen ditu bere konpromezuak. Eta familia ez denean, laneko lagunak, lanekoak ez direnean koadrilako adiskide zaharrak... Edozein itotzeko moduko bizimodua da hau. Beste aukera itxurazkorik -onargarririk- ez dagoela eta aurrera jarraitzen dugu, denetara iritsi nahian, denekin kunplitu nahian.

Zumaiari begira geratu nintzen tokitik pixka bat gorago igo ondoren, errepidearen bihurgune baten parean, asfaltoa ezkerretara utzi eta mendi bide bati lotu nintzaion. Mendi bidean aurrera eginda, pausaldi laburra egin nuen belar berde freskoz jantzitako muino batean. Urru-  
nean, Adarra ikus zitekeen handik; gertuago, Pagoeta, eta ia-ia eskura Indamendi; laino artean ezkutatua zegoen Ernio tantaia; Sañu apenas antzeman ere egiten zen, tontor nabarmenik ere ez du eta; Arauntzak Azpeitira jaisten den amil-

degiaren hasiera markatzen zuen; Azpeitia, ordea, Erlok estaltzen zuen; Agiro eta Sesiarte bititi ezberdinez osatutako bular misteriotsua ziren, ez eder baina bai erakargarri; Andutzen handitasuna ia-ia bertatik bertara senti zitekeen; urrunago ageri zen Otarreko antena; Zestoa gaineko mendi apalak ere ikusten ziren: Endoia Izarraitzen aurretik eta Ertziña Santa Engraziako tontor txiki eta urruna baino lehenago. Errepa-soa egin eta, bai, mendi horiek guztiak ditut inoiz zapalduak, eta baita han urrunean ikusten nuen mendi galdu hura ere, nire kalkuluen arabera Urnobotza izan zitekeena... Baina noiz? Karrera ero honi ekin aurretik, noski, Maiterekin ezkondu aurretik, Aitor eta Arantxa jaio aurretik, Euskopublik-en lanean hasi aurretik... Artean bizitza zer zen ere ez nekienean, alegia. (Eta orain ba ote dakit? Zer da orain dakidana?) Bestaldera begiratuta, itsasoa ikusten zen. Dardara, hotzikara eta negargura sentiarazi zidan itsasoari begiratzek. Bake eta armonia haiek erabat arrotzak zitzaizkidan. Egun hartan bai, banuen bake hura neure egiteko eskubidea, baina egun bakarra nuen horretarako, gaur zortziko egun berezi eta

seinalatu hura, apika, azken finean, orain pentsatzen hasi naizenez, mesede baino kalte handiagoa egin zidan egun libre bakar, mehar eta ihar hura besterik ez.

Elorriagara iritsi nintzen laster, oinez ordubete egin baino lehen, 11.30ak inguruan. Han bai, han egona nintzen duela gutxi ere, bi edo hiru hilabete baino ez, baina Maite, Aitor eta Arantxarekin, eta jendez inguratuta, gurearen antzeko familiaz inguratuta batipat. Autoz joan ginen abuztuko igande eguzkitsu batean, eta itsasoari begira dauden egurrezko mahai ugarietako baten inguruan bazkaldu genuen. Bai, egun ederra izan zen hura ere, baina ez, ez dit gaur zortziko bakardadeak adinako oroiminik sentiarazten familia giroko igande argitsu hark. Ez naiz sentimendurik gabeko gizon egoista eta gaiztoa. Nik maite dut familia, Maiteren beharra dut, eta baita umeena ere, euren aita bainaiz eta horrek hitzez ezin azaldu dudan ilusioa sortzen baitu nire bihotzean. Igande argi hartako alaitasun jendetsua baino nahiago nik, hala ere, gaur zortziko ostegun gris bakartia. Libre zeuden mahai guztiak, eta itsasoari begira jezarri nintzen haie-

tako batean. Elorriaga ez da Elorriaga jendez gainezka dagoenean. Elorriaga ezagutzeko, astegun gris batean joan behar da hara, bakarrik ahal baldin bada, auzunea eta itsasertzeko para-jeak norberarenak direla sentitzeko, tarte labur batez baino ez bada ere.

Elorriagako mahai baten aurrean eserita nengoela, helikoptero bat ikusi nuen zeruan. Helikopterokoek bista ederra izango zutela pentsatu nuen neure artean, beharbada han goiko panoramikaz baliatuta argazkiak ateratzen ariko zirela, iragarkiren bat ilustratzeko, postalak egiteko edota auskalo zertarako. Baina ez, Ertzaintzaren txaplata zuen aparailu txuri hark hegaletan itsatsia; beraz, argazkiak ateratzen ari baziren, ez ziren ezeren publizitatea ilustratzeko izango, are gutxiago postalak egiteko. Ni ere ikusiko ninduten han goian zebiltzan ertzainek, zelai zabal hartan nirea ez beste mahai guztiak hutsik baitzeuden. Niri kasu handirik egin gabe, mende balderantz jo zuen, ordea, helikopteroak, Sako-neta eta Itxaspe aldera. Nahiko luze jarraitu zuen miaketan, batetik bestera, begi bistatik erabat galdu baino lehen.



Elorriagatik Itziarko geltoki zaharreraino inoiz joan gabea nintzen joan den ostegunera arte. Ez da oso bide ederra. Pagoetagañe mendia inguratuz, lokatzez betetako bidezidorrak pasatu nituen, pinu arte ilunean. Tarte hori ezin da itsasertzetik egin, edota, tira, egin badaiteke nik behintzat ez nuen asmatu. Oso politak izan ez arren, bidearen zati horiek ere oroimin tristez eta penaz oroitzen ditut gaur. Artean egunaren jabe nintzen, eta ez egunarena bakarrik, erabateko askatasunaren jabe, aukera guztien jabe nintzelako irudipen tristea dut. Tristea, batez ere, eguna ezezik askatasuna eta aukerak ere galdu egin nituelako, alferrik galdu. Hori da behintzat neure barruan sentitzen dudana.

Bide tarte narrats samar hura pasatu ondoren, itsumustuan, Itziarko geltoki abandonatua begi aurrean agertu zitzaidanean, hunkitu egin nintzen. Edifizio zahar abandonatu hark ez du geltokia ematen bere aurreko muinotik ikusita. Aldez aurretik ez dakienak nekez pentsa dezake han aurretik trena pasatzen denik ere. Baina bai, egunero-egunero pasatzen da oraindik, 18 bider astegunetan, 12 larunbat, igande eta jai egune-

tan. Oraindik ez da denbora gehiegi ere trena geltoki horretan egunero gelditzen zenetik; orain asteburuetako trenak baino ez dira gelditzen paraje bakarti horretan. Oso geltoki bitxia da, Itziarko herritik hain urrun, eta inguruan asfaltutako errepiderik batere gabe, geltoki galdua, Zumaia eta Zarautz artean dagoen Oikiakoa bezalaxe, baina hura baino are misterioitsu eta liluragarriagoa beharbada, besteak beste handiagoa ere badelako, baina batez ere, nik uste, toki ilun, itxi eta ezkutuagoan dagoelako.

Sakonetako hiru hondartzetara -Sakoneta, Mendata eta Itxaspe hurrenez hurren, ekialdetik mendebaldera- doan bideskaren abiapuntuan dagoen Errotaberri baserri zaharreko taberna berritura jaitsi ondoren, geltokiraino igotzea erabaki nuen. Berez nire ibilbidea handik pasatzen ez bazen ere, edifizio abandonatu hura bertatik ikusteko gogoia izan nuen. Azken finean, bost edo hamar minutu baino ez nituen galduko, eta presarik ez nuen. Bilbotik Donostiarainoko trenbidearen 72. kilometroan dago kokatua gaur egun dagoeneko ez Itziarko eta ez geltoki den Itziarko geltoki zaharra, hantxe bertan ikus dai-

tekeen zutoinak markatzen duenez. Beraz, 6,5 kilometro daude handik Zumaiaraino, eta 35,7 trenbideak Donostian duen azken jomugaraino. Garai batean izandako kategoria galdurik, 107,7 kilometro dituen trenbidean puntu ahaztu bat gehiago da, besterik gabe, garai batean geltoki izan zena.

Geltoki abandonatuen tristurarekin nahikoa gozaturik nintzela iritzita, Errotaberri jatetxearen atarira itzuli eta handik Sakonetako hondartzetako bidera jo nuen ondoren. Sakonetako hondartzetan nudistak izaten direla entzuna dut, eta agian -nahiz eta eguna hotz eta gris samarra izan- halako eroren bat aurkituko ote nueneko itxaropena izan nuen bidean. Irudimenak emakume ederra prestatu zidan, bakar-bakarrik eta larrugorritan. Ni ikustean ez zen ezkutatuko, nire aurrera etorriko zen, nire begiradarekiko lotsarik gabe hitz egingo zidan, adiskidetu egingo ginen... Maiteri ere beti esaten diot gizonak benetan zikin eta nazkagarriak garela horrelako kontuetan hasten garenean. Demonio lizun bat gordetzen dugu barruan, eta alferrik da kontzientziaz eta asmoz demonio horren aurka joka-

tzea, errai-erraietan baititu sustraiak izaki nazkagarri horrek. Normala denez, Sakonetako hondartzan ez nuen inor aurkitu, baina irudimenaren sormenak dagoeneko berotua zuen nire gogoak aurkitu zuen, hala ere, zer begiratu eta bere grinaren garra zerekin bizitu. Udatiarrek harri eta egurrez egindako aterbe batean utzirik, aldizkari erotiko batzuk aurkitu nituen. Titi handiak eskuekin eutsi eta keinu lizunez ikusleari eskaintzen zizkion neska batek; beste batek kuleroak nola erantzten zituen erakusten zuen argazki sorta batek; koloretako erreportaia batek hamalau neska bildu zituen orgia lesbiko baten berri ematen zuen... Bakardade hartan galdua, irudi haiek guztiak are kilikagarri eta tentagarriagoak ziren. Eskua galtza barnean sartu nuen, baina hala ere handik lehenbailehen aldegiteko lain indar biltzeko gauza izan nintzen behintzat, noiznahi ibiltari edo baserritarren bat etor zitekeelako beldurrak bultzatua batipat. Ondo pentsatuta, errazagoa izango zen horrelakoren bat azaltzea, nire irudimenak landutako neskatxa liraina larrugorritan ikusi ahal izatea baino.

Itziarko geltoki zaharretik Debaraino 4,6 kilometro baino ez ditu trenbideak, aldaparik gabek gainera. Trenbideko tuneletatik iragaten ausartzen ez den ibiltariak, aldiz, askoz ere ibilaldi luze eta aldapatsuagoa egin beharko du, neuk gaur zortzi egin behar izan nuen bezalaxe. Beste aukera bat ere bada: itsasertzetik joatea, hondartzaz hondartza, Sakonetatik Mendatakora eta Mendatakotik Itxaspekora pasatuz, baina egun hartan mareak ez zuen horretarako aukerarik ematen, eta ez zen hori, gainera, nire asmoa. Sakonetako lehen hondartzatik hegoaldera jo nuen, Sakoneta baserriaren aurretik pasatu eta trenbidearekin topo egin arte. 71,4 markatzen zuen hango zutoinak. Pare-parean egokitu zitzaidan trena. Eibarren 13.00etan irten eta Donostiara 14.28etan iritsi behar zuen trena zen hura, ordutegiari begiratuta jakin eta egiaztatu ahal izan nuen. Tunelean sartzen ikusi nuen. 600 metro aurrerago, tuneletik irten eta Itziarko geltoki zaharraren aurretik pasatuko zen, dagoeneko ez Itziarko eta ez geltoki den 72. kilometro triste hartatik, hobeto esanda. Trenbidearen 71,4. kilometrotik 71,1.eraino iristeko ere tunela

dago, baina oinezkoak tunel gaineko tontorra igo eta jaitsi behar du. Gauza bera egin behar da 71,1. kilometrotik 70,9.era iristeko. Baina merezi du, guztiz paraje irreal eta liluragarria aurkitzen baitu ibiltariak tarte hauetan, 70,9. kilometroaren ingurura iristen denean batipat. Han, trenbideak 200 metro egiten ditu aire zabalean, harik eta 70,7. kilometroan berriro ere tunel batek irensten duen arte. Eskuinaldean, berriz, itsaso aurreko amildegian amaitzen diren muino aldapatsuak ikusten dira. Zibilizazio arrasto orotik urruti sentitzen da bat paraje haietan, eta trenbideak eta trenak ez dute hausten armonia basati hori, trena txukun, zintzo, isil eta apala delako. Ordutegia begiratu eta Donostiatik Bilborainoko bidea egiten duen Bidexpressa laster pasatuko zela ikusirik, zorrotik otartekoa atera eta bertan bazkaltzea erabaki nuen, ordua ere bazen eta: 14.00ak jota.

Tunel batetik irten eta beste tunel batean sartu arteko bidea egiten ikusi nuen Bidexpressa, 200 metro inguruko tarte. Nire parean pasatu zenean, makinistaren ondoan bi ertzain zihozela ikusi nuen. Atzeko bagoi batean, berriz,

beste bi ertzain leihotik alde batera eta bestera begira, auskalo zeren bila. Bazegoen misterioaren bat egun hartan Zumaiatik Debarainoko itsasertz inguru hartan. Elorriagan ertzainen helikopteroa eta gero ertzainak trenean, zerbait galdurik izango zitzaien haiei ere...!

Bazkaldu ondoren, Sakonetako bigarren eta hirugarren hondartzak -Mendata ekialdean eta Itxaspe mendebaldean- bereizten dituen Aitzuriko muinora igo nintzen. Toki harrigarria da hura ere. Han goitik ederki ikus nezakeen Zumaian abiatu nintzenetik egindako bidea. Eskuinera -ekialdera- begira, Mendatako hondartza ikusten nuen, eta ondoren Zumaiarainoko itsasertza; bestaldera -mendebaldera- begiratuta, berriz, Sakonetako hirugarren hondartza -Itxaspe-, eta trenbidea Debarako bidean, zuzen-zuzen. Bidexpressa ez nuen ikusi; Debara iritsia ere izango zen ordurako. Itxaspeko kanpalekua eta Itziar ere aise ezagutu nituen hego-mendebaldera begira. Aurrean, berriz, mugarik gabe, itsasoa. Zumaia eta Deba artean nengoen, arte oker baten ondoan. Zibilizazio arrasto orotik urrun, konpromezurik gabe, Aitzuriko puntan galduta. Ezer ez

izatearen bakea senti nezakeen han, orain askatasun eta aukera galduak sentiarazten didaten oroimin garratzez baino ezin gogoratu dudan zirrara lasaigarria, berriro noiz bizi ahal izango dudan ez dakidana.

Aitzuriko muinetik Sakonetako hirugarren hondartzara jaitsi nintzen, 70,3. kilometroan trenaren bide azpitik pasatzen den tunela zeharkatu ondoren. Trenbidearen azpitik ezezik, trenaren azpitik ere pasatu nintzen, Donostian 13.57etan irten eta Bilbora 17.05etan iritsi behar zuen trena pare-parean iragan baitzen, neu tunel hura zeharkatzen ari nintzen une berean. Gustatu egin zitzaidan kasualitatea. Esan bezala, trena txukun, zintzo, isil eta apala da, eta ez du Sakoneta inguruko paraje galdu eta misterio-tsuetako armonia eta lasaitasuna hausten. Aitzitik, misterioa areagotu egiten du trenak, armonia aberastu eta lasaitasunari babesa eman bere ziurtasunez. Paraje horiek berez duten irrealtasun liluragarriari kutsu surrealista neurtua ematen die trenak, nahi gabe, oharkabean.

Sakonetako hirugarrena den Itxaspeko hondartzan gogor harrotzen ziren Bizkaiko Itsaso-



ren olatu apartsu eta biziak, kirri-karra soinu egi-  
ten zuten hartxintxarrak aurrera eta atzera ka-  
rreatuz beren etengabeko mugimendu beti  
geldo baina beti indartsuan. Hondartzan, berriz,  
era guztietako poteak, baloiak, globoak, buiak,  
neumatikoak, panpin hautsien beso, hanka, buru  
edo bestelako zatiak, jostailuzko kamioi eta au-  
toak... Ez ninduen, ordea, batere harritu horrek.  
Zabor hark ere ez zuen nire sentimendu armoni-  
koa hautsi. Ez dakit agintaria izango banintz zer  
jarrera izango nukeen, baina ibiltari naizen -edo  
izan naizen- aldetik, inguru naturaletako zabor-  
tegiak ametitzen eta disfrutatzen ohituta nago  
aspaldidanik. Gustatu ere gustatzen zait zaka-  
rren artean begiratu eta arakatzea, inoiz ager-  
tzen ez den aurkikuntza harrigarri baten espe-  
rantza hutsaletan.

Gaur zortzi agertu egin zen ordea, alajaina!  
Ikurrin batean bilduta, hamar mila pezetako bile-  
te mordo handi bat! Ikara batek astindu ninduen.  
Inguruetara begiratu nuen, beldurrez. Ez zen  
inor ageri. Gora ere begiratu nuen, aurrez aurre  
nuen Aitzuriko muinora, minutu batzuk lehen-  
xeago nire oin azpian egona zen muinora. Ez zi-

rudien han ere inor zegoenik. Bizitza osoan lan gehiago egin beharrik ez izateko lain diru egon zitekeen han. Zaila da horrelako bilete mordoa ikusita kalkulatzea. Are zailagoa, berriz, egoera hartan zer egin erabakitzea. Dirua zorroan sartu eta lehenbailehen etxeratu? Ezer ikusi ez banu bezala jarraitu aurrera? Ertzainei abisua eman? Ertzainek eskertuko zuten abisua, inguru haietan zerbait bazelako susmoa hartua bazuten eta behintzat.

Ez nintzen dirua hartzen ausartu. Dirua etxeratu banu, agian ez nuen jada lanera berriz joan beharrik izango. Agian egunero-egunero izango nuen gaur zortzikoa bezalako mendi bueltak egiteko aukera, egunero-egunero izango nuen neure burua aurkitzen saiatzeko askatasuna, orain ia-ia inoiz izaten ez dudana, alegia. Baina edozein tokitan egon zitekeen diru mordo haren jabea edo begiralea, esku dardartian pistola eduki zezakeen, ni bertan hiltzeko prest. Orain eta hemendik begiratuta, ergel samarrak dirudite beldur horiek, baina han bertatik beste era batera ikusten eta sentitzen ziren gauzak. Dardarka nengoen, izututa.

Trenbidera jo nuen, korrika egin gabe baina azkar samar. 70,3. kilometroan -lehen azpitik pasatutako tunelaren parean- trenbidera igo nintzen, eta trenbidean aurrera jarraitu nuen, Deba alderantz. 70,2 eta 70,1. kilometroen arteko tartean, 20 metro eskaseko tunel laburra pasatu behar izan nuen, korrika azkar batean, arriskurik gabe baina ikaratan hala ere. Trena etorriko ote zeneko beldurra baino areago, ikararen gaineko ikara hutsala zen sentitzen nuena, motibo zehatzik gabeko izu basati eta kontrolaezina. Tunel laburra zeharkatu ondoren, gelditu eta neure burua lasaitzen ahalegindu nintzen. Horretan ari nintzela, tren baten txistua entzun nuen. Beste Bidexpress bat, orain Debatik Zumaiarako bidean. Makinistarekin batera, ertzainak zetozen hemen ere. Burutik pasatu egin zitzaidan, baina ez nuen trena geldiarazi. Egokiena ezer ikusi ez banu bezala jarraitzea zela pentsatu nuen. Ez nuen endredorik nahi. Nolanahi ere, egia esan, ez nuen erabat ahazturik dirua eta nola edo hala neurea izan zitekeelako itxaropen ezkutua banuen artean ere, orain gogoratzen dudanez. Diru errazaren erotismoa.

Aurrera jarraitu nuen, beldur handirik gabe jadanik, lasaiago, seguruago. Dena ahaztu egin behar nuela pentsatu nuen, eta nire mendi buelta lasai jarraitu, neure buruarekin solasean, kezka edo buruhausterik gabe. Alferrik zen ordea. Deba gertu zegoen, mendi bueltaren partetik onena egin nuen eta ezinezkoa zitzaidan neure buruarekiko solas galduan berriro kontzentratzea. Trenbidean aurrera 69,6. kilometroraino iritsi nintzen. Trenbidea alde batera utzi beharra nuen han berriro, 69,6. kilometroaren pare horretan tunel luzea hasten baita. Tunelaren parera iritsi baino lehen auto urdin bat ikusi nuen, Dyane-6 bat, trenbide ondoan nahiko era bitxian aparkatua, errailetatik gertu samar baitzegoen, trenbidearekiko perpendikular antzean baina ez erabat zuzen, pixka bat trabeska baizik. Hurbildu ahala txoferra auto barruan zegoela ikusi nuen. Bertaraino ailegatu nintzenean harri-garria iruditu zitzaidan txoferrak bere eserlekuan zuen jarrera: burua aldameneko leihatilaren kontra etzanda, lo zegoen; koadrozko alkondara txuri-beltzez jantzitako gazte ile kizkur bizardu-

na, argal samarra. Berari begira geratu nintzen baina ez zen esnatu.

69,6. kilometroan, Itxaspe auzunera doan bidea hartu nuen. Trenbidearen eskuinaldean hasi eta Itxaspeko kanpalekuraino doa bide hori, trenbide gaineratik pasatu ondoren. Itxaspe iritsi baino lehen, bidegurutze bat hartu eta trenbidera jaitsi liteke berriz, atzean utzi berria nuen tunelaren bestaldera. Bidegurutzean zalantzak izan nituen, ea Itxaspe joan ala zuzen-zuzenean trenbidera jaitsi eta lehenbailehen joan Debaraino, etxeratuko ninduen trena hartzera. Lasaiago nengoen eta Itxaspe joan eta tabernan zerbait hartzea erabaki nuen. Ez nuen presarik, ez nuen artean ere zibilizaziora irten nahi... Edo beharbada diru mordo abandonatu haren dei erotikoa sentitzen nuen, eta denbora pixka batean hara eta hona ibili ondoren adorea bildu eta Sakonetako hirugarren hondartzara itzul nintekeelako esperantza ezkutuak bultzatu ninduen Debarako bidea alde batera uztera. Ez dakit, akaso; zaila da hori jakitea. Kontuak kontu, Itxaspe joatea erabaki nuen, Coca-Cola bat hartzera. Jende gutxi zebilen tabernan. Kanpalekua

itxita zegoen eta txandala jantzi eta paseatzen etorritako lau emakume -itziartarrak seguruenik- eta saltzaile ibiltari itxura zuten bi gizon zeuden tabernan ni sartu nintzenean. Disko bat zeukan jarria tabernariak, ez irrati eta ez telebistarik. Komentatu ere ez zuen inork ezer komentatu. Seguru asko inork ez zekien ertzainak inguru haietan ibili zirenik ere. Coca-Cola hartzen nuen bitartean, atzealdeko kristaletik zehar begiratu nuen: Zumaiarainoko itsasertz guztia ikusten zen, eta baita, harantzago, Hondarribikoak bide ziren inguruak ere. Aitzuriko muinoko arte okerra ere ederki ikusten zen, bere azpiko hondartzaren begirale isil. Han behean egongo ote zen oraindik ikurrinean bildutako diru mordo hura? Urruti sentitu nintzen. Hartaz ahaztu eta etxera joatea zen onena.

Halaxe egin nuen. Arestian igotako bidea jaitsi eta lehenxeago nire zalantzen lekuko izandako bidegurutzean trenbide aldera hartu nuen. 69,3. kilometroan irteten da trena Deba baino lehenagoko azkenaurreko tuneletik eta 200 metro agerian egin ondoren 69,1. kilometroan sartzen da azkenekoan. Azken tunel hau luzea da oso,

68. kilometroraino iristen baita, hots, Debaraino, geltokia tunel honen irteeratik 600 metro tara badago ere, 67,4. kilometroan alegia. Nire bidea bi tunelen arteko tartean iristen zen trenbidearen parera. Eroria zegoen arren, ikusi nuen 69,2 markatzen zuen zutoina. Zutoin horrexen parean baina trenbidearen bestaldean kokatuta dagoen Arronamendi baserria inguratu eta haren alboan, Uztei-Txiki izena txaplata batean jarria duen etxola apain baten aurrean, gorantz abiatzen den bideska estu, aldapatsu baina laburrari ekin behar dio Debara joan nahi duen ibiltariak. Hala-xe egin nuen nik ere. Bideskaren amaieran Itziartik Debaraino doan errepidearekin egin nuen topo; handik Debaraino ez dago kilometro pare bat baino, eta gainera ederki egiten da tarte hori, aldapan behera ibiliz, itsasoaren erzetik beti.

Errepidetik begira, itsasertzeko haitzarteraino jausitako kamioi baten txasis herdoildua ikusi nuen. Begira geratu eta kamioi haren txoferrak biziko zuen izua imajinatzen saiatu nintzen. Ikaragarria! Pixka bat aurrerago, itsaso ondoan kokatutako etxe txiki polit bati erreparatu nion.

Maite, Aitor, Arantxa eta laurok asteburu eder bat pasa genezakeela bururatu zitzaidan, etxe hartako giltza izango bagenu. Herrira sartu baino lehenago, Koldobika Jauregi eskultoreak eginda-ko zaldun handi hautsia ikusi nuen. Beti du zer ikusia ibili dabilenak, eta beti du zertaz pentsatua hala nahi duenak. Pena nuen, laster iluntzen hasiko zelako, bidaia amaitua zelako, egun berezi aparta hark bere azkena gain-gainean zuelako, ezinbestean. Larunbat eta jai egunetan ez, baina astegun guztietan, Donostiaraino doan tren abiartzen da Debako geltokitik 18.02etan. Tren horixe izan zen gaur zortzi eguneroko bizitzara itzuli ninduena, oinez ibili berri nituen parajeetatik zehar pasaturik. Arratsaldeko 19.00ak inguruan Donostian nintzen, Sakonetatik urruti, oso-oso urruti.

Dyane-6ko gizona hilda zegoela jakin dut aste honetan. Treneko makinista bat ohartu omen zen -egunkariak esan dutenez- beti toki berean ikusten zuela auto hura, eta auto barruan gizona. Ertzaintzari deitu omen zion eta ertzainek usteltzen eta kiratsa zabaltzen hasia zegoen gorpua aurkitu omen zuten auto barruan. Ikurri-



naz eta diruaz ez dut deus jakin. Ez diot inori ezer aditu ertzainek egun hartan inguru haietan egindako ikerketez ere. Ez dakit nola lot litezkeen sokamutur guztiak, ezta loturarik ba ote duten ere. Nekez argitu ahal izango ditudan misterioak dira horiek.

Oroiminak bultzatu nau orain hasieran baino are mitiko eta urrunagoa iruditzen zaidan gaur zortziko ibilaldi bakartia idatziz gogoratzer. Benetan gustatuko zitzaidana mapa egitea izango zen, mapa handi eta zehatza, trenbidearen puntu kilometrikoei eta tunelei buruz hartu nituen apunteak baliatuz, baina zoritxarrez bada go inguru hura ondo baino hobeto, zehaztasun osoz, jasotzen duen mapa topografiko bat, edo nork aise eros dezakeena Bulebarreko denda ezagun batean. Beraz, zertarako? Alferrik da. Eta alferrik izango zen mapa egiteak mereziko balu ere. Sakoneta gero eta urrutiago izango dut egunez egun. Hausturarako grina itoa sentitzen dut barruan. Kolpe lehor bat jaso nahi nuke, iraindu eta umiliatu nazaten nahi nuke, tortura latzak nozitu, oihu egiteko aukera libre izateko besterik ez bada ere. Bizi egin nahi dut, eta asko sufri-

tu, heriotza honetatik esnatu. Non nago? Non galdu naiz? Non galdu zait Sakoneta? Nola egin dit ihes? Berreskuratu ote nezake inoiz? Eta aukera izango banu, nola eutsi beharko nioke neure Sakonetari?

# Planeta abailduak

Koldo Salegi idazle bergararrak *Planeta abailduak* izeneko poema liburu berria aurkeztu zuen atzo eguerdian Gasteizko Herrikoa liburudendan, liburuaren hitzaurrea idatzi duen Jon Aldazabal irakasle eta literatur kritikari ezagunarekin eta liburu argitara eman duen Susa argitaletxeko Mikel Izetarekin batera.

«Zazpi urte dira nire azken poema liburuak kaleratu nuenetik», adierazi zuen Salegik bere lan berriaren aurkezpenean. «Neure borondatea izan da denbora tarte hori iragan arte itxoitea. Liburu batentzako lain poema aspaldi osatu nituen, baina aukeraketa zorrotzagoa egin eta liburuaren egitura hobeto mamitzeko denbora hartu nahi izan dut. Mesede handia egin dio horrek liburuari nire ustez.»

Iritzi berekoa azaldu zen Jon Aldazabal. «Salegik idatzitako lan berriaren meritu ugarien artean, egileak bide berrien bilaketan egindako ahalegin grinatsua da handiena», esan zuen kritikari ezagunak. «Liburuz liburu bere maila gain-

ditzen du Salegik, lehengoaren parera heltzearekin ez baita inoiz konforme izaten.»

Koldo Salegiren laugarren poema liburua da *Planeta abailduak*. Liburu berriko poemek «giza izaeraren osagarri ezberdinen azterketa zintzoa izan nahi dute», egilearen hitzetan, «eta osagarri horiek guztien banan-banakako tristura, nekea eta abaildura islatu». Abaildura hori agertu eta adierazteko lanean, «Salegiren hizkuntza poetikoa adierazpide soil baino askoz gehiago ere bada», Aldazabalen iritziz. «Abailduraren isla baino abaildura beraren eragile eta motore delako, soineko baino haragi, mami», jarraitu zuen joan den astean bertan Zornotzako Udalak antolatutako Santi Onaindia beka eskuratu berri duen irakasle donostiarrak.

Abailduraren haragi, mami, abaildura huts gara, bai... *Planeta abailduak* biltzen dituen unibertsoa, unibertso freskoa beharbada, itxuraz behintzat, egokia, bizia, tajuzkoa, are indartsua ere hala esan nahi izanez gero. Dena abaildura, ordea, barren-barrenetik. Abaildura eta bere sinonimoak, poesia, zazpi urteko isilaldia, Jon Aldazabal, kazetariak... eta kazetarien artean

neu... zuekin bazkaltzen geratzeko astirik gabe, arratsaldean artikulu hau idatzi behar nuelako, besteak beste. Bada ez, ez diat idatziko, Koldo, ez oraingoz behintzat, ezin diat jarraitu, bazegok aurrera egitea galarazten didan zerbait, betiko esaldi arrunten bidea oztopatzen duen zerbait.

Gaur goizean bertan pozez ninduan hire liburuaren aurkezpenaren berri eman behar nuelako. Harro nengoan hire gaztetako eta betiko adiskide izateaz. Eta liluragarria iruditzen zitzaidan *Planeta abailduak*, ondo pentsatu eta landutako liburua baita, benetako poeta batek idatzia. Pronto ninduan neure lana gogo onez egiteko, ilusioz.

Artikulu idazten hasi naizenean, ordea, liburua iraintzen ari nintzela iruditu zaidak, are gehiago, liburua zauritu eta odolusten ari nintzela, hiltzen eta diseatzen. Horixe iruditzen baitzait egunkariak berriekin eta bizitzarekin egiten duena, horixe baita nik hain maite eta miretsia nuen ofizio honetako langileon zeregina, egunerokoa eta ankerra.

Baina ez zegok salbabiderik. Ni gabe, gu gabe ere, ez zeukak salbabiderik hire poemario-

ak, ez zegok salbabiderik planeta abailduentzat. Zenbat poema liburu idatzi ahal izango dituk? Zenbat urtetako isilunea beharko duk poemario berria kaleratzeko moduan haizela esan artean? Eta zer, orduan ere zer? Norakoak dira bide berri horiek, hain nekez aurkitu eta hain mantso ibiltzen dituanak? Hartzen al duk astirik, bide horietan barrena hoala, aldameneko paisaiei erreparatzeko? Esaidak egia. Ez al dira denak berdin samarrak? Izan al daiteke poema bat, poemario bat, bizitza osoko lan poetikoa, bene-benetan berria, bene-benetan baliagarria, bene-benetan ezer? Zein da poetaren benetako bizipoza, Koldo? Ba al daukak zintzo erantzuterik?

Ez ziguk inork gure gaztetako ametsak bete ez ditugunik esango. Laugarren poema liburua aurkezten hi, gure gaztetako idolo miretsia izandako Jon Aldazabalen laudorioak jasotzen; eta *Egunkaria*-ko kazetari ni, literaturako berrien emaile. Uste baino askoz ere lehenago gainera. Eta ondo, zuzen, benetan, faltsukeriarik gabe iritsi gaituk honaino. Hori ezin ziguk inork ukatu, faltsua ez den inork behintzat.

Baina bazegok zerbait huts egin duena, ez al zaik iruditzen? Tren bat galdu ote dugun iruditzen zaidak...

*Noiz irten zen galdu genuen trena?  
Urrutira eraman behar gintuena?  
Nork abisatu behar zigun?  
Nork zekien ordutegien berri?  
Nola jakin zuten trena hartu zutenek  
noiz joan behar zen geltokira?  
Zein txokotan, zein egintza arrarotan  
geunden gu, despistatuta?*

*Orain ez dugu erremediorik.  
Hemen gelditu gara.  
Etsita.  
Aurrera baino atzera begira bizi gara.  
Handiari baino txikiari begira.*

*Bide seinale hautsiei erreparatzen diegu,  
baserri hondatuetako harri zaharrei,  
espaloietan sakabanatutako zabor apalari,  
leihoren bat edo beste hausten dugu,  
teleaparatuekin kargajasotze saioak antolatu,  
kale ahaztuetako asfalto gainean etzan  
mozkor plantak eginez.*

*Kontzentratu egin ditugu*

*lehengo amets ederrak kapsula txikietan.  
Gero eta trinkoagoa da gure hizkera.*

*Noiz irten zen galdu genuen tren?  
Inork ez zigun ezer esan, ezer galdetu.  
Izan al zen trenik?  
Pena sentitu behar al dugu galdu genuelako?*

Tira, berriketak utzi eta artikulua amaitzeko garaia diat. Hasierara jo, lehen lau lerroaldeak berreskuratu eta aurrera ekingo zioat berriro, handik abiatuta, gure belaunaldiko poetei buruz esan dituzuenak aipatuz: «Hautsi beharrekoa hautsi dugula iruditzen zait. Orain, hausturaren bideetan esploratzen has gaitezke, eremu berrien bilaketa amaigabean...» Ez duk zaila, baina presaka ibili beharko diat, ordubete pasa galdu baitut alferrikako jardun antzuetan.

Ikusia zegok, Koldo, artikulua hasi, poema bilakatu eta orain nola bukatu ez dakidan testu hau irakurtzea asko duk horretaz ohartzeko: ez zegok salbabiderik planeta abailduentzat. Besarkada handi bat, nolana ere, nire adiskideen arteko poetarik handienari eta poeten artean adiskide handiena dudanari. Gora planetak!



# Argazkitik kanpo

**URRIAK 22, ostirala**

Hiri honetan ez nau inork ezagutzen. Hiri honetan inork ere ez daki argazkilaria naizenik. Hiri honetan, izan ere, ez bainaiz argazkilaria. Hiri honetan, izan ere, ez bainaiz inor, ez bainaiz ezer, ezer ere ez. Eta ederki dago, horrelaxe behar du, ondo da, horixe nahi dut, eta horrexegatik nago hiri honetan. Ez dudalako inorekin egon nahi, ez dudalako ezer izan nahi.

Egia esan, kamera neurekin ekarri nuen erre-tiro honetara, baina ez dut hura esku artean hartzerik ere nahi. Nahi izanda ere, ezin izango nuke. Beldur ilun bat jabetzen da nitaz kamera ikuste hutsarekin. Argazkiena oroitzen hutsa baino ez da, oso oroitzen bitxia, hori bai, barne-barnekoa, neure-neurea. Oso polita izan zen bide seinale hautsiena, oso ondo pasatu nuen. Ez, kontua ez da polita izan zela, eta ezta ondo pasatu nuela ere, beste zerbait izan zen, orain hitzez nekez azal nezakeena. Seinale hautsi haiei begiratu eta seinale haiei argazkiak egi-

tea, hura lilura berezi eta agian errepikaezina izan zen, mirari txiki baten modukoa, mirari txiki eta guztiz pertsonala, neu izan ezik beste inork sentitu ez zuena, neuk ere, lehen esan dudan bezala, ezin azal dezakedana, baina, hori bai, nire bizitzako miraririk handiena, bakarra, berezi eta agian errepikaezina, lehen esan dudan bezala. Bai, lehen esan dudan bezala, ezin baitut beste inola esan, adierazi, agortu baititut dagoe-neko hitzak; deus esan gabe, jakina. Ez, ez dago hura zer izan zen hitzez azaltzerik.

Jauzi gogorregia izan zen bide seinale hautsiena. Erabat ahaztu eta deuseztatua sentitzen dut nire ordura arteko bizitza, hain izan zen xumea, sinplea, ezdeusa, laua, kolorerik, indarrik eta funtsik gabea. Bide seinale hautsien lilurak beste dimentsio batera eraman ninduen, kapultatu, baina orain, lilura horrek abandonatu nauenean, euskarrik batere gabeko espazio ilu-nean galdua nago, zulo beltz handi batean sartuta, inguruan zer dudan eta inguruarekiko nire harremanak nolakoak diren arrastorik gabe.

Familia, adiskideak, Idoia... ez dira errealak niretzat. Ez ditut bizi, ez ditut benetan sentitzen.

Ez dakit inoiz sentitu ditudan baina garbi dago orain behintzat ezetz, garbi dago orain behintzat ezin diedala ez ezer eman eta ez ezer eskatu, ezin diedala, jendetasunari dagokion minimoaz aparte, heziketa ona esaten zaionari dagokionaz landa, inolako harreman benetakorik eskaini, errespetu formalaren mugetan amaitzen baita gaur egun ezein pertsonarekiko izan dezakedan lotura oro. Inorekin haserretu gabe ere, maitasun inguru bizi batetik bakardaderik ilunenera pasea naiz. Horregatik nago, bai, inork ezagutzen ez naueneko hiri arrotz baina abegikor honetan, errespetu formalari dagozkion ahalegin desatseginetan alfer-neke gogaikarririk hartu gabe ere deus ez izaten lasai-lasai uzten didan hiri honetan.

## **URRIAK 24, igandea**

**Harritu** egingo lirateke herriko adiskideak hemen zein bizimodu ordenatua daramadan jaikingo balute. Goizeko zazpi t'erdietan altxatu naiz gaur ere ohetik, nahiz eta igandea izan eta eginbeharrik batere ez nuen. Egunero jaikitzen

naiz ordu horretan, egunero eguerdiko ordu bata t'erdietan bazkaldu eta gaueko zortzietan afaltzen dut, eta egunero gaueko hamaikak baino lehen naiz ohean. Gezurra badirudi ere -ez luke berehala sinetsiko zenbaitek!- atsegina zait bizi-modu metodiko hau, eta atsegina zait egunak ezer egin gabe pasatzen uztea ere.

Bide seinaleen lilura iragana eta ahaztua dudan arren, aitortu behar dut oso baliagarria zaidala oraindik ere haiei esker eskuratu nuen milioi t'erdia, sari horri esker baitut orain bizi naizen nirvana berezi honetan bizitzeko aukera.

## **URRIAK 26, asteartea**

Harritu egin nau hiri honek. Ikusgarria iruditzen zait benetan. Lehenaren, orainaren eta geroaren arteko lotura ezin freskoagoak egiten ditu Bilbok. Mila txoko harrigarri ditu, irudimena gainditzten duten forma abstraktu kontaezinak. Kontrasterik handieneko elementuak batzen eta nahasten dira hemen, denak batera, denak pilatuta, denak elkarren gainean, erarik bitxi, txundigarri eta heterodoxoenean ahaidetuta: baserriak

hiri barruan, tximinia industrial erraldoi desaktibatua parke zabal eta eder baten erdian, noranahi irteten diren tren ugarietzako gordeleku ezkutua -satorzulo ilunak antzo- hiriaren bihotz-bihotzean, trena terrazaren ondo-ondoan eta autopista komuneko leihoaren parean duten etxebizitzak...

Gaur, esate baterako, kasko zaharretik Begoñara joateko biderik zuzen eta azkarrena den igogailu publikoan gora eta behera ibili naiz, bere bitxitasunarekin liluratuta. Gero lanbro mehe batek estali du dena eta, udazkena, oroimin eta tristura barnebildu eta gozo baten forma harturik, barru-barruan sentitzen nuela, hiri erdiko kaleetan jarraitu dut arratsaldeko paseoa.

Argazki erakusketa bat bisitatzera animatu naiz iluntzean, barruko zirrara horiek samurrago eta neureago sentitzen lagunduko zidalakoan. Horretarako egokiak ziren irudiak, egia esan, udazkenez, oroiminez eta tristura samurrez jantziak: tren geltoki ahantziak, hondartza bakar-tiak, bideska ezkutua, etxe isolatuak, zahartu eta abandonatutako auto eta kamioiak. Baina, hala ere, nire ordura arteko lilura guztia hautsi

eta afaltzeko orduaz kezkatzera baino ez nau bultzatu erakusketa aretoan egin dudan jira azkarrak. Hantxe amaitu dira gaurko lilurak oro, prosa gailendu zaio, zakar, poesiari. Izan ere, ondo pentsatuz gero, ba al dago argazki, koadro, eskultura edo dena delakoen erakusketa baino gauza zozoagorik, ergelagorik, absurduagorik, erridikuluagorik? Zer egiten zuten argazki haiek guztiek elkarren ondoan, inor harritzeko ezgauza, indarririk batere gabe, hilotz bihurtuta? Izan ere, erakusketa batera joaten dena alde zuzenetik abisua jasota joaten da eta, horrenbestez, ez da harritzen, ez du argazkia sentitu ere egiten; gainera, erakusketan ezarritako argazkia erabat indarge geratzen da bere antzekoz, bere kidez inguratua, nortasuna erabat galdurik, kokildua, ezdeus bihurtua. Erakusketak arte lanen hilerri hutsak baino ez dira. Edozein erakusketatan baino mila aldiz indar handiagoa izan lezake argazki batek denda bateko erakusleihoan, taberna bateko horman edota kale kantoi batean era egokian kokaturik, ikuslea bat-batean, ezustean eta desarmatuta harrapatzeko gauza denean, ikuslearekin aurrez aurre egokitu eta gizaixoa

asaldatu, ikaratu, biluztu eta bizi-bizirik larrutze-ko egokiera duenean. Neuk egindako erakusketa bakarrean ikasi nuen hori, nire bide seinale hautsiak funtsik gabeko irudi inozo eta hutsal bihurtuta ikusi nituen hartan, eta gaur berriro baieztatze-ko aukera izan dut, aspaldiko partez.

## **URRIAK 27, asteazkena**

la-ia oharkabean, gero eta gustorago nago hiri honetako erretiroan. Nahiz eta ez dudan ezer ere egin, nahiz eta ez dudan ezer ere konpondu, ez naiz larritzen eta ez naiz gaizki sentitzen. Hona heldu nintzenean, bihar hamabost, dardarka sentitu nituen erraiak. Txarrak okerrera jo besterik ezin egin zezakeela iruditu zitzaidan, eta nire pentsamenduen gela ilunean hilerriko irudiak ere ikusi nituen pantaila txiki batean proiektatuta. Makurtuta egon eta, nahi izan eta ahaleginak eginagatik ere, ezin jaiki izatearen parekoa izan zen egun haietan sentitu nuen sentsazioa. Tximino baten erara, bizitza osoa makurtuta ibiltzera kondentatuta banengo bezala. Apurka-apurka, ordea, anonimotasun, hustasun, bakardade eta

lasaitasun paregabe honen egunerokotasunak oreka berri eta atsegin bat sentitzera bideratu nau. Atseginak izaten ari dira egun galdu hauek (noiz itxiko den ez dakidan baina babes epela eskaintzen ari zaidan parentesi luze eta patxada-tsu hau). Ez, seguru asko, gerria zuzendu eta altxatu naizelako, makurtuta ibiltzen gozoro etsi dudalako baizik.

Ostatuan bertan komun nahiko egokia izan arren, ostatuko jangelan bazkaldu ostean hiru edo lau kale aurrerago dauden komun publikoetara jotzen dut egunero-egunero, hesteak libratzera. Eskailerak jaitsi eta izkina batean kokatutako kabinan dagoen emakumeari txartela erosten diot, bi durotan. Emakumeak txartel txiki bat eta komuneko paper zati luzea eskuratzen dizkit. Bere aulkitik altxatu, kabinatik irten eta zein komun gelatara joan behar dudan esaten dit. Eta ondoren neure gelatxoan egoten naiz, lasai-lasai, bost edo hamar minutu. Batzuetan kaka egiten dut, beste batzuetan ez, baina hantxe egoten naiz, egunero-egunero. Eta egunero-egunero eskuratzen dut komun publikoetako txartela. Hamar ditut jadanik (hirian lau egun egin arte



ez nuen leku honetara sartu beharrik sentitu, ez fisiologikorik eta ezta izpiritualik ere), eta oso esmatuak ditut, zergatik estimatzen ditudan ulerterik ez dudan arren. Berdin dio. Hor ditut, eta egunero-egunero sentitzen dut txartel berriaren ilusioa. Bihar bat gehiago, hamaika. Eta gerorako esperantza beti.

Konparazio txoro samarra egitea izango bada ere, komun publikoak nire eliza direla esan daiteke, emakume zaindaria apezka eta txartel bilduma Liburu Santua; eta egunero-egunero komun publikoetara jotzeko zeremonia mezaren parekoa, jakina. Azken finean, atea izan arren, beti izan baitut nik erlijioaren beharra, beti izan bainaiz ni oso pertsona erlijiosoa, fede baten eta fede horri lotutako errituen premia izan duen atea. Herrian honelako konparazioak egiten ditudala jakingo balute, antiklerikala naizela esango lukete, Elizaren aurkako txiste txarra dela egin dudana. Baina nik benetan diot hori, neure egoera ahalik eta zintzoen adieraztea eta aztertzen saiatzea baita nire asmoa, ez besterik.

#### **AZAROAK 4, osteguna**

Argazkilari bat kaxkartzen denean, hil egin behar da, gupidarik gabe, hutsunearen ezerezetik argazkilari berria sor dadin; eta delako berri hori sortuko ez bada ere berdin dio, hil egin behar da onenak emanak dituen argazkilaria. Horretara etorri naiz Bilbora.

#### **AZAROAK 8, astelehena**

Bekatu egin dut gaur, bekatu larria. Ez dut komun publikoetako txartelik eskuratu gaurkoan, ez baitut -hona hemen bekatuaren benetako jatorria, kontzientzia benetan zauritzen didana-bakarrik bazkaldu. Ez nuen Lierni Kajarabilleren erakusketa ikusteko asmorik, are gutxiago aurkezpenera joatekorik, baina nik uste nuen baino ahul eta babesgabeago utzi nau Bilboko bakarraldi luze honek eta, azkenean, ezin izan dut amore eman.

Aurkezpenera agertzea eta damutzea bat izan diren arren, Liernik hasiera-hasieratik harra-patu nau bere irribarre freskoarekin. Jakina, harentzat ere arrotza da hiri hau, eta ikusi naue-

nean naufragoak ohola bezala oratu nau, ihes egiteko aukera oro deuseztatuz.

Urduri eta arraro sentitu naiz aurkezpenaren parafernalia amaitu, antolatzaile eta kazetariak agurtu eta biok bakarrik geratu garenean, kasko zaharrean txikito batzuk hartzen lehendabizi eta bazkaltzen gero.

Egunero buruan izaten ditudan kontuak indarrik gabe geratu dira bat-batean, funtsik batere gabeko umekeria ergelak bailiren, eta erabat Lierniren menpe geratu naiz. Neure mundua galdurik, Lierniren munduak zurrupatu eta bereganatu nau, eta berarekin egon naizen bitartean gauza guztietan arrazoi zuela iruditu zait, baita bakardade hau utzi, kamera esku artean hartu eta bizitzari aurre egin beharko niokeela esan didanean ere. Ez naiz neure aukera defenditzeko gauza izan.

Arratsaldean Begoñara joan gara eta Bilboko igogailuen bitxitasuna azaldu diot Lierniri. Lotsatu egiten nau nire hitzak oroitzeak. Iluntzean bazirudien munduko gauzarik naturalena Liernik eta biok gaua elkarrekin pasatzea izango zela. Aspaldidaniko senar-emazteak izango bagina

bezala izan da, edo hala sentitu dut nik behintzat. Liernik, ordea, nik une batez ezetz pentsatu dudan arren, bere munduan ondo finkatuta jarraitzen zuen eta trena hartuko zuela aipatu du. Egia esan, pena sarkor bat sentitu dut baina, jakina, ez naiz Lierni hona ekartzeko gauza izan. Azken bost asteetan ez dut kolpe zorririk jo giza-harremanen arloan, eta gehiegi eskatzea izango zen gaur bat-batean hainbesteko ahalegina egitea. Egin dudana egin izana ere ez da gutxi, eta nahiko harrituta nago.

Triste utzi nau gaurko egunak. Batez ere Liernik penaz agurtu nauela gogoratzeak mintzen nau. Hark ere hemen geratzea nahi zuen, nire ondoan, goxo-goxo, aspaldidaniko senar-emazteak bagina bezala, naturaltasunez, asaldurarik gabe, bihotz-ikararik gabe, pasiorik gabe.

## **AZAROAK 9, asteartea**

Gaur ere komun publikoetan izan naiz. Hogeita bi txartel ditud dagoeneko. Ezin da ezer erosi txartel horiekin baina txartel bakoitzarekin zer-bait irabaziko banu bezala sentitzen dut, halako

batean, ez dakit noiz, txartel hauen truke zer-bait, ez dakit zer, eskuratzeko eskubidea izan behar banu bezala. Gaurko egonaldiarekin atzoko hutsarengatik sortutako kontzientzia txarra lasaitu dut, apur bat bederen. Dena ondo dabil, ederra da Bilbo eta ezertarako presarik ez dago, batere presarik ez.

### **AZAROAK 12, ostirala**

Zuri-beltzeko argazki bertikala. Zakur deslaia euritan, mela-mela eginda, muturra ilun, buzta-na abaildua. Ederra argazkia. Jakina, ez dut erakusketa batean ikusi, kaleko horma batean baizik. Zakurren abandonua salatzen zuen kartela. Ezustean harrapatu eta «*bizi-bizirik larrutu*» nau, urriaren 26ko orrian esaten nuen bezala. Argazkikoa bezala, Bilboko kaleak ere bustita zeuden eta kotxeek zarata hezea egiten zuten asfalto gainean. Laster eguberriak direla etorri zait burura.

### **AZAROAK 16, asteartea**

Ondo aukeratu nuen erbestealdi ilun eta bakar-  
ti honetarako tokia. Bere zatarrean indar ikara-  
garri baten jabe da hiri hau. Paraje paregabea  
da, dudarik gabe, argazkilarientzat. Baina, tira,  
ni ez naiz argazkilaria. Oraindik ere kamera esku  
artein imajinatze hutsarekin barne muinak beru-  
nezko zama hilgarri batez zanpatuak sentitzen  
ditut. Baina orain jada argazkilaria ez banaiz ere,  
bide seinale hautsienaren antzekoa ere izan dai-  
tekeen lilura berri bat hasi da nitaz jabetzen hiri  
honetan.

Hiri barruko kale, txoko eta zuloak, eskailera,  
funikular eta igogailuak, komun, denda eta ta-  
bernak ezagutu ostean, azken egunotan hiritik  
kanpoaldeko auzuneetara hasi naiz jotzen: As-  
trabudua, Otxarkoaga, Txurdinaga, Etxebarri,  
Errekaldeberri, Altamira... Hunkitu egin naute  
aurkitu ditudan parajeek. Auzune periferikoeta-  
ko kaos hautsiak -bide seinale hautsiek bezala-  
xe- gure aurrerabidearen kontraesana azalera-  
tzen du. Elkarren aurka daude etengabe obra be-  
rriak egiteko lurrak iraultzen ari diren induskai-  
luak eta etxe beti berdinen ondoan kokatutako  
parke artifizial, karratu eta bizigabeak. Eta guz-

tien ondoan, ezertarako baliatzen ez diren lur sail abandonatu eta zatarrak, behin betiko hondamena diseinatuko dien egitasmooaren zain. Auzune periferikoetan gizakiaren ibilera eroa ikusten da bere gordintasunean. Horregatik, kanpoaldeko auzuneek duten nortasun gabezia kaotiko eta hautsi hori geure izatearen metaforarik egokiena iruditzen ari zait azken egunotako paseoetan, garai batean bide seinale hautsiak neure barne munduaren isla perfektu eta lilurgarri iruditu zitzaizkidan bezala.

Atsegin zait auzune periferikoetan zehar paseatzea, besterik gabe. Tarteka, kamera izaten dut gogoan, baina urdailak ezetz esaten dit behala, ez bilatzeko lilura faltsurik, aratz eta zintzoa izateko, paseatze hutsa besterik ez dagokidala eta horretara etsi beharrean naizela lilura hori bere horretan betiko aienatuko ez bada. Hobe dut, horrenbestez, denbora gozoro galtzen segitzea, beste kezkarik gabe.

**AZAROAK 20, larunbata**

Nahiz eta komun publikoetako zitari ez huts egin, ez nago batere lasai gaurkoan ere. Edurne da nire kezkaren izena, orain dela gutxi Lierni izan zen, eta lehen -eta orain ez?- Idoia... Oraindik, erbeste arrotz honetan ere, beti neure ondoran dagoela iruditzen zaidan Idoia.

Ostatua kasko zaharrean dagoenez, eta goiz jaiki eta kaleratu ohi naizenez, larunbat eta igande goiz askotan egokitu zait gaupasa egindako azken mozkorrak ikustea taberna atarietan. Inoiz baino gehiago zegoen, ordea, gaur goizean, neu ere inoiz baino goizago jaiki naizelako behar bada, artean eguna argitu gabe zegoela, Artxandarako muinora igotzeko asmoz.

Betidanik iruditu izan zait bitxi eta erakargarria parrandaren aldi zaratatsua amaitu osteko abaildurazko une hori. Tabernak itxita, eguna argitzear, neka-neka eginda, baina hortxe hala ere, ezin etsi, nahiz eta eguzkiak begiak mindu, nahiz eta jakin egun argiaren arrunckeriak borroka irabazi eta aurki dena bereganatuko duela. Nik Artxandarako asmoa nuen baina hantxe geratzeko gogoia etorri zait.



Taberna atari batean eserita zegoen taldetxo bateko neskak piropoka hasi zaizkidanean auke-ra esku artean jarri didate, eta Artxanda bihar ere toki berean egongo dela pentsatu dut neure artean. Eurengana hurbildu eta haserretu plantak egin ditut. Ea ez al duten lotsarik esan diet; ondo dagoela gauez irten eta pixka bat edatea baina jakin egin behar dela garaiz etxeratzen eta, batez ere, lagun hurkoa errespetatzen; oso itxura txarra ematen dutela emakumeek egoera horretan... Gero, jakina, nire sermoi guztia antzezpen hutsa izan dela erakutsi diet, eta eurekin joan naiz gosaltzera. Leioako ikasleak ziren, Kazetaritza fakultatekoak, neska-mutil jatorrak, herri askotakoak, bizkaitarrak batzuk, gipuzkoarrak besteak eta, jakina, nafar bat ere bai, toki guztietan baikaude gu barreiatuak.

Gainerako guztiak etxera joan direnean, Edurnek ea etxe atarira lagunduko ote nion galdetu dit, ez zela oso urruti bizi eta. Hori esateko erabili duen tonuak ez zuen, ordea, zalantzarik uzten: ez zen konforme izango etxe atarirainoko laguntzarekin, beste zerbait nahi zuten gaupasa luzearen ondoren distira gorri setati eta gosetia

erakusten zuten begi beltz handi haiek. Biok sartu gara bere etxean eta bere ohean.

Bere begien gose biziminez betea asetu ondoan, lo seko geratu da Edurne nire besoetan. Polita zegoen, samurra zen bere ume babesgabe itxura. Baina ez zegokien nire besoei aingerutxo haren gorputz delikatua babestea. Kontu handiz askatu, ohetik jaiki, isilean jantzi eta kalera irten naiz Edurneren etxetik. Paseo txiki bat egin, ostatuan bazkaldu eta komun publikoetako hogeita hamahirugarren txartela eskuratu dut. Baina alferrik izan da. Arratsaldean ez dut paseatzera irteteko kemenik izan eta hementxe egon naiz, ostatuko gelan, lur jota.

Ezinezkoa da bizitzan asmatzea. Alferrik da saiatzea. Adiskidetzea, maitatzea, zerbait egingen, zerbait lortzen saiatzea iruzur bide hutsa da, oinazera baino ez daramana. Idoia, Lierni, Edurne, argazkiak... bizi eta erretako lilurak dira horiek oro, errepikaezinak. Komun publikoetako zeremonia da egunez egun behin eta berriz benebenetan errepika dezakedan gauza bakarra, eta horrixeko eutsiko diot bihar ere, beheraldi iragan-kor hau ahaztuta.

## **AZAROAK 28, igandea**

Ez dut bizitza osoan argazki gehiago egingo. Ez dago duda handirik horretaz. Argi dago Bilbon izan eta argazkirik egiten ez duenak ez duela inoiz argazki gehiago egingo.

## **AZAROAK 30, asteartea**

Edurne ikusi dut gaur goizean, Leioara joateko autobusaren zain. Nahiz eta berari begira geratu naizen, ez du niregan erreparatu. Ez dut uste nire aurpegia gogoan geratu zitzaiotarik. Berez, hobe da horrela, baina mingarria ere bada, bai, mingarria denez, egia esan. Inor ez izateko asmoz etorri nintzen hiri honetara, eta bete-betean lortu dut. Baina mingots eta beldurgarria ere bada, oso beldurgarria batzuetan, ezer ez izate ilun hau.

## **ABENDUAK 8, asteazkena**

Bilbori begira egon naiz gaur goizean Artxandatik. Ezagunak zitzaizkidan begi aurrean nituen paraje guztiak. Baita hiritik kanpoaldekoak ere, gibelean ikusten zen aireportuaren ingurukoak barne. Gainera, gero eta aurpegi ezagun gehiago aurkitzen dut nire eguneroko ibilaldietan. Komun publikoetako berrogeita hamaika txartel eskuratu ditut dagoeneko eta uste dut hemendik alde egiteko tenorea heldu dela. Santanderrera joango naiz bihar bertan, goizean trena hartuta.

Beharbada etxera idatzi behar nuke, eguberriak baino lehen, hil egin naizela esanez.

# Behetik hasita goraino

Oihane Garate dut izena, eta azkoitiarra naiz. Azkoitian jaio nintzen orain dela hogeita bi urte, eta ni naiz Azkoitian inoiz izan den lehendabiziko neska txirrindularia, eta baita orain artean egundaino izan den onena ere, ez dut uste harrokeria handia denik nire aldetik hori esatea. Onena izateko merituak ez du beharbada askorik iraungo honezkero, beste neska azkoitiar batzuk ere hasiak baitira pedalei gogor eragiten, baina lehendabizikoa izateari dagokiona, hori behintzat inork inoiz ezin kenduko didan ohorea da.

Gure etxean beti izan da bizikletarako zaletasuna. Gure aitak trabes gogoangarriak egin izan ditu hain bat herritarrekin: esku bakarrarekin irabazi zion behin Elgoibarko San Pedro auzunera igotzen bere garaian nahiko txirrindulari ona izandako bati; beste batean, berriz, eskurik gabe igo zen bizikletan Urrategi auzuneraino; eta hamaika horrelako...! Gure Julen ere, neba zaharrena, pixka bat ibilia da nahiz eta ez zuen sekula bere burua behar bezala zaintzen ikasi; hala ere

oraindik gustora askorik ibiltzen da bizikletan igande goizetan eta horrela. Gurean beti aipatu eta komentatu izan dira txirrindularitzaren inguruko albisteak, hala profesionalen munduko berri nagusiak nola herri ingurukoak, beti izan da txirrindularitza denoi interesatu zaigun gaia, baita amari ere azkenerako, beti txirrindularitzaz kokoteraino dagoela esaten jarduten badu ere.

Hamaika urte bete nituenean aitak azkenean ere hainbeste irrikatutako oparia egin zidan, bizikleta berria, karrerako bizikleta, benetako bizikleta, eskuleku kurbatuarekin eta hamar martxarekin... Ilusioa, huraxe ba ilusioa nik orduan nuena...! Laster hasi nintzen neu ere, etxekoen pausoei jarraiki, plater txikia eta hogeita lau hortzekiko pinoitzarra jarri eta Urrategira igotzen, edota Kukuherrira edo Olasora, eta baita Martirietara ere geroxeago. Neure artean telebistako edasleen jardunak imajinatzen nituen, nirekin miretsita: «Oihane Garatek eraso egin du gogor eta bakarrik geratu da aurrean, ezin izan dio inork atzetik jarraitu. Neska honek aldapetan ez du kontra egingo dionik. Nahi duenean aurrera jotzen du, bakarrik geratzen da eta irudietan

ikusten duzuen erritmo bizi etengabe horrekin alde izugarria ateratzen die atzetik datozeinei, gero eta handiagoa. Aurrera begira tinko, bizi-bizi, estilo bete-betean igotzen du neska honek edozein aldapa. Benetan miresgarria da...» Era horretan nekez ia-ia konturatu ere egin gabe iristen nintzen gaineraino.

Hamahiru urterekin karreretan parte hartzen hasi nintzen, gaztetxoek kategorian, ingurueta-ko herrietan batipat, noizean behin Bizkaia alde-  
ra joaten baginen ere. Karrera haietan oso zaila zen niretzat irabaztea, ezinezkoa. Gehienetan aurreneko taldean heltzea lortzen nuen baina ez nuen indarrik izaten esprintean ezer egiteko. Aldaparik apenas inoiz igo ere egiten genuen, eta igotzen genituen gutxiak oso motzak eta errazak -Martirietakoaren laurdenik ere ez-, eta helmugatik urrun samar beti ere. Aitzakia horri heltzen nion; hala esaten nuen beti, nirea aldapan gora joatea zela; aldapa luze eta gogorak, behean erritmo egoki bat hartu eta erritmo horri goraino eusten lanak ematen dituztenak, horixe zen nik behar nuena.

Hamabost urterekin gazteen kategoriara igo nintzen. Orduan hasi ginen aldapa nahiko luze eta gogorak igotzen, eta kolpe handia izan zen hura niretzat, uste nuenaren guztiz kontrakoa gertatu baitzen: pot eginda geratzen nintzen aldapan gora eraso gogor bortitzak egiten zituzten neskei jarraitu ezinik. Hala ere pixkana-pixkanaka gero eta hobeto igotzen hasi nintzen, neure erritmoa hartuz behe-behetik hasita. Atzean geratzen nintzen baina osorik iristen behintzat goraino, eta denbora gehiegi galdu gabe. Aita izan nuen garai hartan aholkularirik onena, taldeko entrenatzaileak esprint gogorra zutenei edota azken kilometroetan gogor ekiteko gauza zirenei begiratzen baitzien gehiago, karrerak irabazten zituztenei, alegia. Aitak beti esaten zidan ez lehertzeko, lasai ibiltzeko, indarrak azkenerako gordetzeko beti. Hamabosgarren iritsi, berrogeigarren edo laurogeita hamargarren, hari ez zitzaion axola. «Kontua ikastea dun», esaten zidan. Aitak itxaropen ezkutuak zituen nirekiko, gerora begira. Aita konturatua zen aldapa luzetan nire gorputz argal arinak oso ondo erantzuten zuela, inoiz ere bortxatu gabe neure erritmo



etengabean ttapa-ttapa behetik goraino luzaz iraun nezakeela ahitu gabe, ezinik somatu gabe, joan eta joan, segi eta segi. Lautada luzeetan eta hauen ondorengo esprint azkarretan jai nuen, gazteen kategoriako aldapa leun eta laburretan ere ez nintzen onenetakoa, baina aitak beti esaten zidan ez zegoela Gipuzkoa osoan Martirieta-  
ra ni bezala igoko zen neskarik. «Ezta hurrik eman ere ordea, sinetsi ezan hori, egia dun eta!»

Hamazazpi urte nituela maitemindu egin nintzen, txirrindulari batekin, noski, ia ezinbestekoa zenez. Alex zuen izena eta amateurretan korritzen zuen. Urretxuarra zen eta han ezagutu nuen, oso era bitxian, Legazpitik Urretxurako bidetan, Soraluzen amaitzen zen karrera batean. Gurpila zulatu zitzaidan eta atzean geratu nintzen. Erratzaren kamioia neure aurretik pasatu zen nitaz ohartu ere egin gabe, karreratik kanpo uzten ninduelarik horrela. Alex erratz-kamioiaren atzetik zihoan, entrenamendua egiten, eta isats-kamioikoa ez bezala hura konturatu egin zen nire egoeraz, hark erreparatu egin zuen nigan, eta, areago, nire parean gelditu eta laguntzarik nahi al nuen galdetu. Bere errepostuko

tubularra askatu eta azkar-azkar ezarri zion nire gurpilari, zulatutakoa kendu ondoren. Gero, gainera, karreraren atzealdea harrapatzen lagundu zidan Soraluzeraino, bera aurretik tiraka beti nik atzetik ahal nuen bezala jarraitzen nion bitartean. Ozta-ozta lortu genuen erratza harrapatzea azken kilometroetan, Deskarga eta Bergarako bidea hartzeko bidegurutzearen parean geure bizia arriskuan jarri ondoren. Hirurogeita hemeretzigarrena izan nintzen karrera hartan; ondo gogoan dut zenbakia, gero askotan aipatu bainion Alexi txantxetan. Egun hartaz gogoratu eta malkoak etortzen zaizkit begietara, irribarre samur batekin batera. Nola ez zen bada maite-minduko karreratik kanpo, erabat abandonatuta geratu zen neska errukarri hura bere laguntza osoa hain era suharrean eta hutsik hutsenaren truke eskaini zion mutil bizkor eta zintzo hartaz? Bada hori ere bi amorantek elkarren ezagutza egiteko modua! Komikoa ere izan zen horratik elkar ezagutzeko bidean jarri gintuen egoera hura!

Elkarrekin entrenatu genuen biharamunean bertan, astelehenean. Alex Urretxutik Azkoitirai-

no etorri zen bizikletan, niri entrenamendua egi-  
ten lagundu eta gero atzera Urretxura itzuli. As-  
teartean ere etorri zen niri laguntzera baina ga-  
nora handirik gabe egin genuen entrenua egun  
hartan, xirrika eta musuka hasi baitzitzaidan mu-  
tila bizikletatik jaitsi gabe, munduko txirrindula-  
ririk ederrena nintzela esaten zidan bitartean...  
Tira, oso erromantikoa hori guztia ere... Oso  
mutil jatorra zen Alex. Eta halaxe izaten jarraitu-  
ko du, noski, dudarik ez.

Urte ederrak izan ziren haiek benetan. Alexek  
eta aitak nirekiko uste osoa zuten, nahiz eta nik  
karrerarik irabazi ez. Alexek konpetizioa utzi  
egin zuen, inoiz profesional izatera ezin iritsiko  
zela etsita, amateurretan ere atze samarrear  
ibili ohi zenez gehienetan; eta niri laguntzen hasi  
zen orduan buru-belarri. Zenbat kilometro egin  
ote dugu elkarrekin, zenbat aldapa gora eta be-  
hera, zenbat esprint geu bion artean, zenbat  
jolas eta zenbat broma, zenbat musu jarrera  
bihurri zailetan, zenbat xirri xelege bizikleta gai-  
nean! Hala ere ez genuen entrenua alferrik gal-  
tzen. Alexek ere ikusi ninduen behin baino gehia-  
gotan Martirietara igotzen eta hark ere bazekien

goren mailako kategoriara iritsitakoan aldapa gogor luzeetan ondo ibiliko nintzela, ondo entrenatu eta behar adina indar hartuz gero txirrindularitza femeninoan onenen artekoa izatera iristea ere banuela. Ni neure aldetik prest nengoen, jakina, nituen denak emateko horretarako ahaleginean.

Maila gorenean korritzeko ordua iritsi zitzaizanean postu onak egiten hasi nintzen, karrera aldapatsuetan behintzat. Aurreneko taldean ibili ohi nintzen, eta atzean geratuz gero ere ez oso urruti. Lauean ere askoz hobeto ibiltzen hasi nintzen, gorputz sendoago eta gogorrago baten jabe. Behin hirugarren izan nintzen, beste batean aldapan gora ihes egin, gainetik lehenengo pasatu eta beherakoan lau neskak harrapatu ninduten; azkenik, helmugan, bosten arteko esprintean laugarrena izan nintzen. Ezaguna izaten hasi nintzen, tropelean galdutako neska anonimoa izateari utzita. Euskal Herritik kanpoko karreretan parte hartzeko aukeratu ninduten eta, hasieran kolpe gogor samarra izan arren, pixkanaka-pixkanaka gero eta hobeto moldatzen joan nintzen horretan ere. Laster izan nuen igotzaile

arin eta bikainaren fama Espainia osoko karrerarik onenetan. Ez nuen karrerarik irabazten baina aurrean nintzen beti ere, eta aldapan gora ez ziren asko ni atzean uzteko gauza ziren neskak.

Horrela iritsi zen orain dela hiru urteko Espainiako Txapelketaren eguna. Deban jokatu zen, eta oso gogorra zen prestatutako ibilbidea: hiru aldiz igo behar zen Sasiolatik Kalbario gainera, eta azken igoera helmugatik oso gertu zegoen, handik Mutrikura jaitsi eta atzera berriz Debaraino azken ahalegina egitea baino ez baitzen falta izango. Polemika pixka bat ere izan zuen ibilbide hark, zenbaiten ustez gogorregia zelako Kalbariokoa bezalako igoera hiru aldiz egin beharra emakumeentzako karrera garrantzitsu batean. Izan ere, esprinterrak eta rouleurak beldurtzeko modukoa zen ibilbide hura. Nik ez nuen beldurrik, ez, ibilbidearen gogortasuna zela eta. Gainera, ibilbideko errepidea ezagutzen nuen eta hori ere ona izaten da beti. Isil-isilean itxaropen handia nuen gordea, aitak eta Alexek bezala. Nik aldapa gogorrak behar nituen, eta aldapa amaitzen den tokian bertan edota handik gertu amaitutako karrerak, bestela ezinezkoa baitzen nire-

tzat bakarrik ihes egitea, eta bakarrik iritsi ezean ezinezkoa, berriz, irabaztea. Aukeran aldapa luzeagoa izango nuen nahiago nik, baina banekien Kalbariorako azken igoera, bere motzean ere, oso gogorra izango zela, ordurako txirrindulari guztion indarrak nahiko erreta egongo zirelako. Irabazteak ederra behar zuen izan benetan. Ilusio handia nuen neure barrenean gordea, azkenera arte borrokatzeko prest nintzen. Artean inoiz karrera bakar bat irabazi gabea nintzen eta, bestalde, egun hartan irabazle izatea oso garrantzitsua zen berez, atzerrian korritzeko ateak zabal baitziezazkidakeen garaipenak, munduko txapelketan parte hartu behar zuten neskak aukeratzeko garaia orduantxe zenez.

Gogoan ondo iltzatua dut karrera hura bere xehetasun guztiekin. Hura nire bizitzako karrera izan zela esan daiteke, ez bakarrik garrantzitsue-  
na izan zelako gerora begira izango zituen ondo-  
rioengatik, baita neure bizitzaren metafora  
bihurtu zelako ere, dudarik gabe. Gaizki samar  
hasi nuen karrera, ez bainintzen eroso sentitu  
Kalbarioko lehen bi igoeretan. Askotan gertatzen  
den kontua da hori txirrindularitzan, batek zer-

gatik den jakin gabe erosotasunik ezin aurkitzea inola ere bizikleta gainean, behar lukeena baino ahulago sentitzea eta nekatu behar ez lukeenean nekatzea. Gehiegizko arnasestu larrietan ibili nintzen karreraren aurrealdetik aparte ez geratzeko eginahalean. Baina hala ere gero eta hobeto sentitzen hasi nintzen azkenaldera, aldameneko neskak, aitzitik, gero eta nekatuago ikusten nituen bitartean. Azkenean, Kalbarioko hirugarren eta azken igoeran, behe-behetik hasita egin nuen eraso, lehor, gogor, bizi, indarrez. Erritmo suizida ezarri nuen metro gutxi batzuetako aldea lortu ondoren, gogor eutsi nion esku-lekuari, tinko ezarri begirada aurreko asfaltoari eta gupidagabe agindu nion neure buruari ez barkatzeko, eusteko erritmo hari goraino, atzera begiratu gabe. Joan egin nintzen, tarte zabaldu egin zen nire atzean. Motorretakoek gero eta erreferentzia hobeak apuntatzen zizkidaten burua mugitu gabe begiratzen nituen arbeltxoetan: hogeitasegundu, hogeitahamahiru, berrogeitasei, berrogeitahamazortzi..., minutu bat eta bisegundu Kalbario gainetik gertu. Onena izan nintzen, inork ezin zidan erantzun, karrera neurea

zen, azken zortzi kilometroetan ezin nuen minutu erdirik ere galdu, inola ere ez...

Kalbario gainetik Mutriku aldera jaisten hasi eta pixka bat geroxeago, kilometro batera edo, itsasoa ikusten zen, garbi-garbi, aratz, eder, Mutriku herriaren atzean. Gogoan dut, ez dut inoiz ahaztuko, une hartan burura etorri zitzaidana: «Itsasoa ikusten lehenengoa izan naun», pentsatu nuen neure artean, «irabazi dinat karrera, hemendik helmugarako tartea itxura egiteko besterik ez dun, nik irabazi dinat lehena izan bainaiz itsasoa ikusten.» Bizikleta ganean maiz askotan pentsatzen dira horrelako txotxolokeria zentzugabeak, beti horrelakoak pentsatzen ibiltzen nintzen ni bizikleta ganean, areago gainera hura bezalako une larrietan. Baina, tira, bestela ere bai, etengabe ari naiz beti horrelako txotxolokeriak pentsatzen, eta ez dut uste neu bakarria naizenik horretan. Itsasoa ikusten lehenengoa izan arren, ez nuen ordea nik irabazi karrera hura, itsasoari begiratu beharrez burua atzera jiratu, bizkarra gehiegi behartu eta, ohartu nintzenerako, oreka galdu eta hantxe bertan herresta larrian erori bainintzen, oso modu txarrean. Bizkar



hezurra okertu, bi hankak zeharo birrindu eta asfalto ganean utzi nuen hanketako odolaren erdia. Hantxe geratu nintzen errepide erdian etzanda, oinaze bizian, atzean utzirik nituen lehiakideak Mutriku aldera ziztu bizian nola jaisuten ziren begiratzeko ere kemenik gabe. Nire lehen garaipenetik sei edo zazpi kilometrotara, hantxe geratu nintzen intzirika, oinaze lazgarrien artean, amorrutu eta gaizto baten mendean. Ezin izan zen poetikoagoa, ezin izan zuen iradokizun ankerragorik nire derrotak, nire hondoratzeak, nire bizitzaren deuseztatzeak.

Harrezkero aulki gurgildunari lotuta bizi naiz eta telebistan txirrindulari karrerak ikusten ditudanean oso ausartak iruditzen zaizkit txirrindulariak, hurrengo bihurgunean hankaz gora erori eta bertan hilda geratu behar dutela imajinatzen baitut beti ezinbestean. Hala ere telebistako emanaldi guztiak ikusten ditut, bat bera ere galdu gabe, oraindik ez baitut nire betiko zaletasuna galdu, ezta hurrik eman ere. Areago, berriz ere aurrerantzean txirrindularitzari estu lotuta biziko naizela erabaki dut, eta garai batean aldapei behetik hasita goraino ekiten nien adinako

kemenez eta irmotasunez lotu natzaio dagoeneko erabaki tinko horri.

Orain dela bost bat hilabete aitari zoritxarreko istripuaren parajeraino eramateko eskatunon, Kalbario gainetik Mutrikurako jaitsiera anker hartara. Bat-bateko ideia izan zen, ezustekoa neuretzat ere. Itsumustuan istripua izan nuen bihurgunera joan eta handixe itsasoari begira geratu behar nuela otu zitzaidan. Indar berriak bil nitzakeela pentsatu nuen, etorkizunari aurre egiteko, nire hil arteko urte grisak ezereza-ren asperdura hutsaletik libratzeko. Aitak ez zuen horrelakorik ulertu. Ez ninduen eraman nahi, hobe nuela hara ez itzultzea esan zidan, baina, azkenean, ideia hura nire burutik kentzea ezinezkoa zela etsita, amore eman zuen.

Halaxe joan ginen aita eta biok istripuaren toki hartaraino, itsasoaren behatoki aparta den bihurgune traidore hartaraino. Bakarrik uzteko eskatu nion aitari baina ez zitzaidan erraza izan hori lortzea ere. Aulki gorpildunari lotuta bizitzeak bakardade latza sufritzera behartzen du, dudarik gabe, lagun eta adiskideen berotasunik gehiena erabat epeldua geratzen baita azkene-

rako ezinbestean, benetako adiskidetasuna eta maitasuna gainditu ezinezko oztopoz trabatzen duelako etengabe; hori horrela da eta ez dago ukatzerik, baina era berean benetan bakarrik egon nahi denean bakarrik egotea ere galarazten du aulki gurpildunarekiko lotura derrigorrezkoak, bakardadearen jabe izan eta bakardadea norberaren aberasgarri gisa baliatzea, beti norbait behar baitugu ondoan, askatasun fisikorik batere ez dugulako. Kostata lortu nuen ordu laurden eskaseko bakardadea paraje traidore, anker, odoltzale baina eder hartan. Itsasoari begira geratu nintzen orduan, itsaso mugagabe eta amaigabeari begira. Hura bezalakoa izan behar nuen neuk ere, infinitua oso-osorik, hutsik gabe, bere baitan bildu eta jasotzeko gauza. Bizikletan aldapan gora hasten nintzenean bezala jokatu behar nuen, behetik hasita goraino erritmo berrari eutsi tinko, hutsik egin gabe, etengabe, mugagabe, amaigabe, infinitu... Horixe zen guztia. Ideia sinple eta erraza, etorkizun oso bat betetzeko lain hala ere ordea, itsaso sinple eta errazak lurbira osoaren hiru laurdenak betetzen dituen moduan.

Hurrengo egunetan Jon Aldazabal izan nuen bisitari, aitaren lagun mina eta literatur kritikari ezaguna. Literaturaren bideen artean neuretzat komenigarrienak zein ote litezkeen asmatzen lagundu zidan hasieratik, eta oraindik horretan dihardugu tarteka-marteka egiten dizkidan bisitaldietan. Ideia sinple eta errazari lotu bainintzaion istripu tamalgarri hura izan nuen tokia bisitatzen izan nintzenetik: idazle izan behar dut, txirrindularitzaren inguruko istorioak asmatu behar ditut, luzeak eta laburrak, gozoak eta saminak, era guztietakoak, baina etengabe ekinez lanari, erritmoa inoiz ere galdu gabe, txirrindulariak behetik gorako aldapetan egin behar duen bezala. Ez dut ezinduentzako lanpostu berezi horietakorik nahi, behetik gorako aldapa luze bati ekin nahi diot, erritmo gogor bati eutsiz goraino, Kalbarioko igoera gogoangarri hartan egin nuen bezala.

Arestian esan legez, txirrindularitzaren inguruko istorioak idatziko ditut eta giro horretan kokatuko dira nire idazki guztiak. Nire ustez nahiko arlo zabala da txirrindularitzarena bere esparrutik irten beharrik gabe nahi adina literatura egin

eta batek nahi dituen kontu guztiak nahi duen erara adierazi ahal izateko. Jon Aldazabalek ere hala uste du eta hala uste izan ez balu ere axola handirik ez, niri ezin baitzait txirrindularitzaren ideia burutik kendu. Txirrindularitza bizitzaren erakusgarri, isla eta metafora baita, edo behintzat gu bizi garen eta txirrindularitza sortu duen gizarte kapitalista honetako bizimoduaren erakusgarri, isla eta metafora: garaile izateko irrika, horretarako etengabeko ahalegin eta borroka neketsu eta are, inoiz, arriskutsua ere, elkarren arteko lehia etengabea, lehiakidearekiko adiskidetasuna hala ere -itxuraz behintzat- karreratik kanpo, garaipenaren behin behineko poza eta ondorengo hutsunea, propagandaren eta diruaren agintea ororen gaintetik, emakumeen indarren gutxiespena gizonezkoen aldetik... Gure gizarteko edozein arazori, edozein gairi ezar lekiok berari dagokion metafora ziklista pixka bat pentsatuz gero. Ez zait batere zaila iruditzen.

Erabakia dut, beraz, zer egin aurrerantzean, zertan erabili neure indarrak. Beharbada, oraindik behintzat, oso idazle ona ere ez naiz, hasieran oso txirrindulari ona ere ez nintzen bezala,

baina gerorako itxaropena badut, eta itxaropen horri azkenera arte argi egiteko asmo tinkoa. Bidea luzea eta aldapatsua da. Erritmoa markatua dago. Gogor eutsi diot eskulekuari, tinko ezarri begirada aurreko asfaltoari eta gupidagabe agindu neure buruari ez barkatzeko, eusteko erritmo horri goraino, atzera begiratu gabe.

# Gabongaua

Pentsatzen hasiz gero, gure bizimodu hau xelebre samarra ere bada horratik! Eskerrak, bai, gutxitan hasten garela pentsatzeko lan horretan, horretarako astirik edo gogorik gabe bizi garelako. Nik gaur eragin dizkiot hainbat jira-bira aspaldian geldi antzean nuen buruari, eta ez dit onik egin, ez horixe! Bakardadeak izango du errua, noski, bakardadeak eta zahardadeak, gero eta zaharrago izan behar petral honek. Ezinegona sortu dit gogo jardunak, eta ezinegon horrek bultzatu nau idazten hastera, ez dakit zer idazteko baina, hori orain ikusi beharko dugu, aurrera egin ahala.

Gabon gaua da gaur, mundu guztiko haur txiki asko eta askoren pozgarri, guztiena ez bada ere, gaurko mundu honetan ezinezkoak baitira guztientzako pozgarriak. Bakar-bakarrik afaldu dut nik, aparteko jakirik gabe, turroirik gabe, txanpainik gabe, Euskal Herritik kanpo, bideertzeko ostatu batean, eta oroitzapen urrun tristea ekarri dit gogora gaurko egunak, bere triste ho-

rretan gustukoa ere badudana bestalde, egia esan, bihotza samurtuz eta malkoak begiei kili- ma egitera deituz, hauek masailean behera amiltzera ausartu ez badira ere. Esan dudana, bakar- dadearen eta zahardadearen ajeak.

Urte asko dira, ez du axola handirik zenbat zehazten hasteak; hamahiru urte nituen orduan, gabon gau ilun urrun hartan. Bost hilabete ziren istripu ergel batek umezurtz utzi ninduenetik, aita-amarik gabe eta arrebarik gabe, goian zerua, behean lurra eta neu bakar-bakarrik munduan.

Osaba Paskual zenarenera joan nintzen orduan bizitzera. Tira, osabaren etxera eta osaba- ren kamioira esan beharko nuke berez, zehatza izatez gerotan. Osaba Paskual kamioilari mutil- zahar egoskorra zen, huraxe ba egoskorra inon egoskorrik izatekotan, alajaina! Eta laster asko- rik pentsatu zuen hark nirekin zer egin: eskola utzi beharko nuen eta berarekin eramango nin- duen lanera, egunak eta aste osoak ere eginez etxetik kanpo. Bidaia luzeak egiten genituen biok, Ermutik urrutira iritsiz, Madrilera, Bartzelo- nara, Valentziara, Sevillara... Osaba Paskualen



kamioia oso handia zen, eta dotorea, atoiduna, zilegitzat ameti daitekeen neurririk luzeenari doi-doi egokitzen zitzaion atoi luze, handi eta egokia zuen edozer gauza garraiatzeko. Aurreko traktorea ere handia zuen, atzealdean bi lagunek lasai lo egiteko lain leku zeukan kabina eta guzti. Traktore haren goieratik, haizetakotik zehar behera begira, ederki ikusten nuen nik nola jaten zituen kilometro luze etengabeak gure kamioi ezin dotoreagoak.

Baina orain hain era nostalgikoan deskribatzen dudan kamioi handi hura ez zitzaidan gustatzen orduan. Aitzitik, herra nion. Ez nuen orduan gaur azken erraietaraino sartua dudan errepidearekiko lilurarik sentitzen. Ume koxkor etxezulo negarti samarra nintzen ni orduan, osaba Paskualen menpean pozik eta eroso inola ere ezin sentitu zena. Hark bere adiskide egin nahi ninduen, bere mundua erakutsi eta eskaini nahi zidan, bere mundu zakar eta gordina, baina nigan ezin izan zuen berak nahi izandako ikasle trebea aurkitu. Animatu barik uzkurtuarazi egiten ninduten haren oihu bortitzek, barregura baino areago izua sentiarazten zidaten haren

txiste zakar eta zantar iraingarriek. Gogortu eta gizondu barik beldurtu eta umetu egiten ninduten hark bizimoduaren inguruan emandako iritzi eta aholkuek. Eta hark igertzen zion, jakina, antzematen zuen nigan ikasle kaskarra zuela. Errieta egiten zidan batzuetan, niri errieta egitea alferrik zela esan arren behin eta berriz, eta nazkatuta nuela esaten zidan, umezurztegira bidaliko ninduela behingoz ernatu eta bizitza zer zen ikasten ez banuen. Nik orduan beldur ikaragarria hartzen nion bizitza zer zen ikasteari.

Bidaia luzeetan lagun egiteaz gain, kontuak eta paperak zuzentzen laguntzen nion, edo kamioia kargatzen eta deskargatzen, eta tarteka bestelako mandatuak ere egiten nizkion, baina urduritu egiten nintzen beti lanean, larritu, osaba begira nuela pentsatuta, eta azkenean beti egiten nuen nahigabeko okerren bat. Errietan hasten zitzaidan orduan, ezertarako ez nuela balio esanez, ez nuela sekula ikasiko, ume muki-zu eta negartia izango nintzela beti-beti. Are urduriago eta larriago sentiarazten ninduen bere errietarekin.

Gero adiskidetu egiten zitzaidan, ezer esan gabe, barkamenik inoiz ere eskatu gabe, berriro bere txiste gordinak kontatzeko, ordu luzetako bidean niri beldurgarriak iruditzen zitzaizkidan sermoi etengabetan aritzeko, agintarien aurka, apezan aurka, familiaren aurka, emakumeen aurka ere bai, hitz gogorak eta birao zakarrak hitzetik hortzera. «Putaseme ugari bazterretan» gustatzen zitzaion esatea irribarre lodia eginez, ondoren «eta neu handiena, alajaina!» erantsi eta barre algara zoroak egiten hasteko. Osaba Paskual lege oneko tipo jatorra baitzen; txepelegia izan ni, ordea, orduan horretaz jabetzeko.

Bideetako putetxe guztiak ezagutzen zituen, eta ez zuen astebete osorik egingo haietako batean gelditu gabe. Lehenengo egunean berarekin eraman ninduen barra amerikar batera, tragu bat hartzera. Bi neska gazte inguratu zitzaizkigun, izterrak agerian zituztela, titiak estu estu soinekotik kanpora irten beharrean, eta galderak egiten hasi ahots samurrez, ea nondik nora gindoazen eta horrelakoak. Nik ospa egin nuen azkar askorik kamioiaren kabinara. Osaba pare bat orduren buruan etorri zen, mozkortuta.

Niri errieta pixka bat egin ondoren, berehalaxe loak hartu eta zurrungaka hasi zen. Harrezkero, ondoren, beti kabinan geratzen nintzen ni putetxe batera inguratzen ginenean, nahiz eta osabak beti esan barrura sartu, pixka bat edan eta tigreme haietako batekin larrua jotzen ikasteko, banuela horretarako garaia ere eta. Azkenean, etsita, seguru asko marikoi mengel nazkagarria besterik ez nintzela izango esaten zidan zakarki eta putetxe barrura joaten zen bera bakarrik.

Bost hilabete egin nituen horrela osabaren menpean, neure burua zomorrerik eskasaren pareraino jaitzita sentituz, bizitzarako gauza ez ote nintzeneko zalantza itogarriaren pean, burua ezertarako ere ezin altxatuta.

Abenduaren 23an oso berandura arte egin zuen txofer osaba Paskuarek. Sevillarako bidean, Córdoba-raino iritsi ginen gaueko ordu biak inguruan edo, eta artean ere aurrera jarraitu zuen osabak, ordu laurden inguruko bidean aurrera herri koxkor bateko putetxera heldu nahian. Hara iritsi ginenean sekulako errieta egin zidan putetxe barrura lagundu nahi ez niolako. Besotik tiraka hasi zitzaidan baina nik, izuak jota, gogor

eutsi nion. Negarrez hasi nintzen, oihuka, ez nuela joan nahi eta ez nuela joan nahi, eta osabak bi zaplada jo eta hantxe utzi ninduen mari-koi nazkagarri zikina nintzela esanda. Negarrez segitu nuen, putetxeko atarira begira. Han ere eguberriak ziren. Izei handi bat zegoen koloretako zinta eta bolatxo elektrikoekin apainduta, goitik beheraino, batzuk itzalitakoan besteak piztu egiten zirela. Izeiaren goiko puntan izar distiratsua argi ororen gaintetik. Pentsatzen hasiz gero gure mundu hau xelege askoa dela esan bide nuen neure artean orduan ere, hamaika ikusteko jaiok garela, hamaika ikusteko jaiok garenez, bai horixe!

Jakina, aurreko urteko eguberriak etorri zitzazkidan gogora, gurasoekin eta arrebarekin bizi izandako etxe giro epel hura, goxotasun lasaigarri ezti hura, betirako galdua zirudiena... Ordu erdi bateko negar saioa egiteko ez nengola aitzakia faltan, alegia.

Ordu erdi inguruko negar mikatzaren ondoren, ordea, ideia bat etorri zitzaidan burura, neurekin gogor eutsi eta azkenera arte neurekin gordez gero irribarrea itzuli beharko zidan ideia:

ihes egitearena; ihes egin osabari, iritsi nola edo hala tren geltokirik hurbileneraino eta Ermura heldu gabon gaueko bederatziak baino lehen; han Anttonenera joan nintekeen, neure adiskide-rik minenaren etxera, dena azaldu eta bere fami-liaren goxotasunean afaldu, leku bat egingo zi-datelako itxaropena banuen eta. Neure esku ze-goen aukera. Ausardia pittin bat behar nuen eta beti aurrera egiteko kemena. Hemezortzi ordu-ren buruan Anttonen etxeko goxotasuna sentitu, dastatu eta bizi ahal izango nuen, hemezortzi or-dutan erne eta arin ibiltzea zen guztia, ahalegin guztiak egitea inoiz ere etsi gabe, ez nuen bes-terik ezer ere behar.

Osabak dirua gordetzeko zuen kutxa txikitik diru pixka bat hartu, ez asko, neure arropak eta trasteak boltsan bildu, kamioiko kabinatik jaitsi eta, osabari ohar txiki bat ere utzi gabe, Córdo-ba aldera auto-stop egiten hasi nintzen. Ez zebi-len kotxe asko errepidean gaueko ordu haietan baina hogeit bat minuturen buruan kotxe handi eta dotore baten barruan nindoan Córdobarantz, kotxeko berogailuak berotuta eta kotxe barrua girotzen zuten gabonetako apaingarriei begira:

zintak, bolatxo distiratsuak, izartxoak, «Felicidades» zioen karteltxo apaina... Etxekoandre zintzo eta jatorra zen Córdobara eramán ninduená; gaueko hotzetan auto-stop egiten ari zen mutil koxkorraz errukitzeko adina bihotz izan zuen behintzat hark. Hamahiru urteko mutil koxkorra ordu txiki haietan auto-stop egiten ikustea harritzeko kontua zenez, neure burua zuritzeko gezurra asmatu beharrean izan nintzen: Córdobakoa nintzela eta etxetik ihes egin ondoren, damutu-ta, etxeratu egin nahi nuela esan nion emakumeari. Ondo zegoela esan zidan hark orduan, ondo egiten nuela etxera itzultzea, gurasoek poz handia hartuko zutela eta. Ondo pentsatuta, ez dut uste ezer sinetsiko zidanik, gaztelaniaz hitz egiteko erak nire jatorria salatuko baitzion, baina ez zidan behintzat kontra egin. Zirrara gozo eta epel baten oroitzapena gordetzen dut une hartatik, zirrara gozo eta epela, bai, kotxe hura etxea eta emakume hura ama ez izan arren ere gabon giro goxoan sentitu bainintzen ordu erdi inguruko bidaia labur hartan.

Córdobako geltokian trenen ordutegiei begira hasi nintzen. Bazen goizean handik irten eta

iluntze alderako Bilboraino iristen zen tren bat. Huraxe hartu behar nuen lehendabizi; gero, Bilbotik Ermura, izango zen tren edo autobusen bat niretzat, gaueko bederatzietarako Anttonen etxean izaten lagunduko zidana. Ez zegoen gaizki baina artean ere lau bat ordu falta ziren trena irteteko eta benetan hotz zegoen Córdoba ezezagun hartako geltokian. Andaluzia beti beroarekin lotzen da baina han ere badakite zer den hotza. Goardia zibilak zebiltzan inguruetan eta ez nintzen lo-zakua atera eta haren barruan sartzen ausartu. Córdoba kaleetatik paseo bat egitera abiatu eta ia lau ordu egin nituen batera eta bestera, noraezean, hotzez eta loguraz, guttiz jota. Zutik iraun behar nuen, ordea, iritsi egin behar nuen Anttonen etxera, gabon gaua bere etxeko giro goxoan ospatzeko, epel-epel adiskide baten ondoan, familia abegikor baten altzoran. Zein inozoak izaten garen hamahiru urte baino ez ditugunean...! Tira, neu bai behintzat, inozo galanta izan nintzen, alajaina! Ez zuen erabateko arrazoi faltarik osaba Paskualek.

Córdoba gauean ere prostitutak ikusi nituen kale ertzetan zutik, osaba Paskual bezalako



bezeroen zain, hotzari ahal bezala aurre egin eta hala ere haragi puskaren bat ageri samarrean utzita. Ikusi nindutenean deika hasi zitzaizkidan, giro epelera eramango nindutela, ez zidatela minik egingo. Ihes egin nuen handik, baina bihotza taupada larrietan nuela, osabarekin putexean izandakoan ez bezala emakume haiekin geratzeko gogo bortitz batek heldu baitzidan ezustean, neure pauso urduriak geldiarazi nahian. Aurrera jarraitu nuen, ordea, harik eta kale bakarti batean horma baten kontra inguratu eta burua hormaren eta bi eskuen artean ezkutaturik negarrez hasi nintzen arte. Laster lasaitu nintzen hala ere. Lasaitu egin behar nuen, bai, erne egon beharra nuen, indarrik eta kemenik galdu gabe, gabon gaua behar bezala ospatzeko helburua iritsiko banuen. Ezin nuen etsi. Geltokira heldu eta trenaren zain geratu nintzen, urduri artean ere, prostituten dei gozoak burutik ezin kenduta.

Ez dakit nola, ez dakit zergatik, baina kontua da okerreko trenean sartu nintzela oharkabean. Beharbada lehen trenbideko bigarren nasan hartu beharrean bigarren trenbideko lehenengo

nasan hartu nuen trena edo horrelakoren bat. Izan ere, galduta nenbilen, toki erabat ezezaguan, hotzak amorratzen, logurak jota, urduri geltoki arrotz hartako mugimendu etengabearen erdian. Beraz, Linares-Baeza, Murtzia, Alacant eta Valentziatik zehar Bartzelonara zihoan trena sartu nintzen Bilborakoa zelakoan, eta ziur sartu bide nintzen neure ustetan, ez bainion inori ea tren hura Bilbo aldera ote zihoan galdetu ere egin. Artean arrotzak zitzaizkidan paraje urrun haietan ez nuen susmo txarrik izan trena martxan jarri eta gero ere. Jota nengoenez, loak hartu ninduen berehala, harik eta goizeko hamar t'erdia inguruan treneko begiraleak esnarazi ninduen arte. Txartela erakutsi nionean larritu egin zen, haserretzen hasi ere bai, baina laster baretu zen, nire egoera tristeaz urrikaldurik. Gabonak baitziren, izan ere, gizaixoez urrikaltzeko garaia. Murtziara arte ez zen ordea gelditzen tren hura; Murtziara arte, beraz, ez genuen ezer egiterik oker hura zuzentzeko. Begiraleak tren ordutegiak begiratu zituen, Bilbora edo Donostiara lehenbailehen iritsi ahal izateko hartu beharko nituen trenak zein ote ziren jakiteko. Tris-

taturik esan zidan gizonak ezin izango nuela gaueko ordu biak ingurura arte iritsi Donostiara, ezin izango nuela gabon gaua etxe giroan ospatu, alegia.

Tristura handi baten zama astuna erori zitzaidan gainera. Betirako bakardade erabatekoan bizitzera kondenaturik sentitu nintzen. Galduta nengoen munduan, ez neukan ezer, ez neukan inor, ez nintzen ezer egiteko gauza, hutsik hutse-na nintzen. Neurea zen gainera errua, neurea ez besterena, eta ez nintzen inoiz ezer egitera, ezer izatera iritsiko, hala sentitzen nuen neuk orduan behintzat. Hala ere uste dut ez nuela negarrik egin, ez nuke ziur-ziur esango baina.

Negar eginik edo negarrik egin gabe, etsipenaren amildegiko ertzari gogor eutsita, ezereza-ren ezerezean kontsolamendurik hutsenari lotuta, ezertan pentsatu gabe, neuregandik ere ir-tenda jaitsi nintzen trenetik Murtziako geltokian, lehenxeago lotan pasatu berri nintzeneko Lina-res-Baezako geltokiraino itzuliko ninduen lehen trenaren zain geratzeko, Linares-Baezan hartu behar bainuen gero Donostiaraino eramango

ninduen trena. Murtziako geltokiko tabernan kafesnea hartu nuen, bi opilekin.

Lorik ez egiten saiatu arren, tartekako kuluskak eginez eman nuen Murtziatik Linares-Baezarako tartea, lokamuts labur eta zakarretan. Hala ere trena Linares-Baezara iritsi zenean esnai nintzen behintzat eta gaitzerdi.

Jateko gogo handirik ez izan arren, Linares-Baezako geltokiko tabernan otamen bat jan nuen, neure urdail errukarriarentzat beharrezkoa izango zela eta. Han zegoen jendeari bekaitzez erreparatzen nion otamena ahoratu bitartean. Jende hark guztiak nork bere etxean afalduko zuen goxo-goxo aparteko gau paregabe hartan, neuk gaua trenean pasatzen nuen bitartean, etxerik gabe, ilusiorik gabe, itxaropenik gabe eta bakar-bakarrik. Bere lanak zituen negarrari eusten jarraitzeak.

Azkenik, Donostiarako trenean sartu nintzen, arratsaldean, tren hura Donostia aldera zihoala ongi ziurtatu ondoren. Trena martxan jarri zenean aulkian eseri eta begiak itxi nituen. Hamar ordu inguru tren hartan, hantxe egotea beste lanik gabe, eta Donostian izango nintzen. Handik

Ermurainoko bidea egin beharko nuen ondoren, eguberri egunaren goizaldean Anttonen etxean izateko; lur jota, lotsagarri, ezdeus agertuko nintzen baina han adiskide bat nuen sikiera. Ez zitzaidan erraza egin erabateko etsipenari aurre egitea. Horretarako, egun hartan bizitzen ari nintzena neure buruari abentura baten moduan aurkezten saiatu nintzen, nire ausardiari esker bizitzen ari nintzen abentura handia. Ezin sinestarazi nion, ordea, neure buruari, abentura horren amaierako unea garaipenezkoa izango zenik, berandu iritsi behar bainuen nahitaez, alferrik baitziren ahaleginak oro, gabon gaua etxe giro epelean igarotzea ezinezkoa zitzaidanez jada.

Horrelakoetan pentsatzen, behin Madril pasatuz gero loak hartu ninduen berriz ere arratsaldeko zortziak ingurura arte. Esnatu nintzenean bagoia betetzen zuen jendeari erreparatzen hasi nintzen. Jende askotxo zegoen eta gabon jaiei buruz mintzo ziren gehienak, oporrei buruz, telebistako saio bereziei buruz eta baita gabon gaueko afariari buruz ere. Zenbaitek opari pakeak edo kaxak zeramatzaten, eta botilak zirela

antzematen zitzaien horietako askori. Geltoki guztietan gauza bera, batzuk jaitsi eta besteak igo. Neu, berriz, trenean segitzera kondenaturik, gabon gauaren goxotasunaren aztarnarik gabe, tristura erraldoi baten menpe. Koitadua!

Gaueko bederatziak edo bederatzi t'erdia aldean, bagoia ia hutsik geratu zen bat-batean. Bost lagun geratu ginen bakarrik, lau lagun bakarrik, beraz, neurekin batera: nire aurreko aulkian eserita arropa zarpail samarrez jantzitako gizona, aldameneko leihatilatik zehar kanpora begira; ile grisdu atso zaharra, bestaldeko leihatilaren ondoan; atzeko aulkietan bi gizon gazte beltz lotan.

Aurreko aulkiko gizonak ea ez al nuen jaitsi behar galdetu zidan, ez al nuen nik etxerik gabongaueko afaria epel eta goxo egiteko. Ezetz esan nion, okerreko trena hartu eta berandutu egin zitzaidala. Elkarrekin hizketan hasi eta, pausoz pauso, neure egoera azaldu nion, gezurrik asmatu gabe. Errukitu egin zitzaidan hasieran, baina ez kezkatzeko esan zidan gero, begiratze-ko lasai eta tristurarik gabe trenbide ondoko etxe guztien leihoetako argiei eta pentsatzeko

trenean gindoazenon ikuspegia ederra zela, paregabea benetan. Bestaldeko atsoa leiho gaineko apaletik boltsa bat jaitsi, boltsatik ahoko soinua atera eta doinu triste bat jotzen hasi zen. «Nik ez nitek bagoi hau aldatuko etxe horietako gozotasunaren truke», esan zidan gizonak orduan. «Ezta pentsatu ere. Etxean goxo-goxo afaltzen ari direnek ez zekitek gabon gaua zer den, ezta hurrik eman ere! Gabon gaua zer den hemen ikasten duk, txikito, etxetik kanpo, eta hementxe duk beste inon baino liluragarriagoa.»

Aldameneko atsoari begiratzeko adierazi zidan keinu batez, irribarre egiten zuen bitartean. Atsoak gozotasunez begiratu zigun, ahoko soinua jotzeari utzi gabe, doinu triste hari lotuta. Doinua amaitu zuenean txaloak jo zizkion gizonak eta atsoak esker oneko irribarre apala egin zuen.

Orduan gizonak goiko apaletik boltsa bat jaitsi eta bertatik gazta bat, ogi puska handia, ardo botila, labana eta edalontzia atera zituen. Atsoa guregana hurbildu eta gazta jan eta ardoa edatera gonbidatu zuen. Atsoak ezetz adierazi zion eskuekin, aulkitik mugitugabe eta hitzik esan

gabe horretarako ere; ez dut uste hitz bat bera ere aditu nionik atsoari bidaia osoan. Ondoren niri egin zidan gizonak gonbitea eta nik ez nion ezetzik esan, gosez amorratzen bainengoen, jakina. Bion artean jan genuen gazta puska hura eta bion artean hustu ardo botila, neuk laurdena baino edan ez banuen ere.

Hizketan jarraitu zuen gizonak jaten genuen bitartean, eta hizketan jarraitu zuen gizonak gero ere, batetik besterako bizitza bakartiaren goraiamenak eginez, tristuraren gorazarreak, derrotaren laudorioak; tarteka isildu egiten zen atso zaharrak ahoko soinuarekin doinu triste berri bati ekiten zionean, ekitaldi hark hitzaldia-  
ren mezua berretsi eta indartuko bailuen. Gizartea gaiztoa dela esaten zidan gizonak, familia itxuraz eroso eta gozoa dirudien gartzela anker-  
ra dela, askatasunak bakardadea derrigorrez-  
koa duela, bakardade askean senti daitekeela bakarrik norberaren izaera munduaren aurkako kolpean eta sentimendu hori dela bizitzea, ez besterik ezer ere; munduaren aurrean bakarrik dagoela gizakia, mugarik gabe, eta mugarik gabe bizi behar duela bizitze hori bizi-bizian sen-



tituko badu; gabon gauean etxe giro gozoan afaltzen duenak ez dakiela bizitza zer den, ez diola bizitzari antzik txikiena ere ematen. Horrelako kontuak esaten zizkidan gizonak, horrela laburbilduko nuke haren mezua. Baliteke, haatik, gizonak orduan esandakoa neure erara gogortzea neuk orain dagoeneko, haren hitzaldiaren haria ahazturik neuk ezarri izatea, alegia, neurea hitzaldiaren oroitzapenari.

Tren begiraleak gure bagoiko korridorea zeharkatu zuen gizona bere azalpenak ematen ari zitzaidan bitartean. Hitz egiteari utzi gabe, aldameneko atsoari begiratzeko adierazi zidan gizonak keinu batez. Harriturik, atso zaharrak begiralearen poltsikotik kartera nola lapurtzen zuen ikusi nuen, begiralea ezertaz ere ohartu gabe, leun-leun, garbi-garbi, ziurtasun osoz, ia-ia gozotasun eta maitasunez esango nuke. Ez zait egundo ahaztuko berari begira ikusi ninduenean atsoak egin zidan irribarre eztiaren samurtasuna.

Bizitzen ari nintzena benetan ezin sinetsita sentitu nintzen, lilura batean. Horregatik bide dut oraindik gogoan hain tinko iltzatua ordu haietako oroitzapena, hainbeste urte pasatu eta

gero ere; oso oroitzapen bitxia da, irrealak, amets girokoa, baina, era berean, bizi-bizi eta indartsua. Eta amets bitxi batetik esnatzearen parekoa izan zen, hain zuzen ere, Donostiako geltokian jaisteko unea, gaueko laurak jota zirela jada. Gizonak, atsoak eta bi beltz lotiek aurrera jarraitu zuten beren bidaia. Trenetik inoiz ere jaitsi gabe jarraitu behar zutelako irudipenak hotzikarak eragin zizkidan.

Ordu batzuk pasatu behar izan nituen gero Donostian, eguberri eguneko goizaldean Ermuraino eramango ninduen trenaren zain. Nahastuta sentitzen nintzen. Gabon gaua ez zen nik nahi eta behar nuen bezalakoa izan, baina horrek baino pena sakonagoa sentiarazten zidan trenean ezagututako lagun berezi haiek betiko galdu izanak.

Urteetan aurrera egin ahala gaztetxo inozo eta beldurti hark bizitzarekin egin zuen topo aurrez aurre, eta bizitzak osaba Paskualen antzeko bihurtu zuen. Bide ertzeko putetxe mordoa ezagutzen duen kamioilari bakarti eta baldarra naiz ni gaur egun, osaba bera baino putazale amorratuagoa. Xelebrea da, bai, gure bizimodu hau,

pentsatzen hasiz gero. Hainbeste emakume biluztu, besarkatu, ukitu, ferekatu, gozatu, neureganatu, eta dena alferrik izan dela pentsatzen hasi naiz, alfer-alferrik ibili naizela hara eta hona, urteetan eta urteetan, ahoko soinua jotzen zuen atso zahar haren irribarrearen bila beti, lapur gozo xarmangarri haren samurtasun mugagabearekin noiz berriro topo egingo. Pentsa al daiteke txorakeria handiagorik? Zahartzen hasia ote nago? Zergatik gelditu naiz afalostean kamioiaren kabinan, lerro nahasi eta oker hauek idazten, aldamenean bertan dudan putetxera joan eta, gizalegeari jarraituz, parranda ederra bota beharrean? Tira, bakardadearen eta zahardadearen ajeak izango dira. Ez da ezer. Pasatuko zait.

# Ene lagun zaharrari azken gutuna

Zaila zait oraingo gutun hau hastea, eta nola-bait ere zein naizen adieraziz, neure burua aurkeztuz hasi beharko nukeela uste dut, baina ziur nago honezkero jakina duzula ni nor naizen. Bai, 1955 eta 1956. urteetan zehar zazpi gutun oso «berezi» igorri zizkizun berbera; berbera baina hogeita hamabi urtez zaharxeagoa... Ia-ia ezer ere ez beraz.

Bizirik izango zarela koan nago behinik behin, baina akaso ez da hain gauza ziurra lehengo tokian bizi zarenik. Dena den, uste osoa dut postalgoan eta esango nuke moldatuko direla zuri gutun hau eskuratzeko. Eta azken finean, ez bazaizu iristen ere, munduak jira-biraka segituko du, eta nire urdailak -eta zureak ere espero dudanez- lixiriketa berdin-berdin egingo. Eta hori da garrantzitsuena, ezta?

Honezkero, neure xehetasun pertsonalak emango ote dizkizudan ala ez, hor ari zara jakin-

minez irakurtzen; edo, agian, ez diezu nire gutu-  
nei, ez duela hogeita hamabi urtekoei ez orain-  
goari, inolako garrantzirik ematen. Ba, jauna, ez  
dizut gutun honetan ere neure izenik emango,  
eta nitaz xehetasun gehiegirik ez duzu jaso ahal  
izango. Dena den, zure jakinmina apur bat ase  
dezaketen gauzak adieraziko dizkizut.

Eta hasteko, interes pixka bat, oso gutxi bada  
ere, baldin baduzu, igorri nizun lehenengo gutu-  
netik aurrera beti jakin nahi izan bide duzun zer-  
bait argituko dizut: zergatik igortzen nizkizun nik  
gutun haiek?; zergatik zuri?; zertarako? Behar-  
bada jira-bira asko egin ditu zure buruak galdera  
hauei erantzun logiko bat aurkitu nahirik, eta,  
agian, bakarrik eroren batek idatzi eta igor zitza-  
keela halako gutunak atera izan duzu beti ere  
ondorio logiko posible bakartzat. Eta nola esan  
nezake nik orain ez nengoela eroturik?; are  
gehiago: ez nagoela, oraintxe bertan ere, erotu-  
rik? Ze, azken finean, neuk ere ez dut erotasun  
hori ukatuko eta, hala nahi baduzu, ero bat nin-  
tzela eta naizela aitortzen dut, hau aitortu egin  
behar den gauza baldin bada (askoz ere egokia-  
goa iruditzen zait «ero bat nintzela eta naizela

aldarrikatzen dut» edo antzeko zerbait esatea). Ez da bekatu erotasuna. Ala bai?

Gaur egun hainbat eta hainbat bider entzuten dugun topiko batera joko dut nire erotasun horren errua neure bizkarretatik astintzeko: «zein ez dago burutik eginda bizi garen mundu ero honetan?»; «gaurko munduan eroa ez dena piztia arrarotzat jo dezakegu»; eta abar, eta abar. Honelako topiko asko dugu ahotan gaur egungo gizakiok, erotasunaz gain beste mila gairi buruz ere, baina beti egia urrunak bezala erabiltzen ditugu: topiko horiek diotena egia da, baina ez errealitate. Nolabait esateko, eguzkiaren handitasuna bezalakoak dira: mundua baino ez dakit zenbat bider handiagoa omen eguzkia; hori egia da, eta egiaztat onartzen dugu, baina egia urruna, ez errealitate...

Tira, gaitik kanpoko hainbeste iruzkinez zure jakinmina berotu nahian nabilela pentsatzen hasia zara honezkero, irakurtzen ari bazara. Dena dela, benetako jakinminik baldin baduzu, pozgarria izango zaizu nire iritziak ezagutzea, nire usteak era koherente eta logiko batez adieraziak irakurtzea. Duela hogeita hamabi urteko

zazpi gutun osoak irakurririk ere, agian, nitaz deus ere ez zenekiela pentsatu zenuen. Orain, berriz, gutun honetan orain arte esan dizudana- rekin ni ezagutzen hasia zarela pentsa dezakezu bederen. Baina ez uste: zazpi gutun haiek ere nitaz asko irakatsi zizutelakoan nago ni, zalantza izpirik gabe; behintzat, besterik ez bada ere, halako erokeriarik egiteko ahalmenik -hots, erota- sunik- ez dutenen aldean desberdina nintzela ikus zenezakeen.

«Tira, baina zergatik?, zergatik?, zergatik?» ari zarela pentsa dezaket dagoeneko. Bai gutun zaharren eta bai oraingo honen zergatiak, ahal dudan neurrian behintzat, adierazteko asmoa dut gutun hau bukatu baino lehenago, eta lasai egon zaitezke jakinmin handirik baduzu ere.

Zuk ez nauzu ezagutzen. Ez naiz ni, beraz, zure adiskide edo laguna, ezta ezagun urruna ere, ezezagun soil baizik, zuretzat. Nik, berriz, zu behin ikusi zaitut soilik -nik dakidanez behintzat-: 1955eko egun batean Iverst-en izan zinenik ezin ukatuko didazu. Egund hartan ikusi zintudan, Thomass-en taberna aurreko kalea igarotzen.

Ni tabernako atarian nengoen eserita, bakar-bakarrik, garagardo bat dastatzen, lasai-lasai. Udako azkenetako egun bat edo udazkeneko lehenengoetakoa izango zen seguraski. Izugarri bero zegoen, sargori, eta igande arratsaldea zen. Ordu laurden bat neraman gutxi gorabehera hantxe eserita. (Datu hauek ez dira behar bada egiazkoak izango, baina neuk behintzat, maiz gogoratzen dudan une urrun hura berreraikitzen dudanean, halaxe izan zela dut beti buruan.)

Nolabaiteko malenkonia bat sentitzen nuen. Askotan gertatzen dena da (neuri behintzat hala gertatzen zait) bakarrik eta ezeren kezkarik gabe egotean malenkonia sentitzea. Ez dugu inor berari zerbait esateko, ez dugu kezkarik, ez dugu pentsakizunik ere, eta huts bat sentitzen dugu, ezagutzen dugun guztia baino handiagoa eta liluragarriagoa izan beharko lukeen zerbaitek bete dezan nahi dugun hutsa. Horrelakoetan, seguraski, kristauak beren Jaungoikoaz oroitzen dira, erregeak beren erresumez, poetak beren poesiaz, pintoreak beren koadroez, maitaleak beren kutunez, zientifikoak beren zientziaz...



Nik, ordea, neure burua zeharo hutsik nuen. Ez nuen orduan maitalerik, ezta arazo berezirik ere buruan. Nire bulego-lana (ari zara, beraz, nitaz zerbait jakiten, ezta?) nardagarriegia zitzaidan neure asti denbora lan aspergarri hari buruzko gogoetatan galtzeko. Ondo pentsatuta, ez nuen ezer munduan dastatzen ari nintzen garagardoa baino.

Orduantxe igaro zinen nire parean, Thomassen tabernaren aurreko kalean. Igande arratsalde haren erdian zure begiradaren gogortasunari eta seriotasunari erreparatu nion. Begirada ilun hark ezin asma nezakeen sekretu isil bat gordetzen zuela iruditu zitzaidan, ezagutzera emana eta hedatua izango balitz mundu guztia harritu lezakeen sekretu isil eta iluna (neure baitako hutsa betetzeko behar nuen ezagutzen dugun guztia baino handiagoa eta liluragarriagoa izan beharko lukeen zerbait hura, hain zuzen ere). Zure begirada misteriotsu eta ilunari laguntzen zion gogorik gabeko ibilera makal eta pausatua igaro zenuen Thomassen tabernaren aurreko karrika ni erreparatu gabe. Ez zintudan inoiz igande hura baino lehenago ikusi eta ez zaitut ha-

rrazkeren ere sekulara ikusi, nik dakidanez behinik behin.

Zeneraman jazkeraz ez naiz batere oroitzen eta, besterik gabe, arrunki jantzita bide zeundela esan nezake, bestela zerbait gogoratuko bainuke oraindik seguraski. Bidaiako mailetak zeneramatzen eta trenaren geltokitik zentozela pentsarazi zidan xehetasun horrek. Zu bidazti izateak ere bere eragina izango zuen ni baitan zutaz interesatzerakoan. Adinez ni baino apur bat zaharxeagoa izan zintezkeela iruditu zitzaidan baina, gutxi gorabehera esateko, adin bereberekoak garela uste dut. Jakin nahi baduzu, ni 1923an jaioa naizela esango dizut, eta oraintxe dela ia hilabete t'erdi erretiroa hartutakoa nire hirurogeita bost urteekin.

Esan berri dizudanaz gain ezer gutxi dakit nik zutaz: izen-deiturak, helbidea, eta igande hartako gaua Lerit ostatuan igaro zenuela. Jakinminak bultzaturik, eta gaua Iversten igarotzekotan Lerit-en lo egin beharko zenuela pentsatuta, hantxe izan nintzen eta zure izena eta helbidea jakin ahal izan nituen. Zure ezaugarriak adierazi nizkion giltzazainari eta berehala eman zizkidan

zure izen-deiturak eta helbidea. Baita hartu zenuen gelaren zenbakia ere, baina orain, jakina, ez dut gogoan zenbaki hura.

Beraz, ez zaitut ezagutzen. Oraintxe bertan zu kalean ikusiz gero, ez zintuzket ezagutuko. Ez dakit nire gutunek zugarri izan oteko beldurrik sortarazi ote zuten. Ez nuen halakorik nahi behintzat. Baina inoiz beldurrik izan baduzu, mesedez barkatzeko eskatu beharko nizuke. Orain behintzat lasaituko zinen alde horretatik. Nire gutunek ez zuten inongo zeharkako asmo ezkuturik. Seguraski, besterik gabe erotzat hartu izan nauzu urte hauek guztietan, baina, apika, zure irudimenak nire gutunak halako estratagema bihurri eta izugarri baten barnean kokatu izan ditu. Ez dut uste, dena den, asko beldurtuko zinenik. Hala hobe ere, ez baitzen hori nire asmoa, ezta guxtiagorik ere.

Orain, seguraski, are ulergaitzagoa zaizu nire gutunen zergatia. Sikiera ni zure laguna, edo ezaguna ere, banintz, ba ulergarriagoa litzaizuke agian, ezta? Txantxa bat edo izan zitekeen, dibertsio hutsa, edo horrelako zerbait. Baina zaude lasai, hartu astia. Apurka-apurka eta pau-

soz pauso joango gara, eta laster jabetuko zara zuk nire baitan hartu zenuen garrantziaz.

Igande urrun hartan ezin ekidin izan nuen, beraz, Lerit ostatura joatea zure izena eta zutaz beste zer edo zer gehiago jakiteko asmoz. Egia da ez nuela ezer ere egiteko igande arratsalde sargoritsu eta aspergarri hartan, baina hala ere ez da normala bidazti ezezagun bati buruzko halako kezka eta jakinminik izatea. Hortxe hasi zen nire zuganako jokaera bitxia (eroa hala nahi bazu). Baina, oroitzen bazara, jokaera bitxi horrek bazuen bere nolabaiteko esplikazioa, kaskar samarra bada ere: asperdura, hutsa, zerbait berri eta ezohizkoaren beharra.

Hala ere ondorengo egunetan ez nintzen zutaz asko oroitu. Badirudi ez zenuela denbora asko pasatu Iversten, ez zintudan behintzat gehiago ikusi. Baina aste batzuk geroago, nahiz eta egunez zutaz gutxi oroitu, nire ametsetan agertzen hasi zinen ia-ia gauero, eta ez gainera edonola: nire ametsen ardatza izaten hasi zinen, nire ametsen erresumako errege, jaun eta jabe. Eta ez nuen oso ondo ulertzen zergatik.

Nik ordurako hasia nuen duela urte gutxi arte izan dudan ohitura: egunkari bat nuen, eta han idazten nituen gertatzen zitzaizkidan gauzarik garrantzitsuenak. Baina ez zen inola ere egunetik egunera osatutako egunkaria, ez nintzen egunero egunkariaren aurrean jartzen egunean zehar gertatutakoak zehazki kontatzeko. Hori lan gogor eta aspergarria zatekeen, eta horretarako bulegokoarekin aski eta gehiegi nuen, bai horixe! Soilik gertaera bitxiak bizitzen nituenen, eta gertaera horiek inola ere ezin ahantz zitezkeela sentitzen nuenean, gertaera ez apuntatzea neure bizitzaren zati bat usteltzen uztea zela iruditzen zitzaidanean, hasten nintzen egunkari hartan idazten. Ez zen, beraz, egunkari ortodoxoa. Neure bizitzari buruzko apunte desordenatu soilak ziren. Oraindik ere gordetzen ditut apunte zahar horiek, nahiz eta aspaldi honetako urteotan ez dudan egunkari horretan ezertxo ere idatzi.

Zu ikustea eta zure izen-deiturak eta helbidea jakitea ez nituen apuntatu egunkari horretan. Eta, egia esan, ez dakit zergatik. Dirudienez, geroragoan hain erabakigarri izan behar zuen

«ezagutza» hari ez nion orduan hainbeste garrantzirik eman. Bestalde, igandea izaki egun hura, egunkarian idazten hasteko gogo handirik ez izatea ere baliteke. Dena den, egun hartan zure izenaren eta helbidearen berri izateaz, argi ikusi ahal izan duzunez, asko baliatu izan naiz aurrerantzean.

Eta aipatu dizudan egunkari horretatik hementxe ditut, hain zuzen, neure eskuetan, zu «ezagutu» eta aste batzuk geroago izan nituen bi ametsi dagozkien apunteak. Ametsak apuntatzeko ohitura handirik ez nuen baina ametsak, egunean zeharko gertaerak bezala, bitxi eta deigarriak zirenean, edota esnatzerakoan malenkonia ulergaitz bat, beldur sakon bat edo antzeko zerbait sentiarazten zidatenean, apuntatu egiten nituen. Zu agertzen zinelarik izan nituen, bi amets hauetaz gain, amets gehiago ere, baina bi horiek izan ziren, dirudienez, gardenenak eta apuntatzeko moduko bakarrak. Nire egunkari desordenatuaren hitzez emango dizut amets horien berri zuzen-zuzenean:

*Bart oso amets bitxia izan dut eta apun-tzeak merezi duela uste dut.*

*Jules-en semea jaio zen igande berean Iversten izan zen eta gaua Lerit ostatuan igaro zuen gizon misterioitsu harekin nindon ni kale ezezagun eta ilun batean zehar. Berarekin hizketan ari nintzen, ez dakit zertaz baina gaia nahiko serioa zela pentsa daiteke neure barnean sentitzen nuen urduritasun eta ezinegonagatik, eta gizon horrenganako sentitzen nuen errespetu astun eta sakonagatik. Elkarrengandik al-dendu gara kale ilun batean eta ni etxe-rantz abiatu naiz.*

*Ametsetan ohizkoa denez, berehala eta besterik gabe, neure gelan nengoen, eta ohearen buruari dagokion paretaren erdian gizon horren argazkia nuela ohartu naiz. Kaletik nekarren errespetu astuna beldur, izu eta ikara bilakatu arte areagotu zait. Heriori berari baino beldur handiagoa niola esan zitekeen gizonaren esana ez bete-tzeari, nahiz eta ezin esan zein zen esan hori (ametsetako nahasketa tipikoa).*

*Ez naiz gehiago ezertaz oroitzen, baina amets hau gogoratzerakoan oraindik beldur ezkutu bat sentitzen dut. Ez da gizon horrekin egiten dudan lehendabiziko ametsa. Duela egun batzuk ere agertu zait, baina ez naiz oso ongi oroitzen; oso amets nahasiak ziren haiek, funtsgabeak.*

*Arraroa da ezezagun batek halako errespetu harrigarria sentiaraztea ametsetan. Izan ere, ametsetan, zer ez da arraroa? Beste gauza arraroa, eta hau ametsetatik kanpokoak, zera da, nik igande hartan Lerit ostatura joan eta ezezagun horren datuak eskatzea giltzazainari. Orain ez dut ulertzen nola egin ahal izan nuen hori. Ametsetan ezezik bizitza kontzientean ere, gizon horrek liluratu egiten nauela dirudi. Agian pelikularen baten eragina edo izango da. Pelikuletan asko agertzen dira horrelako tipok: begirada ilun eta enigmatikoa, bakardadea... Ez dakit, agian bai.*

Hau zen lehenengo ametsa. 1955eko urriaren 5ean izan nuen, zehazki apuntaturik duda-



nez. Ondorengo, berriz, lau egun geroagokoa da:

*Berriz ere lehengo ezezagun hori agertu zait bart izaniko ametsetan. Eta nahiko ongi oroitzen dut amets hau. Arraroa izan da ametsa baina behintzat ez dut duela egun batzuk egunkari honetan apuntatu nuen ametsean izan nuen adinako beldurrik sentitu.*

*Gizon hura hiriko enparantza nagusian ikusi dut, egurrezko aldami baten gainetik hitz egiten. Jende asko eta asko zegoen bildurik hura entzuten, gero eta gehiago, ia ia enparantza osoa betetzeraino. Gizonak goitik hizketan ziharduen bare-bare, lasai. Thomassen tabernaren aurretik igarotzen ikusi nuenean zuen begirada ilun eta sakon berbera antzeman diot.*

*Jendea zeharo harrituta somatu dut, espero ez zuten zerbait esaten ari zen aldami gainekoa. Ni ez nintzen hark zioenaz ohar-tzen eta aurrera eta aurrera ekiten nion*

neure besoen bultzadaz jende multzoaren artean, aldamia hurbildu nahirik.

Azkenik aldamioaren aurrera iritsi naiz eta aldamio gaineko gizona begira hasi zait. Jende multzoari begiratu barik neuri so geratu da. Nire inguruko jendea ere horretaz ohartu eta begiratzen hasi zait. Urduritu egin naiz egoera larri horretan baina berehala gizonak bere hitzaldia bukatu du eta enparantza betetzen zuen jende multzo ikaragarria sakabanatzen hasi da, harridurazko komentarioak eginez.

Gero enparantzian biok geratu gara bakar-bakarrik, gizona eta neu. Aurreko eguneko ametsean izua eta beldurra izan zena oraingoan urduritasun larria izan da, poz ezkutu eta arraro batekin nahastua gainera.

Hor amaitu da ametsa, nik ez dut behintzat deus ere gehiago gogoratzen.

Amets honetan, duela egun batzuetakoan legez, ezezagun horrek izan du lehentasun osoa. Sikiera ezaguna balitz, ba... Baina ez, ez dakit kasik ezer berari buruz eta hala

ere izugarrizko garrantzia hartu du nire ametsetan.

*Pertsonaia misteriotsu gisa agertzen zait amets hauetan, sakona, errespetua sortarazten duena, urduritasuna, eta beldurra ere, eragiten duena. Bart gaueko ametsean, bestalde, berak bere aldamiotik neuri erreparatzeak eta neuri adi-adi begiratzeak poz arraro bat sentiarazi dit, harrotasun bitxi eta ulergaitz batek eragina edo.*

*Pozik jakingo nuke nolakoa den gizon hori benetan, bere eguneroko bizitza arruntan. Eta, baita ere, zer pentsatuko ote lukeen apunte hauek irakurriko balitu... Auskalo!*

Beraz, ezagutzen ez bazaitut ere, zuk berebiziko garrantzia izan duzu niretzat ikusi zintudanetik gaurdaino: hasieran, ikusi zintudan aldi bakar hartan nigan sortarazi zenuen eta Leritera, zure datuak eskatzera, bultzatu ninduen jakin-min bitxi hura; gero, zurekin izan nituen ametsak; geroago, igorri nizekizun zazpi gutun haiek; azken hogeita hamabi urteotan zehar garrantzia

galdu duzu baina ez pentsa zeharo ahaztu zaitudanik; orain, berriz, gutun hau idazten dizut.

Zergatik garrantzi hori? Hitzez hitz eman dizkizudan nire egunkari zaharreko orri horietan ez nuen esplikazio zehatzik aurkitzen zurekin izandako ametsentzat («Agian pelikularen baten eragina edo izango da»). Baina gutun honetan esana dizut dagoeneko, orri batzuk lehenago, Thomassen tabernaren aurretik igaro zinenean neure barnea hutsik sentitzen nuela eta zerbait berria, ezohizkoa, handia, liluragarria behar nuela neure barneko huts hura betetzeko; eta zure begirada iluna eta ibilera makala ikusita, zeu izan zintezkeela zerbait berri hori iruditu zitzaidan. Hain zuzen, ezagutzen ez zintudalako hartu zenuen halako garrantzia niretzat. Bai, ezagutzen denak beti mila akats ditu ezagutu aurretik pentsatu ere ezin zitezkeenak. Soilik ezagutzen ez denaz pentsa daiteke perfektua dela, akatsik gabekoa. Eta horixe gertatu zitzaidan zurekin. Horregatik joan nintzen Leritera, horregatik agertu zinen nire ametsetan, eta horregatik igorri nizkizun zuri, eta ez beste inori, zazpi gutun haiek (geroago argitzen saiatuko

naizen beste kontua da zergatik izan nuen esku-titz haiek idatzi beharra). Eta ezagutzen ez zaitudanez, oraindik ere perfekzioaren irudi zara niretzat, eta horregatik ari natzaizu gutun hau idazten. Ezagutuko bazintut, oraindik nigan gordezten duzun perfekziozko irudia galdu egingo zenuke.

Zure zalantzak honezkero apur bat argitzen ari direlakoan nago. 1955 eta 1956. urteetan zehar igorri nizkizun gutun haiei buruz, besterik ez bada ere, zergatik igorri nizkizun zuri, eta ez beste inori, jakin ahal izan duzu; zu niretzat zein zaren badakizu.

Luzea ari zait gertatzen esplikazioa. Dena den, hori bai, gustora sentitzen naiz idazten eta xehetasunik txikienaren berri ere ematen, ez diot mugarik jartzen neure hitz-jarioari. Baina horrek nekarazi egiten du, ez pentsa: duela hiru egun hasi nuen gutun hau eta oraindik badut makina bat gauza esateko. Zeu ere, apika, nekatu samartuta izango zara honezkero eta hortik atera kontuak idazteak zenbat nekarazten duen irakurtzeak ere nekarazten badu.

Hara, ba kontua da 1955eko eguberrietan neure burua nahastuta sentitzen hasi nintzela, gogo-jaitsialdi bat edo izan nuen, ez nuen neure bizitza arrunteko ezer egiteko gogorik, asperdura urduri batean erori nintzen. Arratsalde batean ordu piloa igaro nuela oroitzen naiz neure gelako bi hormak elkar jotzen zuten bazterrean eserita, marraskilo beldurtia antzo, kopeta belaun artean murgilduta, eta gorputza ikara urduri batek astintzen zidalarik. Egin nitzakeen gauza asko gogoratzen zitzaizkidan baina ez nuen ezer egiteko gogorik, ezer egiteko ahalmenik ere. Asko sufritu nuen eguberri haietan.

Lehenengo egunetan artean ere lan egin behar izaten nuen goizero, eta hori, jakina, nahitaez egin beharreko gauza zen. Ez dizut esango lana gustora egiten nuenik, baina bulegoan igaro nituen nik egun haietako ordurik atseginenak. Bulegoko erlojuak ordu biak jotzen zituenean, lana lagatzerakoan, izu sakon bat sentitzen nuen, eguna bukatzeko geratzen zen tartea amildegi iluna iruditzen zitzaidan, neure buru noragabetuaren beldur nintzen.

Arratsalde batzuetan kalera irten eta osteratxoaren bat egiteko adorea izaten nuen eta horrek salbatzen ninduen pixkat. Baina adiskideren bat ikusten banuen edo, laster urduritzen nintzen eta lagunarekin egotea eta hitz egitea jasan ezina egiten zitzaidan. Nire kalerako ateraldiak urri eta laburrak izaten ziren, eta etxean, berriz, are urduriago eta jausiago egoten nintzen.

Gero, eguberriko opor egunak heldu zirenean, bizpahiru egun oso txarrak pasatu nituen, neure etxean sartuta, ezertarako ere irten gabe eta bakar-bakarrik.

Eta, hain zuzen ere, horietako egun batean idatzi nuen -idatzi nizun- lehen gutuna. Gabon egunean izan zen gainera, gutun zaharraren kopian agertzen den izenik gabeko sinadurak dioenez.

Ezin nuen egoera hura jasan, ito egiten nintzen. Kanean jendearekin hitz egiteak lehen baino are urduri eta nahasiago uzten ninduen, baina halaber norbaitekin hitz egiteko premia nuen, norbaiti zerbait esan beharra. Eta zutaz oroitu nintzen orduantxe, soilik behin ikusi nuen arren nigan halako arrasto bitxi eta ezabagaitza

utzi zuen eta nire ametsen erresumako jainko misterioitsu eta iluna izatera iritsi zen ezezagun hartaz. Nigan utzi zenuen arrasto bitxi hark eraginda, pertsona sakon eta misterioitsua behar zenuela izan iruditu zitzaidan, eta aurrerago ere aipatu dizudan gure ezezaguntasunean oinarritutako perfekzio irudia lotzen zitzaien sakontasun eta misterio haiei. Horregatik, zure helbidea nuela gogoratu nuenean, neu nor nintzen esan gabe zuri gutun bat idaztea erabaki nuen, zurekin nolabaiteko harremanak izateko gogoak bul-tzatuta.

Papera eta luma hartu eta neure burua husten hasi nintzen ero baten moduan, presaka, ezeri jaramonik egin gabe, segi eta segi, zer idazten nuenez deus ere arduratzen ez nintzelarik. Urduritasunez larkargatutako neure barneak zuen suntsiketa beharra isurtzen saiatu nintzen paper puska narrats oldarkor haietan.

Idazten nuen bitartean asko oroitzen nintzen zutaz, eta nire gutun hark sortaraziko zizun harridura gogoratuz poztu egiten nintzen. Ez nuen zugarako ez gorrotorik ez ezinikusirik; ez pentsa horrelakorik. Besterik gabe, zerbait arraroa egin



nahi nuen, esplikazio arrazionalik gabeko zerbait. Inork imajina ere ezin lezakeen zerbait. Eta, hain zuzen, nigan halako arrasto misteriotsua utzi zuen ezezagun «perfektu» hura harritu nahi nuen horrekin: zu. Harritzen ninduen berbera harritu nahi nuen.

Gutuna idatzi izateak ekarri zidan bi edo hiru egun hits haietako poz bakarra. Poza sentitzen bainuen gutun hura idatzi nuela gogoratzerakotan. Zerbait zen, zerbait, eta gainera, nolakoa!, a zer gutuna! Bai, nire egun haietako harrotasun bakarra huraxe zen.

Ez dizut esango gutuna idatzi izanak sendatu egin ninduenik, eta gutuna idatzi eta gero ere neure jaitsialdian iraun nuen; baina behintzat biharamunerako edo asko argitu eta suspertu nintzen.

Eta orduan, gutun xelebren hura hartu eta kopiatu egin nuen, data eta guzti. Kopia askoz ere txukunagoa geratu zitzaidan orijinala baino, baina hitzei eta hitzen joskera eta ordenari zegokienez, ez nuen deus ere zuzendu. Kopia bukatu nuenean zalantzan izan nintzen ea zein igorriko nizun, kopia ala orijinala. Orijinala ulergaitzagoa

izango zitzaizun baina, bestalde, aberatsagoa zen, nolabait esateko indar espresibo handiagoa zuen. Eta ulergaitzasunaren arazoak inola ere kezkatu behar ez ninduela pentsatuta, orijinala igortzea erabaki nuen: azken finean, honetan nirekin ados izango zara, gutun haren arazoa ez zetzan ulertu ala ez ulertzean.

Nire paperen karpeta desordenatutik zure helbidearen apuntea atera eta gutunazal batean kopiatu nuen ondoren, paper puska arraio haiek zuri postaz igortzeko.

Eta honela sortu zen, beraz, zazpi haietako lehendabiziko gutuna. Lehenengoaren atzetik etorri ziren -joan zitzaizkizun- beste sei gutunek lehenengoaren oso antzeko sorrera izan zuten. Ez dira denak lehenengoa bezalako jaitsialdi hits eta larrietan idatziak, beste batzuk une argiago eta arruntagoetan idatzi baintuen, baina beti idazten hasterakoan urduritasun ero batek bul-tzatzen ninduen, oihu egiteko irrika batek. Beti presaka eta behaztopoka idazten nituen, zerbaiti ihes egin nahiko banio bezala. Edo bestela, beste batzuetan, dena pikutara bidaltzen duenaren ironia lasaiaz ere bai.

Gutunen daten arteko tarteez ez dute inolako progresio matematikorik jarraitzen, ez dute aldizkatasun finkorik -izango balute gogoratuko nuke nik hori-. Urtebete baino apur bat gehiagotan zehar idatzitako zazpi gutunetatik, batzuk hilabete baino tarte laburragoan eta beste batzuk ia hiru hilabeteko tartean daude idatziak. Ez nuen inolako plangintzarik zuri eskutitzak idazteko; besterik gabe, beharra sentitzen nuenean hasten nintzen idazteko lanean. Hots, arestian aipatu dizudan oldarkortasun itoa eta oihu egiteko irrika hura sentitzen nuenean; neure bizitza, eta oro har bizitza zentzurik zabalenean, absurdua iruditzen zitzaidanean, gauzak aldatzen ez baziren gizakiak duen gauza bakarra, bizitza, alferrik galdu eta pikutara zihoala sentitzen nuenean... Ziur naiz zeuk ere horixe bera maiz sentitu duzula, ziur naiz ezagutzen ez zaitudan arren.

Orain artekoarekin nire lanaren zati garrantzitsu bat bukatutzat jo dezakegula uste dut. Ez da gutxi; pozik egoteko lain. Orain ezagutzen duzu nire gutunen zergatia, zergati orokorra bederen; edo behintzat, besterik ez bada ere, argi-

tu dizut gai honetaz argi niezazukeen guztia. Orri batzuk lehenago ere esana dizut nik ezin deza- kedala gutun haien esplikazio arrazional osorik eman, eta ez dudala interes berezirik ni gutun haiek idaztean eroturik ez nengoela erakusteko. Baina adierazi dizkizudan zergati eta arrazoiak ahulak badira ere zuretzat, nik neure aldetik, atzera begiratuta, gutun haiek lagungarri gerta- tu zitzaizkidala uste dut. Gustora geratu ohi nin- tzen gutuna idatzi ondoren, ume bihurria gaizta- keria egin eta gero legez. Nire larrialdi neurotiko- en sendagai gertatzen ziren horrela gutun haiek, nire suntsiketa eta oldarkortasun premiaren atsedean.

Honela begiratuta, arazorik larriena zera li- tzateke: zu. Berriro ere barkatzeko eskatzen dizut nire gutunek inoiz beldurtu edo nekarazi egin bazaituzte, edo inolako minik, arazorik edo kalterik sortu badizute. Bai, aitortzen dut beran- du samar izan daitekeela barkamena eskatzeko, baina nik behintzat asmo txarrik gabe igorri niz- kizun gutunak.

Zazpigarren gutunaz geroztik besterik idatzi ez nizula eta, ez ezazu pentsa harrezkero ez

nuela gehiago inoiz sentitu zazpi gutun haiek idaztera bultzatu ninduen urduritasun eroa eta suntsiketa beharra. Besterik gabe, gertatu zitzaidana zera da, gutunak idazteak bere eragin terapeutikoa galdu zuela. Ordurako ez nuen inolako zirgitaldirik bizitzen gutunak idaztean, lan hura ere arrunta bilakatu zitzaidan eta ez nuen sentitzen gutuna idatzi ondorengo pozik, neure burua ez bainuen jada harritzen gutun haiekin. Eta era berean gutunek zugar ere beren harridurazko eragina galtzen ariko zirela gauza jakina zen. Lehenago inork imajina ere ezin zezakeena ohitura arrunta bilakatua zen ordurako gu biontzat.

Harrezkero, lehenago ere egin ohi izan nituen gauzak egiten nituen unerik larrienak igarotzeko eta ahazteko, batez ere mozkortu arte edan, edo bestela ohe gainean etzanda egon etengabeko negarrean, edo, batzuetan, edozein lelokeriagatik norbaitekin haserretu elkar joka hasten ginen arte. Beste batzuetan, berriz, hiriko kale guztiak zeharkatzen hasten nintzen noraezean, inolako norabiderik gabe, presaka eta izerditan, neka-neka eginda geratu arte.

Baina ez pentsa ni tipo arraroa naizenik. Ez nau sekula inork erotzat hartu, gizon arrunta izan naiz beti. Neure xelebrequeriak izan ditut baina eskuarki gizon normala izan naiz bizitza osoan. Dena den, aitortu behar dizut lagun eta ezagunen artean beti disimulatu eta ezkutatu nahi izan ditudala neure jaitsialdien sendagai izan diren «erokeria» horiek. Hain zuzen, igorri nizkizun gutunez ez dut sekula hitz egin inortxo-rekin ere, gutun honen berri ere ez diot inori eman, eta ez dut gure arteko «harreman» berezien berri inori ere emateko asmorik. Baina, azken finean, nork ez du gisa honetako sekreturen bat gordetzen?

Orain artekoan zazpi gutun zahar haiek argitzen, esplikatzen jardun dut nolabait. Gutun haiek harridura bilatzen zuten, horixe zuten beren helburu. Beren ulergaitasunean, beren zentzugabetasunean zetzan gehienbat beren babilioa. Oraingo gutun hau, aldiz, erabat arrazionala da, esplikazioa eta argia ditu helburu gisa, eta gutun zaharren harridura gutxitzea ere nolabait. Eta, hogeita hamabi urte igaro eta gero, zu honetzkerok hilda egon zaitezkeenean -ze, neuk be-

zalatsu, hirurogei urteenmuga aspalditxo igaroa izango duzu-, zer dela eta orain gisa honetako gutuna?

Ba, tira, honezkero asmatua behar zenuke hori. Oraintxe ere, pixka bat pentsatzen baduzu, berehala asma dezakezu: laster hil behar dudalako, noski. Ez nago oraintxe bertan gaizki, baina medikuek bi urte bezala (espero daitekeen eperik luzeena) hiru hilabete (eperik laburrena, diotenez behintzat) iraun dezakedala esan didate. Ez da denbora asko ziurtatu zidatenetik, baina duela hilabete batzuetatik hona susmatzen nuen neure gaitzaren arriskua. Eta ez nembilen oso oker, ez, ez nuen gauza onik.

Neure bizitzan zehar inolako ardurarik gabe praktikatu ditut nire bizio nagusiak: erretzea eta edatea. Edateari dagokionez, ez dit egundo, asko edan izan dudan arren, berebiziko kalterik egin; gibela hondatzen hasia omen dut baina ez gehiegi kezkatzeko moduan. Zigarroak dira ehortziko nautenak. Baina, tira, azkenerako zigarro asko eta asko behar izan da itxaropenari leiho guztiak itxi dizkion minbizi honek nire birketan habia egin dezan.

Bizitza osoa lan eta lan eginez igaro, erretiratu, eta... Horrelakoxea da mundua, horrelakoxea, eta ez dago ezer egiterik. Lanik egin gabe bizitzea zer ote den jakin gabe, aldegin egin behar.

Tristea da heriotzaren hutsa sentitzea eta penak ez du kalte besterik egiten. Eta, bestalde, ondo pentsatuta, zenbat iraun ahal dezake jada mundu honek?; ni baino zenbat gehiago iraun ahal izango duzue -zu bizirik eta osasunez izango zarela espero dut- zuek guztiok? Eta ez pentsa txantxetan ari naizenik; oso aspaldi hasi nintzen ni 3. mundu-gerra termonuklear baten arrisku izugarriekin beldurtzen. Eta azken urteotan nazio handien arteko harremanen bilakaerak ez dit arrazoia eman besterik egin. Horixe da gure munduko erokeria -maiuskulaz idatzita hobe: «Erokeria»-, eta ez besteak. Baina, tira, utz dezagun hori; gutun honekiko zerikusirik ez duen gai latz horrekin ezin kezkatuko zaitut gehiago.

Nire gaixotasuna dela eta ere ez zintuzket tristatu nahi. Ni, neure aldetik, etsita nago. Zer egingo diogu bada? Baina, ezin ukatu, izugarria



da heriotza aurrez aurre ikustea. Beldurgarria. Terrorezko filmeetan ere beldurra nagusitzen da, baina leku argietan edota jende askoren inguruan beldurra uxatu egiten da; ez jende multzok ez argiak ezin dezakete, ordea, heriotzaren misterio iluna ebatzi. Heriotz beldurrarentzat ez dago inolako irtenbiderik. Edo agian bat, bakarra: ahaztea, ahalik eta denbora luzeenez ahaztea. Eta, tira, ahaztu dezagun bada, eta utz dezagun alde batera gai ilun hau gutun honen harira -hari bihurria hori horratik!- itzultzeko.

Apika ez duzu ondo ulertzen nondik ateratzen dudan orain gutun hau idazteko gogoia. Laster hil behar dudala jakitearen ondorioz gauza askok garrantzia galdu dute niretzat eta, agian, bai arima eta bai gorputza sendoago izango banitu, edozein erokeria egingo nuke azken gurari gisa; beti pentsatu izan dudana zera da, ahal dudan diru guztia bildu eta edonora aldegin. Baina ez, ezinezkoa da; medikuengana joan behar izaten dut astero bizpahiru aldiz eta, bestela ere, ez naiz horretarako gauza. Eta nire azken egunak asperdura etengabea igarotzen ditut ezertarako ilusiorik gabe, garai zaharrak

gogoratu eta berpiztea dudalarik gogokoena, hain laztanak zaizkidan garai zaharrak. Oroimnaren laztantasuna. Nire egunkari zaharraren orri sakabanatuak eta zuri igorritako gutunen kopiak ditut, hain zuzen ere, oroimin horren zutabe.

Azken hogeita hamabi urte hauetan ez ditut zeharo ahaztu gutun haiek, baina nolana ere neure bizitzako pasarte iragan gisa ikusi izan ditut, askotan arrotza egiten zitzaidan gertakari bukatu gisa. Orain, ostera, garrantzi handia dute niretzat gutun zahar haiek eta zutaz ere asko oroitzen naiz; gu bion arteko harremanen bitxiak oraindik ere harritu egiten nau batzuetan.

Eta zutaz adina neure buruaz kezkatutik, gutun zahar haien nolabaiteko esplikazioa jasoko lukeen gutun berria moldatu eta zuri igortzea bururatu zitzaidan. Bada dagoeneko astebetetik gora gutun berri hau idaztea erabaki nuenetik eta duela bost egun hasi nintzen idazten. Ez nuen hain luzea gerta zitekeenik uste, baina aldi berean asko ikasten eta gozatzen ere ari naiz, eta zeuri ere, jaso baduzu, baliagarri gerta dakizuke, ezta?

Guk biok elkar ikustea eta ezagutzea ere bururatu zait. Gustatuko litzaidake benetan zu ezagutzea eta zure iritziak jasotzea. Agian adiskide eta solaskide onak izan gintezke. Iverst eta Sandler arteko hirurogeita hamabost edo laurogei kilometroak ez dira gainditu ezinezko oztopo. Hori bai, horretarako, jakina, alde zuzenetik zuzen horrelakorik nahiko ote zenukeen -eta ahal izango ote zenukeen ere- jakin beharko nuke. Baina ideia hau baztertu egin dut eta gutun berrietan, zaharretan bezala, ez nire izenik ez helbiderik idaztea erabaki.

Zergatik hori? Ba, zera, gutun zaharren magia irrazionala eta misterioa galduko liratekeelako, zu eta nire arteko zirkuitua itxi egingo litzatekeelako, istorio arraro honek amaiera izango lukeelako. Ez dakit nolakoa ote zaren, eta agian oso gizon egokia eta jatorra izango zara, baina nolana ere dezepzionatu egingo ninduzuke; nik zu ez ezagutzeak ematen dizun perfekzioa hautsi egingo litzateke, orri batzuk lehengo ere esana dizudan bezala. Eta horretaz gain, zurekin hizketan hastean ezin asmatuko nuke zer esan, ez bainuke izango idazterakoan dudan

erraztasunik, lasaitasunik, askatasunik. Urduritu egingo nintzateke eta ez nizuke ez esan nahiko nizukeen guztia esango ez hitz egin nahiko nizukeen bezala hitz egingo. Eta, egia esan, alderdi positibo gisa, zer atera genezake? Neuri behintzat gehien interesatuko litzaidakeena zure iritzia ezagutzea litzateke, baina horixe bera nahikoa izango zen arazo honen misterioa erabat deuseztatzeko. Bestalde, ez dut zuri beste gutunik idazteko asmorik. Gutun hauxe izango duzu, beraz, nire azken agurra.

Dena den, nolabait ere, gure harreman bitxi hauek ez dute azkenik izango. Nik ez dut jakingo -are gehiago, ez dut jakiterik nahi ere- idatzi dizudana irakurri ote didazun. Zuk, berriz, nire gutunak jaso eta irakurri badituzu, ez duzu nitaz gutun hauetan jakin ahal izan duzuna besterik jakingo. Nolabait esateko, gu bion arteko bidea zabalik geratuko da betiko.

Honenbestez, hitz-jarioa agortzen ari zait -eta bazen horretarako garaia ere, ezta?-. Esan dizut, ezer ez bazait ahaztu, esan behar nizun guztia. Sei egun luze, ia astebete osoa, behar izan dut, baina orain pozik nago bukatzean. Me-

rezi izan duelakoan nago behinik behin, eta zurretzat ere interesgarri gerta daitekeelakoan. Besterik ez bada ere, ziur naiz gutun hau irakurri baduzu garai zaharrak oroitzeko abagunea izan duzula -ez al nauzu ba, azken finean, lagun zaharra?-, eta horrelakoak eskertu egiten diragure adinean.

Bukatzeko, nire jokaera psikopatia arraroren baten ondorioztat jotzen baduzu -ezin kendu dut susmo hau neure burutik-, zeure buruari galdera hau zintzoki, bene-benetan erantzuteko eskatuko nizuke: ez al duzu inoiz nik egin nuena, edo antzeko zerbait bederen, egiteko gogorik sentitu?

Zure erantzuna ezezkoa baldin bada, nire gutunen hartzailetzat gizon benetan bitxi eta arraroa izan dudala esan behar.

Besterik ez nire aldetik. Uste dut hemen geratzen direla gure harremanak betiko. Desiorik onenez, jaso ezazu ezagutzen ez zaituen lagun zahar ezezagun honen azken agurra.

*Iverst, 1988ko abuztuak 6*

# Gezur ederra

Lehiaketarena? Bilbon nengoen ni hura jakin nuenean, ostatu merke batean bizitzen. Gauez traguak hartzera irteten nintzen goizaldera arte edo, eta biharamuna zerbait irakurtzen pasatu ohi nuen eskuarki. Ez nintzen gaizki bizi; bizi daiteke horrela bizitza osoa ere, bai horixe! Ostatu-ko harreralekuan gaeko txanda egiten zuen neska oso lagun egin nuen; gauerdi inguruan kalerara irteterakoan hari giltza utzi eta goizaldean gorakoan berak itzultzen zidan atzera, irribarre ederra ahoan eta bromaren bat hitzetik hortzera beti ere. Leire zuen izena, oso oker ez banago, bai, Leire. Ez dakit zergatik ez ginen inoiz elkarrekin oheratu. Beharbada neu nekatuegia iristen nintzelako goizaldean, edota berak ostatu hura lanerako lekua zuelako eta bezeroekin horrelakoetan sartzerik nahi ez zuelako. Ez dakit.

Marta nigandik apartatu ondoren joana nintzen ni Bilbora, bakarrik egon nahi nuelako edo ez dakit ba nik. Junkie batekin joan zitzaidan tuntu hura, eta nik ezin izan nuen ezer egin. Junkie

baten aldean ez gara ezer neskatarako, junkiearekin neskak sexuaren aldean berriagoa eta erakargarriagoa den atsegin berezia aurkitzen baitu hasieran: heroinarena; eta ez heroina bakarrik, baita bizitzaren amildegi ertzean bizitzearen lilura zorabiagarria ere, laino guztien gaintetik eta sasi guztien azpitik, hegadarik atseginenean eta narrazik traketsenean... Gero, zorabio horretatik irten nahi etsia heltzen zaienean, orduan izaten dira kontuak eta damuak. Alferrik direnean, alegia.

Diru kontuetan zeharo gaizki ere ez nenbilen ni garai hartan, ondoegi ere ez baina. Lanik gabe nengoen aspalditxotik baina, askorik ez zen arren, langabezi saria jasotzen ari nintzen artean ere. Hurrengo hilean langabezi saria bukatu egingo zitzaidan, baina haren ondorengo premia laguntza jasotzeko itxaropena nuen, miseria bat izango zela jakinik ere. Behin baino gehiagotan izan naiz premiazko laguntza eskuratu behar izatetik gertu, baina inoiz ez diot oraindik horri heldu, ez naiz inoiz iritsi horrenbestearino.

Bilboko gau giroa oso gogorra zen. Ezagundu, bai, Bilbok, hiri industrial, zikin eta bortitza

dela, kategoria guztietako lapur lotsagabez, jun-  
kie petralez eta puta merkez betea. Horixe zen  
hala ere neuk aldi hartan nahi eta behar nuen  
giroa, eta ondo moldatzen nintzen. Adiskide  
onak ere egin nituen, alde guztietan bezala, ez  
baita ezinezkoa, ezta hurrik eman ere! Kontua  
da zintzo jokatzea jendearekin eta jendeak di-  
tuen akatsak lasai ametitzea, bihotz zabalez, era  
horretan norberak ere bere akatsak lasaitasun  
osoz erakutsi ahal izango baititu, eta praktikan  
jarri, noski, batere lotsarik gabe.

Irakurri, berriz, denetarik irakurtzen nuen,  
baina batez ere Bilbo bezalako hiri zatarretan ko-  
katuriko istorioak nituen orduan gogoko, hurbila-  
go eta neureago sentitzen nituelako edo; deso-  
reka eta desosegua literatura bihurtu eta irakur-  
leari bere erraietan sentiarazten dioten idazlerik  
gupidagabeenen idazlan ankerrak. Ostatu az-  
pian bertan zegoen liburudenda bat, sarritan za-  
baldua izaten zutena ni etxerako bidean nintze-  
nerako, eta han liburu bat erosita igotzen nin-  
tzen gelara batzuetan, parrandaren ondoren. Ilu-  
sio berezia sentiarazten zidan horrek, bizipoz  
ezezagun eta misterioitsua, eta lasaiago hartzen



ninduen loak liburu erosi berri baten lehen orriak irakurtzen ari nintzela. Leirek irri egiten zuen goizeko ordu haietan liburu erosi berria besapean nuela gelaratzen ikusten ninduenean. Nik beti liburua neuk idatzitakoa zela esaten nion, ezizen batez sinaturik, jakina, ez nuelako ezaguna eta famatua izan nahi. «Zertarako?», esaten nion. «Bakean ezin bizi ahal izateko? Jende txotxoloa ezagutzeko? Neurea ez den mundu faltsu batean bizitzeko? Utikan! Batere ez!» Azkenean arrazoia ematen zidan. Bai, Leire beti bat zetorren nirekin; aintzakotzat hartzen zuen hark beti nik esana, beste askok ez bezala.

Egunkaria ez nuen inoiz erosten, noski, ez baitut inoiz erosi izan. Ez zait inoiz interesatu. Zertarako? Interesa duten gai guztiei buruz hitz egiten da tabernetan, eta gezurrik gabe, zurikeriarik gabe, gauzak diren bezala adierazi eta azaltzeko lotsarik edo beldurrik gabe. Tabernetan aipatzen ez diren kontuak, berriz, ez jakinda hobe, ez digute eta ezertarako balio. Egunkariari, telebistari eta irratiari kasu gutxiago egingo balio, alde ederreko lasaitasunez biziko litzateke jendea, bai horixe!, egokitzen ez zaizkion saltsa

xelebretan itsumandoka sartu beharrik gabe, norberak sortu eta benetan sentitutako iritzien jabe, beti inork emanak berresten ibili beharrean, loro zozoen moduan. Edozer gauza jakiteko, zuzenean jakin behar da, bizi-bizian, bestela alferrik da eta. Ukitu, sentitu eta bizi egin behar da albistea, bestela berriketa hutsalean ariko baikara beti, beste erremediorik gabe.

Leirek bai ordea, hark irakurtzen zuen egunkaria. Izan ere gaixoak gau osoa egon behar izaten baitzuen hantxe, harreraleku ilun hartan eserita, ostatu merke hartara iristen ziren ni bezalako bezero petrarei giltzak jaso eta emanaz, gainerako beste entretenimendu handirik gabe. Utzi ohi nizkion nik zenbait liburu, neuk idatzitakoak eta oso onak zirela esanez, baina bat edo beste irakurri bazuen ere ez zuen zaletasun handirik erakusten liburuetarako. Egunkaria aitzitik bai, goitik behera irakurriko zizun egunero. Ez dakit zer aurkituko ote zuen hark orri txuri-beltz merke horietan nik utzitako liburu ederretan ezin aurki zitekeenik. Beharbada errealitatetik hurbi-lago ikusten zuen egunkaria liburuen aldean, be-

harbada tranpa gaizto horretan jausia zen koitadu hura ere oharkabeen.

Tira, baina kontua zera da, goiz batez gelara erretiratzera nindoala Leirek zorionak eman zizkidala. Nik ezin nuen ulertu zergatik.

-Ez duk guztiz gezurra ere, hortaz, liburuen kontu hori. Benetako idazlea haiz hi.

Harrituta geratu nintzen. Egunkaria erakutsi zidan orduan. Han azaltzen zen, bai, nire izena, ez nolanhiko letratan gainera: «*Felix Arrieta Donostia Hiria ipuin lehiaketaren irabazle*». Arraioa! Oraindik horrelakorik! Benetan diot, lan handiak eman zizkidan hura sinesteraino iristeak. Ipuin garailearen izenburua «Gezur ederra» zela irakurri ondoren ere tarte bat behar izan nuen artean ipuin hartaz eta harekin egindakoaz gogoratze-ko. Urte asko baitziren ipuin hura idatzi nuenetik, Akilano nire aspaldiko adiskide minaren etxean bizi nintzela. Akilano zaharrak ipuin hura gordea zuenik ere ez nuen berehala pentsatuko, ez horratik, alajaina! Baina gordea ezezik lehiaketara aurkeztua ere bazuen apajo hark. Ez zen makala, ez, gure Akilano zaharra! Demontre arraioa! A zer zapelaitza!

Akilano bera ageri zen egunkariko argazki txiki batean, eta idatzizko testuan ipuinaren istorio osoa azaltzen zien kazetariei, nirea zela ipuina, alegia, eta aspaldi idatzia nuela denborapasa, neronek ere garrantzi handirik emangabe neure aldetik; bere etxean utzia eta ahaztua nuela, eta aurten zoko miaketan kasualitatez nire ipuinarekin topo egitean lehiaketara aurkeztea bururatu zitzaiola ea zer arraio gertatzen zen. Gero zera esaten zuen, ez zekiela aspaldian nire berri, ez zekiela non aurkitu ahal izango ninduen, baina espero zuela ni, nondik edo handik, nola edo hala, sariaren berri jakin eta bere etxera azaltzea. Horrenbestez, saria aspaldian ikusi gabeko adiskide zahar batekin topo egin ahal izateko aitzakia ere izan zitekeela. «Ondo, Akilano, ondo!», pentsatu bide nuen neure artean. «Ez haiz mutil txarra horratik!»

-Nahi ez baduk ere orain famatua egin haiz, txo -esan zidan Leirek irribarrez-. Egia al da, beraz, liburuak idazten dituala? Nik ez nian sinesten, bromatan esaten huela uste nian, baina...

Guzti hura gezur hutsa zela azaldu behar izan nion Leireri. Txantxetan jarduna nintzela beti. Tarteka txorakeriaren bat edo beste idazten nuela baina gero paperak beti bota egiten nituela, ez zutelako ezertarako balio. Lehiaketaren kontua kasualitate hutsa izan zela esan nion. Epaimahaian babalorerik handienak biltzen dituztela horrelakoetan eta horregatik izan zela nire lan ziztrin hura garaile, bestela ez zela horrelakorik inola ere gertatu ahal izango. Benetan esan nion hori guztia, jakina, egia hutsa besterik ez baitzen, oraindik ere horretan nago.

Lo egin ondoren, arratsaldean autobusa hartu nuen Donostiara, Akilanoren etxera jotzeko. Ongi etorri abegikorra egin zidan aspaldiko adiskide zaharrak. Aztoratuta zebilen sari haren pozarekin gizaixoa. Etxean afaldu ondoren, kale-ira irten ginen tragu batzuk jotzera berriz aspaldiko partez, elkar ikusteko parada ospatuz, sariarekin batera, jakina. Akilano pozik zoratzen. Lagun zahar asko ikusi genituen eta oso gustora genbiltzan, baina onenean Akilano etxeratu egin behar genuela eginez hasi zen, etxeratu egin behar genuela eta etxeratu egin behar genuela,

zeren --azkenean baino ez zidan aitortu hau-  
biharamunean kazetariekin egon behar omen  
nuen eta, horrenbestez, ondo lo eginda eta egoki  
atondua izatea komeniko omen zitzaidan, itxu-  
rantzean.

-Kazetariekin? Nik ez diat kazetariekin egon  
nahi, hi. Heuk ez al hien azaldu kontu guztia ba?

-Banekian, bai, ez huela nahiko, astapotro  
horrek. Horregatik ez diat esan nahi izan orain  
artean.

-Orain artean ez eta orain bai? Zergatik orain  
bai?

-Ba mozkortuta nagoelako, eta gainera beste  
erremediorik ere ez dudalako honezkero.

Ez nuen Akilanorekin haserretu nahi eta lau-  
rak jo baino lehen etxeratu ginen biok bizkarret-  
tik helduta, aspaldiko garai zaharretan bezala,  
aspaldiko kantuak kantatuz, aspaldiko keinuak  
berrituz.

Biok ohe berean lo egin behar genuen, Akila-  
nok ohe bakarra baitzuen bere etxe txikian, eta  
ohera sartu aurretik dutxa bat hartu beharko  
nuela pentsatu nuen, aspaldi samarretik garbitu  
gabe bainengoen. Baina dutxatu eta gero ere ez

zitzaidan batere gogoko inorekin batera lo egiteko kontu hura. Emakume batekin egin daiteke lo, hartara noiznahi larrua lasai jo ahal izateko aukera izaten delako, egokia delako...; ez litzaida-ke gustatuko emakume bat izatea beti-beti ohe- kide baina batzuetan -eta askotan ere- ondo dago. Adiskide handia izanda ere, gizonezko ba- tekin lo egin behar izatea, ordea, oso kontu ne- ketsu eta itsusia da niretzat. Ezin zara nahi duzun bezala mugitu, ez duzu askatasunik, ezin duzu uzkerrik lasai bota... Jasanezina benetan! Horretaz gainera, hain goiz oheratzeko ohitura- rik ez nuenez, ez ninduen berehala loak hartu, makina bat buelta eman nuen aurretik, Akilano- ren zurrunga sakonei ihes egin ezinik.

Biharamun eguerdian kazetariekin egon behar izan nuen. Akilanok ondo prestatua zuen dena, oso pozik zegoen, ni berriz ikusteagatik ezezik baita ere -eta batez ere- lehiaketa haren kontura egindako bihurrikeria txiki harengatik. Dirua niretzat izango zen, noski, hori hasieratik esan zidan, baina harentzat bihurrikeria hura eta haren ondorengo saltsa-maltsa xelebreguztia zen saria, ni berriz ikusteko aukeraz gain, jakina,

behin eta berriz -gehiegitan aukeran- esaten zuenez. Maltzur hura bezperan hiriko komunikabide guztietara deika jarduna zen afaltzen hasi aurretik, niri amari deitzera jaitsi behar zuela esanda. Eguerdiko hamabietan prentsaurreko bat izango zela zien esana, Okendo kafetegian, eta ni han izango nintzela ere agindua, noski; hori guztia niri ezertxo ere esan gabe. Azkarra morroia, alajainkoa! Benetan ondo pasatzen ari zen nire kontura.

Nik ezin nion ezetz esan. Berez Akilanok asmo onez egina zuen guztia eta sariaren diru pila eskertzekoa zen nire aldetik. Apur bat bazen ere, amore eman beharra nuen. Beraz, prest nintzen prentsaurrekora joan eta kazetarien galderi erantzuteko. Nahi nuena erantzuteko aukera librea eman zidan Akilanok, jakina, horretan neure erara ondo moldatzen asmatuko nuela eta. Baina kazetarien aurrean agertzeko itxura zarpailegia nuela esan zidan, telebistakoak ere deituak zituela eta hobe nuela bizar gris narrats hura kentzea; eta utziko zizkidala berak bere arropak ere nahi izanez gero, nire betiko gabardina berde ilun higituaren ordez.



-Baita zera ere! Peluka jaztea ere nahi al duk soiltasun lotsagabe hau ezkutatzeko? -erantzun nion haserre, eskuekin buruko soilunea laztantzen nuen bitartean-. Ez, ez, Akilano, horrelako konturik ezta pentsatu ere! Agertzearekin ez diat gutxi egiten. Nahikoa duk eta kito! Entzun?

Halaxe bada, neure arropa zahar samarrak jantzita eta neure bizar zarpailarekin azaldu nintzen kazetari mordoska haren aurrean. Leire etorri zitzaidan gogora orduan. Hark nire argazkia ikusiko zuen egunkarian biharamun gauean, eta neu ere hantxe izango nintzen, egunero bezala, kalera jaisten traguak hartzera. Poztu egin ninduten pentsamendu lasaigarri, gozo eta ia-ia etxekoi horiek.

Ez ziren Akilanok deitutako kazetari guztiak etorri. Beste prentsaurreko bat omen zegoen egun berean Donostian eta, azken finean, sari-keta hark ez zuen kazetari entzat Akilanok uste zuen adinako garrantzirik, ezta gutxiagorik ere. Dena den, telebistakoak han ziren, eta haiek izan ziren Akilanoren pozik handiena. Lasaitasun osoz eta batere ardurarik gabe, erdi bromatan erantzun nituen inguruan bildu zitzaizkidan ka-

zetari amateur guztien galdera zozoak. Gezur bat baino gehiago bota nien gizaixoei, ez dakit denak sinetsiko ote zituzten baina. Gogoan dut nire literatur idazkeran eraginik izan lezaketen egileak aipatzerakoan batere gogokoez ditudan lau poeta txoripittoren izenak eman nizkiela, biharamuneko egunkariak nork bere akats ortografiko bereziekin argitaratu zituztenak. Barregarria izan zen benetan. Azkenean, egia osoa esanda, ez nuen batere gaizki pasatu kazetariekin.

Gau hartan parranda lasaiagoa egin genuen Akilanok eta biok, eta goizean Bilborako autobusa hartu nuen adiskidea agurtu ondoren.

-Ederra sartu zieagu -esan zidan Akilanok.

-Bai, baina seguru gizaixo horiek ez dutela ezer sinetsi.

Doi-doi Leire aldegitarr zenean iritsi nintzen ostatura, eguerdi partean, hurrengo txandako mutil lehorra bere lekua hartzekotan zenean. Sariaren ordaineko diru guztiaren laurdena eman nion eskuetara neskari.

-Honekin zenbat gau, maite?

-Ba... laurogei bat, zu izateagatik.

-Tira ba, apuntatu. Hementxe geratuko naiz tarte horretan.

Hantxe utzi nuen diru hura. Gainerakoa bes-telako gastuetarako gorde nuen. Lo egin ondoren, iluntzean, ostatu azpiko liburudendan sartu eta liburu mordoska bat erosi nuen. Gauean Bilboko adiskiderik minenak afari on bat eta parranda are hobea egitera gonbidatu nituen. Eta artean ere hurrengo bizpahiru hilabeteetan jaten eta edaten jarraitzeko lain diru geratu zitzaidan. Laurogei egunak pasatu zirenean, diru guztiak bapo xahutuak ordurako, peto jota, Bilbotik aldegin nuen.

# Mugagabe

Elizan, aldare aurreko hilkutxaren barruan, hire gorpua zegonan gaur iluntzean, kirasten hasia. «*Beti-betiko goza dezala zeruetako argi zabala*», kantatu dinagu denok ahots batez kantu itxaropentsu ederra, baina, neuk behintzat, argi zabal horren gozamenarena sinetsi nahi eta sinetsi ezinda. Ezin guk ezer jakin horretaz, ezin guk ezer jakin hitaz. Inkomunikazio mugagabe baten hutsune sakonak izutu nain katabut itxiari begira. Damuak oro alferrikako bihurtzen dituen inkomunikazio eternala, bueltarik gabekoa. Nola esan hiri, nola esan zera, ez zekinat ba, zera...? Nola entzun hik esanak? Zer dion hik? Non da, non entzun liteke hire ahotsa? Non dira heuk izan ezean beste inork ezin esan ziezazkidakeen kontuak? Mingarria izan dun gorpu hil hari auskalo nora ihes egindako arimak neuri bakarrik esateko kontuak zituela pentsatzea, adierazi ezinak dagoeneko, adierazi ezinak betiko.

Ni ez naun zorionerako egina. Betidanik izan zionat halako narda moduko zer ulergaitz bat zo-

rionari, orekan eta egunerokotasunean oinarritu-  
tako zorionari, aldez aurretik finkatutako zorio-  
nari, jakinaren gaineko zorion ezinbestekoari.  
Nire heroiak ez ditun zoriontsuak, ez dinat inoiz  
inor zoriontsurik izan heroitzat, eta nik ezin diti-  
nat neure heroiak zorionaren izenean traiziona-  
tu. Bai, zoriona traizio gisa ulertu izan dinat nik  
beti, txiki-txikitatik. Beti iruditu izan zaidan zorio-  
nak indar guztiak jan egiten dizkiola gizakiari.  
Zoriona txerto lasaigarria dun, eragin hilkor era-  
batekoa duena pertsonaren indar errebeldeeki-  
ko. Gizakiak, nire ustez, errebeldea eta librea  
behar din, hala ditun neure heroi guztiak, edo-  
zertarako prest noiznahi, ezein zorion orekareki-  
ko lotura katerik batere gabekoak, alegia.

Hitz hutsak ditun hauek guztiak, nire heroi  
horiek ere fantasma hutsak diren bezala. Hi be-  
tiko isildu haiz eta ez dinat hire hitzik aditzen,  
baina ezagutzen dinat, bai, hire iritzia. Hitz hu-  
tsak ditun, zentzurik batere ez dutenak, poeta  
amateur gizaixo baten ume kontuak beharbada  
besterik gabe. Baina hitz horiek ditun herenegun  
iluntzean esan ez nizkinanak. Hitz horiek ditun  
nire ezezko isilaren azpian gordetzen ziren arra-

zoiak, betiko arrazoi esplikagaitzak, erridikuluak, baina hala ere, azken-azkenean, nire ezetza eta hire heriotza bultzatu zutenak iluntze horretan.

Orekarik gabeko beste zorion mota batek harapatuta gidatu ninan kotxea hik eskainitako zorionari ezetza eman ondoren, hi nahigabearen noraezean dardarka utzi ondoren, etxeko atarian. Nire heroiekiko atxikimenduaren horditasun zorabiagarriak harapatu nindinan negar eginarazteraino. Libre sentitzen nindunan, ez hondorik eta ez mugarik ezagutzen ez zuen tristura leun baten jabe, eskuak bolanteari eutsita gaua zeharkatzen nuen bitartean. Neure heroiekiko traizio orotatik libre, gauarekin bat egiten zuen izpiritu galdua nindunan, planeta jakinik gabeko untzi hegalaria librea, ostondo osoaren jabe. Galtzaile triste bat, zorionerako ezgauza, derrotarekin aurrez aurre berriro ere, aspaldiko partez.

Autopistan sartu ninan kotxea eta, ahoko soinu malenkoniatsuz jotako kantu tristeak bolumen altuan jarrita, Bilbo aldera jo ninan, probintzia osoa zeharkatzeko batere beldurrik gabe. Elkarrekin ibili eta ezagututako parajeak, bideak

eta herriak zeudenan autopista ertzean, gauaren ilunak estalita. Hire pena saminak eta hire haserre bortitzak ez zidanaten lasaitzen uzten hasieran baina pixkana-pixkanaka ezerezerantz amildu zitunan nire pentsamenduak zalantzazko une garratz batzuen ondoren. Zorionaren azken hondarrak atzean utzita, derrotarekin topo berriro ere, gauaren erdian. Bai, lehen azaldu dinadan moduan, orekarik gabeko beste zorion mota bat zunan hura, benetakoagoa, maiteagoa, neureagoa... Bai, neure-neurea.

Ezetz ninan esan, ezin esan baininan baietz. Nola esango nion bada baietz neure buruaren iraungitze arterainoko ahultzeari? Nola ezarri orekari eusteko beharrezkoak ziratekeen mugak neure buru mugagabe nahiari? Nola eman baiezta muga barnean orekatutako zorionari, jakinaren gaineko zorionari, hasi baino lehen amaitutako, jaio baino lehen hildako zorionari? Ez al huen ulertu ume kontu hauek neure izatearen osagai ezin bananduzkoak direla? Baietz esatea ume ilusionatu bat hiltzea zela, itxaropenik gabeko gizon serio bati bizia emateko?

Orain, nola adierazi hauek guztiak ordea kirasten hasitako hire gorpu umeletik auskalo nora ihes egindako arimari? Ezin dinat sinetsi hire mundua bat-batean amaitua eta ezkutatua denik betiko. Inkomunikazio anker baten hutsune sakona sentitzen dinat, hondorik gabekoa, eternala, bueltarik ez duena. Ezin dinat erantzunik jaso, eta erantzun bat nahi niken, erantzun bat behar niken, ezin baitinat onartu betiko isildu haizenik. Ez dun bidezkoa. Nik ezetz esan eta aldegin ninan, noraezean, baina aukera guztiak zabalik utzita neure ustetan artean ere. Ez ninan uste hurrengo ikusterako hilotz izango hintzenik, galderei erantzuteko gauza ez den hilotz geldi eta mutua. Ez ninan gogoan izan bide horretatik lerra hintekeenik, ez ninan pentsatu ere egin hainbesterainokoa izan zitekeenik hire etsia, hain lodi eta iragangaitza hire isiltasuna, hain latz, gordin eta erabatekoa hire azken erabaki erabakigarria. Non daude hire erantzunak, non daude hire iritziak, hire izaera, hire arima? Nora joan haiz? Hator nigana, maitea!

Inoiz ahaztu ere egingo bide dudan pena mingotsa besterik ez haiz hala ere ni baitan. Al-



ferrik izango zunan bestelakorik sinetsi eta esatea, ahots tragikoz aldarrikatzea. Zaila dun hori hala onartzea baina bazekinat horrela dela. Heuk ere badakin hori. Hire mundua, hire izaera, hire arima, edo horiek guztietatik neuk jaso ahal izan dudana neurekin eramango dinat beti -bihotz barruan lotuta, hitz topikoekin esateko-baina hilda, berezko garapenerako aukerarik gabe, definitua eta bukatua, gero eta lausoago gainera, ahanzturaren erauntsiek gero eta higituago. Gogor egin dinat negar atzo eta gaur, baina zer dira ni bezalako malkozale baten gau pare bateko negarrak hire oraingo ezerez huts paregabe horren aldean? Bizitza honetan gertzen zaizkidan gau guztiak ditinat nik oraindik aurretik, hire oroitzapena -garaikur apaingarri soil bihurturik kasik- gauaren misterioari erantsi ondoren, neure heroi bakartiengandik gero eta gertuago sentitzeko, derrotarekin gero eta estuago lotuta, gaurik gau mugagabeago.

# Poema baten atzetik

## Astelehen arratsaldea

Poema baten atzetik abiatu naiz gaur goizean, eta poema baten atzetik egin dut Frankfurtetik honainoko tarte luzea. Poema baten atzetik nabil, Donostia dotore honetan, itsasoaren ertze-ko hotel batean ostatu hartuta. Ondo sentitzen naiz ezezaguna zaidan hiri honetan. Garbia eta freskoa sentitzen dut hemen neure burua; garbia sentitzen dut neure burua hiri ezezagunek arima garbitzen didatelako beti, freskoa sentitzen dut neure burua hiri honek bere ertzean itsasoa duelako, beti prest hurreratzen zaionari indarberritzen laguntzeko.

Ez nago lan gogorretarako, aspaldian laneko erritmoa galdua baitut, baina hala ere ahaleginak egingo ditut, dudarik gabe, aste honetan zehar, hiri honetara ekarri nauen poemaren bila. Gert Groenendaal poeta holandar ez oso ezagunaren poema zahar bat da bilatzen dudana, nire susmoak okerrak ez badira behintzat Euskal Herrian kaleratzen zen aldizkari zahar eta ezeza-

gun bateko orrien artean galdua eta beste inon ere argitaratu gabea. Iaz amaitu nuen Groenendaalen poetikari eta poesiari buruzko liburu lodi samar bat, oraindik ere argitaratu gabe dagoena. Nire eskuetara kasualitatez heldutako paper baten bidez poema ezezagun horren berri izan nuenean -hil baino pixka bat lehenxeago adiskide bati idatzi zion gutun batean aipatzen zuen, zeharka, Groenendaalek nik oraindik inon aurkitu ez dudan poema ezkutu hori-, bere atzetik abiatu behar nuela erabaki nuen, noski, ezinbestekoa zenez. Akaso neure ikerlanean argitara dezaket oraindik ere poema hori, eranskin moduan; agian Groenendaalen alderdi ezezagun bat erakutsiko dit poemak eta neure liburua berriro errepasatu beharra dut horren ondorioz. Akaso bere poemarik ederrena da bilatzen ari naizen horixe bera; edota, besterik gabe, poema ezagun baten aldakia ere izan liteke, bila ahalegindu arren inon ez aurkitzea ere litekeena den bezalaxe. Kontuak kontu, ordea, ezin ezer jakin bila hasi gabe. Derrigorrezkoa nuen, beraz, hona etorri eta patxadaz ekitea lanari.

Aste osoa hartu dut bilaketari ekiteko. Ba-  
daezpada ere. Eta beharbada gutxitxo ere izan  
liteke, kontuak -honelakoetan ohizkoa denez-  
okertuko balira. Nolanahi ere, egia esan, ez zait  
askorik axola aurkitzen ez badut, edota aurkitu  
ondoren neure aurkikuntza hori hutsaren hurren-  
goa dela konturatzen banaiz ere. Gure lanean  
-niretzat behintzat, ez akaso neure lankiderik  
gehientzat baina- kontua gai bat hartu, itsu-  
itsuan berari estu lotu eta azken muturreraino  
eramatea da, gaia ahitu arte. Kontua ahal den  
guztia egitea da, egin beharreko guztia: behar  
diren iturri guztiak aurkitu, are ezkutuenak ere,  
eta guztietara jo gero, behar diren liburu, aldiz-  
kari eta paper guztiak irakurri, berrirakurri eta  
aztertu, behar diren azterketa formal guztiak  
egin, zuzen-zuzen, behar diren gogoetak egin  
ondorioak ateratzeko, behar diren berrirakurke-  
tak ondorio horiek bermatzeko eta horrelaxe  
segi eta segi azkenera arte; ezin da ezer ere utzi  
egin gabe, ezeren aitzakiaz: ez dago aitzakiarik,  
ez da aitzakiarik ametitzen. Eta kontua, esan be-  
zala, horixe egitea da eta kito, besterik ez. Lan

luze eta serioa, hertsia, zientifikoa. Neronek halaxe ulertzen dut behintzat.

Poema baten atzetik etorri arren hiri honetaino, ez da, beraz, hain poetikoa nire bidaia hau azken finean. Ez naiz etorri familia, lagunak, etxea, ondasunak, neurea nuen dena utzita, etsietsian, bizitza ulertzen edo, besterik gabe, bizi-tzen lagunduko didan poema liluragarri baten bila. Poema galdu bat aurkitu, ehizatu eta hiltzera etorri naiz, aitzitik, aldeztatik bidaia ondo prestatuta, argitaletxe baten eta erakunde kultural baten dirulaguntza eta guzti. Poema objektu hutsa da niretzat, nire ehiza profesionalaren helburua.

Egunen batean, luze baino lehen beharbada, kultur guneren bateko aretoan poema galdu hau aurkeztu ahal izango dut beharbada, bizarra ondo kendu eta korbata jantzita, Groenendaalen belaunaldiko poetei buruzko biltzarrean seguru asko, neu bezalako hainbat literatur kritikari eta aztertzailearen aurrean. Bizarra ondo kenduta eta korbata jantzita, bai, txukun-txukun, dotore irakurriko dut orduan neure hitzaldia, baita aurkezten dudana poema horretan Groenendaal bizarra

kentzearen aurka, korbataren aurka eta jendaurreko dotoretasunaren aurka mintzatzen bada ere. Eta inork ez du kontraesanik batere somatuko nire jarreran.

Egia esan behar bada, nik ez dut sineste handirik egiten dudan lanarekiko, baina egia da, halaber, ezinbestekoa zaidala lan honi lotzea eta, federik gabe bada ere, aldezturik aurretiko etsipenez bada ere, lan honetan, arestian esan bezala, ahal den guztia egitea, ahal den urrutiena iristea eta ahal den sakoneneraino jotzea. Ezin dut ezer espero literatur kritikarengandik, ezta dagoeneko poesia berberarengandik ere, baina zerbait behar du gizakiak bizitzari eusteko, barneko hutsuneak betetzeko, bere burua zuritzeko. Ezerezaren hutsune hutsa, besterik gabe, jasanezina izango zen. Federik gabe bada ere, aldezturik aurretiko etsipenez bada ere, poemak eta poetak ehitatzen eta hiltzen ahalegindu beharra dut neure kontzientzia lasaitzeko. Bizitzak ezer utzi gabe aldegiten didala sentitzen badut ere, ez dadila izan eskatu ez diodalako, ezer aurkitzen ez badut ez dadila izan bilatu ez dudalako. Zeren eta poema guztiei eta poeta guztiei ihes egiten

utziko banie, poema eta poeta bakoitzarekin batera neure hutsuneak betetzeko aukerek egiten didatela ihes sentituko bainuke, izaturik. Poemak eta poetak ehizatu eta hil ondoren, aitzitik, lasaiago sentitzen naiz. Benetako ordainik ez jaso arren, ahal izandako guztia egin duenaren kontzientzia lasaia sentitzen dut behintzat. Eta horregatik jarraitzen dut lan honetan. Lanak etsipena korbatuz jantzi eta itxurazko oreka minimoa gordetzen laguntzen dit.

## Astelehen gaua

Laura du izena. Madrilgoa da. Arkitektoa. Laura. Ondo al hago, Laura? Zer moduz, Laura? Ez da munduko neskarik ederrena baina badu zerbait. Oso ondo egokitzen zaio arraia horizontalekiko kamiseta txuri-urdina. Oso benetakoa dirudi bere irriak. Bere bihotz handiak ihes egiten dio edozer gauza esaten hasi orduko, bera ezertaz ohartu gabe. Laura du izena eta burutik ezin kenduta nabil. Eta bera ere neu burutik ezin kenduta ote dabileneko itxaropena dut gainera, itxaropen inozo samarra izan badaiteke ere. Ho-

teleko tabernan ezagutu dut, kasualitatez, afaltzeko genituen mahaiak bata bestearen ondoan izan ditugulako. Hizketan hasi natzaio aitzakia ergel bat baliatuz -hoteleko zerbitzuen egokitasuna- eta gero -azkarregi beharbada, lotsagabe samarra geratu baita- ea bere mahaietan eseri ote nintekeen galdetu diot. Eta elkarrekin afaldu eta elkar ezagutu dugu. Elkar ezagutu dugu Laurak eta biok. Laurak eta biok.

Nik ez dakit oso ondo zer iritzi aterako ote zuen berak niregandik, baina, ingelesez mintzatu behar izan arren, bion artean lasai eta eroso sortu da solasa eta agurtzeko orduan ez zirudien guztiz naturala ere nork bere gelara joan behar izatea lotara. Neuri behintzat halaxe iruditu zait. Egia da, bai, kontu hauetan ez naizela maisu, baina bazegoen zerbait gu bion artean. Ez dut esango erabateko pasio zororik piztu zaigunik, noski, horrelakorik ezin espero bailiteke honezkerok, ez niregandik behintzat, baina nolabaiteko kidetasuna eta nolabaiteko magia bereziren bat edo bazegoen gu bion artean. Ez dut uste dena neure irudipen interesatua denik soil-soilik.



Nolanahi ere, ezin dut ekidin memelo eta erridikulu samar sentitzea kontu guztiokin. Izan ere, ondo pentsatuz gero, ia derrigorrezkoa bainuen oraintxe maitemintzea, ezinbestekoa orain bizitzen ari naizen egoeran. «Poema baten atzetik abiatu eta neska batekin egin dut topo.» Ez al da polita? Ez dago, ez, gaizki esana. Oso bitxia da kontu hau. Egunerokotasunetik ihes, pozik etorri da nire arima Donostiara, Groenendaalen poema galduaren aitzakiatan. Pozik etorri da nire arima unibertsitateko giro lehorregitik ihes, ezezaguntasunaren araztasun garbia eta itsasoa-aren freskura eskaintzen dizkion hiri eder honetara. Pozik etorri da nire arima langelako liburu mordoan presio itogarritik ihes, estu-estu betetako apal serio, zientifiko eta kopetilunen begiradapetik libre sentitzera, haizearen lagun eta abar, eta abar. Zertara eta poema galdu baten bila gainera, itxuraz behintzat eginkizun ezin poetikoagoa betetzera, denborak jandako poema ezezagun eta misteriotsua ahanzturaren atzapar gupidagabeetatik libratu eta salbatzera. Zer gehiago eska zezakeen nire arimak? Nola senti zitekeen dohatsuago?

Eta jakinekoa da arima dohatsuak, pozez gainezka egiten duen arimak, esker oneko eta eskuzabal sentituz, bere poza barreiatu nahia izaten duela, bere poza beste arimaren baten gainean isuri eta beste arimaren baten barnean txertatu nahia; ez, ordea, edozein arimatan, jakina, gorputz eder eta desiragarri batek gordetakoan baizik. Ez bide dago neu orain bizitzen ari naizena baino egoera aproposagorik maitemintzeko. Beraz, ez da Laura izan maitemindu naue-na. Laura egoeraren morroi eta laguntzaile besterik ez da izan lan horretan.

Ume batena balitz bezalaxe maitemindu zait arima, bihotza. Baina -tamalez?- neure buruak argitasun osoz ikusten eta ulertzen du guztia, maitemindu den arima hori berarekin -neure baitan- bizi dena izan barik beste baten arima arrotza bailitzen, inoren baitakoa. Eta ilusio denak hondatzen dizkio arimari jokaera -anker?- horrekin. Zaharregia bide naiz, eta, batez ere, arrazionaleria behar bezala maitemintzeko.

Astearte iluntzea

Donostiako bi liburutegi nagusiak goitik behera arakatu ditut atzo eta gaur, Udalarena eta Foru Aldundiarena, eta ziurtasun osoz esan dezaket Gert Groenendaalen poema galdu hori ez dagoela hiri honetan. Uste dut badakidala zein aldizkaritan argitaratu bide zuten poema, baina badirudi aldizkari horren zenbaki batzuk ez direla inoiz iritsi Donostiako liburutegietara. Bihar, goizean goiz, Iruñerako autobusa hartuko dut, litekeena baita han aurkitzea azkenik bilatzen dudana poema bere baitan gordetzen duen zenbakiaren aleren bat gutxienez. Hala ere ez dut honezkero hotel hau utziko, gustora bainago hemen. Iluntzeko autobusean itzul naiteke Iruñetik Donostiara, ordubete pasako bidea bada ere. Eroapena behar da batzuetan lan honetan, eta ez nolana hiko. Baina pixka bat pentsatuz gero, askorik ere ez zait axola. Ilusioa eta dena sentitzen dut bihar autobuseko leihatilatik zehar Donostia eta Iruñea bitarteko paraje niretzat berri eta ezezagunei begira joango naizela pentsatuta. Poema baten atzetik, ahal den guztia egiten poema baten bila, poeta bati buruzko azterketa azkenera arte eraman eta burutu nahian, bizitza-

ri nolabaiteko erantzuna eman nahian azken finean.

Lehen, aitzitik, aspaldiko garai ahaztuetan, bizitzari erantzuteko modua ez zen niretzat inoren poemen atzetik ibiltzea. Orduan neuk idazten nituen poemak, neure baitako mundua kanporatzeko premia bihotzetikakoak eraginda, etsi-etsian, bene-benetan, estu-estu, inkomunikazio bortitz baten bakardade zikoitzari irteera ematearren. Orduan bai, orduan poesia beste kontu bat zen niretzat, mundu berria, gaztea, indartsua, bizia, bai, bizi-bizia. Gaur egun, oster, guztiz hila dago mundu hura.

Arian-arian lasaitu egin zitzaizkidan neraberoan eta gaztaro atzeratuan bizi izandako ezin-negon barnekoi zirraragarri haiek. Pixkana-pixkanaka ikasi egin nuen gizartean, gutxi gorabehera bada ere, behar bezala -zuzen, burubidez-bizitzen, galdu egin nituen beldurrik oinarrizkoenak, ulertu egin nituen gizarteko elkarbizitzaren legeak, eta baita lege horiek arazo handirik gabe hautsi ahal izateko hainbat trikimaina ikasi ere. Eta horrela ahitu egin zitzaidan gizarteari nion erraietatikako gorroto bortitz oldarkor geldiezin

hura. Eta prozesu horrekin batera, ni baitako premia komunikatibo bizi eta gazte hark etsi-etsian sortu eta oihukatutako poesiak ere isiltze-  
ra jo zuen, neu ia-ia konturatu gabe.

«*Ene poesia ez da munduaren kontrako kolpean isurtzen zaidan odola baino*», idatzi nuen behin, poeta gazte eta bizi izan nintzeneko garai urrun eta ahaztu hartan. Baina munduaren aurkako kolpe hori leundu egin zuen denboraren iragat-  
teak etengabeko prozesu mantsoan, harik eta odol isurketa amaitu zen arte. Harrezkero beste-  
ren odol arrasto lehortu eta gogortuei errepara-  
ka hasi nintzen, odolarekiko zaletasun bitxi hori arimari estu atxikia nuenez. Eta horretan nabil oraindik ere, noski, lehengo bizitasunera itzul-  
tzeko ezgauza. Baina oraingo hau ez dago lehen-  
gokoarekin alderatzerik ere. Inoren odol arrasto lehor gogortuen ikusmenak, azterketak eta erka-  
ketak hutsaren hurrengoa dira norberaren odol isuri berriaren freskotasuna bizi-bizi sentitzearen aldean.

Alferrik da ordea. Daukadan apurrari eustea beste erremediorik ez dut. Bihar, beraz, Groe-  
nendaalen poema galduaren bila joko dut Iruñe-

ra. Eta gustora gainera, pozik horrenbestean. Zergatik ez bada?

## Astearte gaua

Gaur ere elkarrekin afaldu dugu Laurak eta biok eta badirudi, inork ezer esan gabe, ohitura hartu dugula. Hala ere ez gara elkarrekin oheratu. Motza izan naiz ni beti kontu hauetarako. Baina ez dut kezkatu behar hala ere, horixe baita garrantzitsuena: ez kezkatzea. Kezkatzeak ez dakar inoiz ondorio onik honelako kontuetan. Agian ederragoa da gainera imajinatze hutsa berez benetan gertatzea baino. Agian benetan gertatzeak imajinatutakoaren xarma hondatu besterik ez luke egingo.

Ez al dun nahi, Laura, nire gelara etorri? Gustatuko litzaidaken biok elkarri samurtasunez begiratzea, irribarrez, kontu arruntei buruz hitz egingen dugun bitartean, geure lanak, geure hiriak, azken autobusen ordutegiak... Eta bizitzaz ere hitz egingo geniken oro har, tristura kontrolatu batez, bizitzan aurrera doazenei ondo egokitze-ko moduko etsipen gozo batez, filme bateko per-

tsonaiak bagina bezala. Hik arropak erantzi bi-tartean begira geratuko nintzainake, erabateko hurkotasun zintzoaren eskaintza atseginkoi horren indarrez neure arimari luzaren luzaz atxikitako bakardadea desitsasten hasten dela sentituz, barneko bizipoz alai batek urratua bezala. Laztandu eta besarkatu egingo hinduket, neure bizia eskainiko ninake pozaren pozez minutu azkar eta gozo batzuetan eta, ondoren, zigarro bat eta asetasunezko irribarrea... Poema bat irakurri, aztertu eta berrirakurtzea bezalaxe izango zunan. Hainbeste eta hain gutxi. Dena eta bate-re ez. Bizitzea bezalaxe, bizitza bera bezalaxe.

Poema baten atzetik abiatu eta neska batekin egin dut, beraz, topo, eta beharbada antzeko kontuak izan daitezke biak. Malenkonia. Malenkonia barreiatzen da ooren gainetik...

## Asteazken gaua

Iluntzeko autobusean Iruñetik Donostiara etortzean triste samar sentitu naiz, ez dakit zergatik. Garaiz iritsi naizen arren, ez dut Laura ikusi nahi izan. Bakarrik geratu naiz, bakardadea

izan dut nahiago. Ez nintzen inorekin harremantetan hasteko prest sentitzen. Ez nuen nahasketarik nahi, kezkarik, buruhausterik. Lasaitasuna behar nuen. Zaila da hau hitzez azaltzea.

Kontua da behintzat gaur ez dudala Laurarekin afaldu nahi izan. Nahiago izan dut neure gosea hirian zehar paseatzera ateratzea. Azkenean taberna batean otamen bat ahoratu dut. Boligrafoa atera eta neure burua zuritu dut paperezko mahaizapi txikia tintaz belztuz:

*Bizitza ukitu ere egin gabe. Garrantzitsuenari inori kalterik ez egitea da, kalterik txikiena ere ez inori, ezerk ez baitu merezi horrenbestearaino iristea, ezerk ere ezin izan baitezake hainbestearainoko axolarik.*

*Horregatik komeni da jendearekin igurtzialdi ugariarik edo handiegirik ez izatea. Horregatik komeni da hurkoa ukitu ere egin gabe iragatea haren ondotik, mesede txiki eta garbiak egiteko ez bada, duda izpirik gabekoak.*

*Soilik horrela bizi liteke zalantzarik gabe, kezkarik gabe, lasai, bizitza bere-berean*



*sentitzeko behar den lasaitasun gardenez. Hurkoarekiko harremanetan hasi orduko bizitza lausotu eta ezkutatu egiten baitzaigu berehala oharkabean, ezinbestean.*

## Ostegun gaua

Iruñean izan naiz gaur ere eta ez dut poema aurkitu. Uste baino zailagoa ari zait gertatzen lana. Bihar aurkituko ote dudan badut itxaropenik hala ere. Poemaren gain-gainean sentitzen naiz, ehizia gertu, eskuera duen ehiztariaren antzera. Eta bihar aurkituko ez banu ere, gaur poema bilatzeko beste toki baten berri jakin ahal izan dut: Iruñean bertan aurkitzen ez badut, Espainiak Frantziarekin duen mugaz bestaldean baina, hala ere, Euskal Herrian bertan dagoen monasterio bateko liburutegian aurkitu ahal izango dudala uste dut, Beloken, ezeren okerrik ez bada behintzat.

Ezin naiz behar bezala poztu hala ere, ordea, hiri honetara, hotel honetara erakarri nauen lanaren amaiera gertu susmatuta. Triste sentitzen naiz gaur, ume bat bezala, Laura ikusi ez dudu-

lako. Gezurra dirudi baina halaxe da. Ez diot neure buruari barkatzen atzoko bihozgogorkeria anker hura. Ez nuen besterik merezi, argi dago neu naizela errudun bakarra. Atzo neu izan nintzen, Laurarekin -neure ustez behintzat- egina nuen hitzik gabeko itun isilari kasurik egin gabe, hoteleko jantokian afaldu barik kanpoan ibili zena. Gaur, berriz, afaltzera jaitsi, pozik neure artean Laurarekin afalduko nuela pentsatuta, eta bera izan da agertu ez dena. Neure erruz, era benetan tamalgarrian, bi egun osorik galdu ditugu dagoeneko. Eta hori asko da benetan, gehiegi, guk bezala bost egun besterik ez ditugunontzat. Orain biharko eguna baino ez dugu, eta ez dakit gainera Laurak jokoan parte hartzerik nahi izango ote duen ere.

Baina parte hartzen badu, bihar elkarrekin afaltzeko aukera badugu, ez dut gehiago atzera egingo. Ez dut Laura ezagutu gabe, Laurarekin oheratu gabe etxeratu nahi. Biluzik ikusi nahi haut, Laura, biluzik neure ondoan, eta estu-estu lotu behar gaitun biok, eta gero hire burua neure bular gainean etzanda ikusi nahi dinat, gau bat nahi dinat, Laura, gau bat gutxienez bakardade

sentimendu beldurgarri hau uxatzeko. Barkatu, Laura, damututa negon. Aukera bakarra dinagu eta ezin dinagu alferrik galdu.

Gau honetako bakardade ilunean madarikatu egiten dut neure harrokeria. Madarikatu egiten dut neure arima umemoko batena balitz bezala isilarazten duen neure buru hotzaren jakinduria lehorra. Madarikatu egiten dut neure burua, hain inozoa, hain kirtena eta hain erridikulua izateagatik. Eta ia-ia negarrez hasten naiz, negarrez, bai, nor eta ni negarrez, oraindik horrelakorik!

## Ostegun gaua (II)

Ez nabil oso zuzen, ordea, hainbeste madarikazio ergelekin. Ez nuke Lauraren kontu hau aitzakiatzat hartu behar, ez bailitzateke zeharo zuzena ere. Bakardade sentimendu latz batean amilduarazi nau beharbada gaurko bere ausentzia mingarri horrek, hori egia da, baina, tira, hala ere ez da hori benetan, funtsean, bakardadea sentiarazten didana, berez bakardadea barne-barnean gordeta dudan ezinbesteko izaera baita, errai-erraietakoa, muin-muinekoa,

neure-neurea eta erauziezina, ezein Laurak inola ere ezin bentzutuko lukeena. Inola ere ez.

## Ostegun gaua (III)

Gaueko ordu bata da. Bihar goizeko sei t'erdietan esnatu behar dut, Iruñerako lehen autobusa hartzeko, eta hala ere ezin loak hartu. Idazten hasten naiz, ea lasaitzen eta loguratzen naizen. Besterik ez bada ere, une ilun hauen arrastoa utziko dut paperean, agian egun pozgarriagoren batean lasai erreparatzeko.

Gert Groenendaal gizaixoa datorkit orain burura. Hark ere honelako hamaika gau gaizto pasata aldegin zuen mundutik, bere antologia poetikoaren hitzaurrean aitortzen duenez. Eta horrelako larrialdietan, maiz, bere burua kontsolatzeko idatzi egiten omen zuen. Agian bihar azkenik aurkituko bide dudan zorioneko poema galdua ere horrela idatzia da. Eta agian neuretzat ere kontsolagarri liteke orain poema hori, huts-hutsean, alderdi akademiko eta eruditu guztiak alde batera utzita, poema biluzik alegia, larrugorritan. Zeren eta, agian, bilatzen dudan poema

hori ere bakardadeaz mintza baitaiteke, noski, ez litzateke harritzekoa, ugariak baitira Groenendaalek -eta beste poeta askok eta askok- bakardadeaz idatzitako poemak.

Baina ez, nekez kontsola nazake ni poema batek honezkero. Lehen, aspaldi, oso aspaldi jada, horrelako poemekin neure bakardade sentimendua uxatu edo goxatu ahal izango ote nueneko itxaropena gordetzen nuen. Orain, ordea, hainbeste eta hainbeste poema irakurri eta aztertu ondoren, bakardadeari buruzkoak, gorrotari buruzkoak, heriotzari buruzkoak, suizidioari buruzkoak, edozein gai iluni buruzkoak (etsipenaren adierazle agorrik gabekoa baita literatura), orain, aspaldidanik, ez dut horrelakorik izaten buruan. Orain badakit poemaren kontsolamendua une bateko irudikeria hutsala besterik ezin daitekeela izan. Orain badakit poesiak ez duela ezer konpontzen eta alfer-alferrikakoa dela.

Niretzat poesia hilda dago jada, aspaldidanik gainera. Hilda daude poema guztiak, poetika guztiak, poeta guztiak. Fosil gisa baino ez ditzaiket maita. Bizio nekrofilo xelege batek nauka

harrapatua. Eta beharbada beste ezer maitatze-ko gauza izan ez naizelako dut gaitz hori, nekrofilia patologiko hori, poesia hil zitzaidanean ordezkorik aurkitu ez nuelako, bilatu ere ez nuelako egin apika, maitea ahaztera ezin etsi duen alargun baten moduan, gazte-gaztea izan arren artean.

Baina, tira, aski da, utz ditzadan kontu ilun guztiok. Lo egin beharra dut, lo egin beharra bihar goiz eta kementsu esnatzeko. Lo egin beharra. Lo, lo, lo.

## Ostegun gaua (IV)

Bakarrik, bakarrik, bakar-bakar-bakarrik.

## Ostiral eguerdia

Azkenean ere aurkitu dut Groenendaalen poema galdua, Iruñean bertan gainera, beste inora jo beharrik izan gabe. Ez da apartekoa, ez da Groenendaalen onenetakoa eta ezta hurrik eman ere, baina bilatu beharra nuen eta aurkitu dut, eskuetan dut ondo eutsia eta ez dit ihesik

egingo. Berez ia-ia hobe gainera poema aparte-koa ez izatea, hartara ez baitut Groenendaalen poetikari eta poesiari buruzko liburuan aldaketarik egin beharrik. Eranskin moduan argitaratu poema hau, iturriak aipatuz, eta kito. Agian iruzkin labur bat poema Groenendaalen poetikarekin lotzeko -ordu erdi eskaseko lana-, baina horrezaz landa besterik ezer ere ez. Agian, beste ikuspuntu batetik begiraturaz gero, interesgarriago izan zitekeen beste era bateko poema aurkitzea, Groenendaali buruz dakiguna hankaz gora iraultzeko modukoa edo, beste Groenendaal bat erakutsiko ligukeena, baina, bestalde, Groenendaali buruzko lana betiko burututzat eman ahal izateak ere pozez betetzen nau. Alferrik litzateke hori ukatzea.

Libre naiz, beraz, bete dut nire eginbeharra. Orain Iruñean bertan geratuko naiz bazkaltzen, eta arratsaldea hirian zehar osteratxo lasai bat egiteko baliatuko dut, gauean Donostiara itzuli aurretik. Eta han, hotelean, akaso, Laurarekin afalduko dut. Bai, seguru. Pozik sentitzen naiz, kementsu, indarberrituta. Gaztetuta. Badakit poz hau uneari dagokion irudikeria besterik ez

dela baina, tira, ez dezagun une hau alferrik gal-  
tzen utzi, laburra dela jakinagatik ere.

## Ostiral iluntzea

Iruñean aurretik behin baino gehiagotan izana naizen arren, inoiz ez dut izan gaur arratsaldera arte hiria pixka bat badarik ere ezagutzeko aukerarik. Etorri izan naizenetan beti biltzarren batean edo udako ikastaroetan parte hartzera etorri izan naiz eta aisi tarte laburretan lankideekin ibili behar izan dut, nonnahi eta noiznahi sortzen diren orojakile horietakoren baten menpe beti. Gaur, aitzitik, hiri osoa neurea izan dut arratsalde batez eta neure erara paseatu ahal izan dut kale ezezagunetan zehar, noraezean, ikusle soil gisa, «*bizitza ukitu ere egin gabe*», neuri gustatzen zaidan bezala.

Iruñeko erdigunetik abiatuta, kanpoaldeko auzune bateraino heldu naiz oinez, pausoz pauso, hiriak bataren atzetik bestea eskaintzen zizkidan koadroak ikuskizun gisa hartuz.

Horietako bat izan da batipat aipagarria, bixia eta zirrargarria iruditu zaidalako. Jende



gutxi zebilen kale batean berrogei urte inguruko emakumea ikusi dut zortzi-hamar urteko mutil koxkor bati errietan. Mutil koxkorak dirua biltzeko boltsa zuen ezkerreko eskuan eta, erdi negarez, eskuineko eskuarekin galtzetako poltsikoetatik dirua atera eta boltsan sartzen ari zen. Boltsak Domundek munduko gosearen aurka antolatutako kanpainaren anagrama zuen josia. Paretik pasatzerakoan emakumeak mutikoari zera galdetzen zion, ea ez al zuen lotsarik, ea ez al zekien hori oso bekatu handia zela, ea ez al zuen infernura joateko beldurrik.

Benetan errukarria iruditu zait mutil koxkor gizaixoaren egoera. Munduko gosearen aurka eskean jardun eta dirua beretzat hartzen harra-patua, isiltzeko asmorik ez zuen emakume aspergaitz haren menpe, erruduntasun sentimendu ikaragarri batek azpiratua seguru asko eta oso defentsa gutxirekin hain salakuntza gogor eta zatarren aurrean.

Bidean aurrera segitu dut saltsa hartan sartu gabe. Aurreraxeago, ordea, beste mutil koxkor bat ikusi dut, aurrekoarena bezalako boltsa bat eskuan zuena, espaloi ondoan aparkatutako

kotxe baten atzean ezkutatua. Ni bere paretik pasatu ondoren, korrika irten da bere gordeleku-tik, baina hankak ezin zituen oso ondo mugitu galtzetako poltsikoak zarata ateratzen zuten txanpenez beteak zituelako. Hala ere emakumeak ikusi gabe aldameneko kaleraino iristea lortu du beste lapur txiki honek. Neu izan naiz ikusi duen bakarra, bera begira geratu natzaiola konturatu ez bada ere.

Zirrara berezia sentiarazi dit lapur txikiaren ihes traketsa ikusteak, eta neu lekuko bakarra izateak areagotu egin du ikuskizunaren eragina. Bizitza «ukitu» egin nezakeen, parte har nezakeen, neure esku izan baitut mutikoa harrapatu eta dirua gosearen aurkako kanpainaren ardura-dunei itzularaztea. Baina ez, noski, nik ez dut bizitza «ukitu», nik ezin dut bizitzan parte hartu. Nor naiz ni bizitzan parte hartzeko? Nor naiz ni ume koxkor hori epaitzeko? Ez ote da gainera probetxugarriagoa harrapatutako diru apur hori lapurraren poltsikoan kanpainaren kontu korrontean baino? Nola jakin salakuntzak lapur txikiarengan sor zezakeen trauma noraino iritsi ote zitekeen? Nola jakin salakuntzak gosearen aurka-

ko kanpainari berari ere ez ote ziezaiokeen kalterik egin, ez dakit nik zer dela eta? Nola jakin mesede baino kalte handiagoa ez nuela egingo? Zeren izenean egin, bestalde, inori kalterik txikiena, beste inoren mesederako izanagatik ere?

Horregatik gustatzen zait hainbeste hiriko kaletan zehar paseatzea, areago gainera hiri ezezagunetan, noraezean, zereginik gabe, ikusle soil. Neure burua ezagutzen laguntzen didalako, paseo horiek neure bizimoduaren metafora bihurtzen direlako.

Baina aski da, ez dut orain horretaz idazten jarraitzeko astirik. Laurarekin afaldu behar dut gaur, ahal baldin bada behintzat. Hotelean afalduko ote du gaur? Eguerdian normalagoa ikusten nuen Laurarekikoa orain baino, naturala iruditzen zitzaidan, bion arteko amodioa berez sorzitekeela pentsatzen nuen, sentitzen nuen. Paseo honen ondoren zalantzatan naiz, ordea, berriro, eta urduri sentitzen ere hasia. Baina banoa hala ere. Akaso Laura ikustea nahikoa izango dut zalantza guztiak gainditzeko. Tira bada, aurrera ekin behar diogu, beldurrik gabe. Agian hobe, alabaina, gaur ere ikusten ez badut.

## Larunbat eguerdia

Frankfurtera itzuli behar dut gaur, gauean Nazioarteko Liburu Azokako antolatzaileekin afaltzekoa bainaiz, datorren urtekoaren nondik-norakoak eztabaidatzen hasteko. Agur esan behar diot, beraz, Donostiako hiri eder honi. Ezin esan daiteke alferrik pasatu dudanik astea hemen. Atzo goizean Groenendaalen poema aurkitu nuen eta bart gauean Laurarekin oheratu nintzen. Oheratu eta larrua jo ere bai, nahi bezala ez baina. Behin bakarrik jo genuen larrua eta gero, ahaleginak egin arren, ez zitzaidan gehiago zakila zutitu; eta aldi bakar hori ere ez zen oso apartekoa izan, Laura ohartu orduko amaitua baitzen jolasa. Ederki beraz. Hasiera-hasieratik egon nintzen gaizki, trakets, moldagaitz; azkenean, ezertarako gauza ez nintzela amaitu nuen. Horrelaxe beharko zuen. Ezin izan nuen atzo Iruñeko kaleetan zehar paseoan atxiki zitzaidan malenkonia gainditu, horretarako Lauraren goxotasun emea akuilu ezin hobea izan bazi-

tekeen ere. Inorekin bat egiteko ezintasuna. Alferrik denean alferrik da eta kito.

Baina ez zait axola, egia esan behar bada. Ezer ez zaidala axola sentitzen dut. Arratsaldea poesia irakurtzen pasatu nahi dut, apunteak hartuz. Egile berri bati ekiteko gogoia datorkidala sentitzen dut, lanari hortzak tinkatzeko gogoia berriz ere, poliki-poliki. Beste poeta ezezagun samar bat eraitsiko dut laster, Groenendaal eraitsi berri dudan bezalaxe.

Laura, azkenean, oroitzapen hutsa izango da, oroitzapen gazigozoa, oroitzapen gazigozo bat gehiago, bizitzaren ertzak finkatzen dituzten mugarrietan bat gehiago. Neuk mugaz kanpoko aldean jarraitzen dut, jakina, bizitzatik kanpo. Badakit. Eta zer? Bakardade hau, ezintasun hau neure osagai bananduezinezkoak dira, errai-erraietan txertatutakoak. Eta dohakabe urrikalgarri hau, txorimalo hau, giza antzeko ezdeus hau neu naiz ezinbestean, Joss Vington, Lis Musser idazleak oraindik orain honela definitu duen berbera: *«entzute handiko kritikari eta teorilari literarioa, buru argiko eta bihotz zabaleko gizo-*

na». Zenbat barne miseria ezkuta daitezkeen ongi jantzitako korbata dotore baten atzean!

Poesia, maitasuna, bizitza. Poema bat gehiago, maitale bat gehiago, hiri bat gehiago. Eta etxera berriz atzera, aldaketa handirik gabe. Donostian erositako korbata berri bat ere badaramat maletan, beste korbata bat, korbata bat gehiago, dotore askoa.

# Begi berrien bila

Tolosa, uztailak 13

Kaixo, Asier:

Mendi buelta ederra egin diat gaur arratsaldean, goiz bazkaldu ondoren. Lasai ibili nauk baina, ttipi-ttapa, kilometro mordo galanta egin diat azkenean. Ilunduta zegoan etxeratu naizenerako. Aspaldian ikusi gabeko parajeetan zehar ibili nauk, niretzat oroitzapenez beteak diren paraje bakartietan zehar, erreka zulo estuetan txertatua batean, bista zabaleko muino batera igota hurrengo. Ederrak dituk jaioterriko etxearen inguruko paraje horiek, ederrak eta kutunak zaizkidak neuri behintzat. Etxetik ordu t'erdi ingurura, Aldaban, basiliza txiki polita zegok, oso bitxia eta oso ezezaguna, aldarearen atzean, Kristoren edo Amabirjinaren irudiaren ordez, kristalezko leiho handi, zabal eta gardena duena, atzean ageri diren Aralarko mendien ikuspegi zoragarria eskaintzeko, Txindoki buru dutela. Baina basiliza magiko horretatik Santa Marinara igo eta ondoren Berostegiko bidera jai-

tsita, harrobi zuriaren ondoan dagoen zabor-sulabea pilatutako zakarrei begira ere ez nauk gutxi hunkitu. Berogailu zaharkitu bat zegoan, eta trizikloa, era askotako elektratresna herdoil-duak, goardasol hautsiak, josteko makina zaharra... Eta panpina handi zatar bat ere bai, guztiz umeldua, hilotza zirudiena.

Gustora ibili nauk, bai, batetik bestera, bazter ezkutu eta ahaztuei begira, mundu berri bat ageriko balitzait bezala. Bakardade sakon baten jabe sentitu nauk, bizipoz eta bizi-indar osasungarri baten jabe, neure buruaren jabe behar bada. Ez zekiat oso ondo zer esan nahi duen horrek baina gaur halaxe sentitzen naizela iruditzen zaidak behintzat, neure buruaren jabe, neure gorputzaren jabe, neure denboraren jabe, neure eginbeharren jabe, neure bizitzaren jabe, neure izatearen jabe. Halaxe sentitzen nauk gaur eta halaxe ari nauk sentitzen azken bolada gozo honetan.

Ondo nebilek, beraz, ez kezkatu niregatik. Lasai bizi nauk, oraingoz behintzat. Eta zuek zer moduz zabilzate Saint Lary alde horretan? Nahiko gogor zegok kontua, ezta? Zail samarra izan-



go duk etaparen bat irabaztea, baina borrokatu beharra zegok. Onena opa nahi dizuet hemendik, merezi duzue eta. Egunkariak irakurrita jakiten diat hemendik zuen abenturen berri, tarteka behintzat, eta telebistari begira ere bai aukera onik egokitzen bada. Tourmalet gainera igotzen ikusi hintudan herenegun, esate baterako. Oso txirrindulari dotorea haiz, Asier, benetan, eta, telebista ikusten ari nintzela, harro sentitu ninduan hire taldekide izana nintzelako eta hire adiskide naizelako. Azkenean harrapatu egin hinduten baina hor geratu zuan hire ahaleginaren arrastoa: indarra, erritmoa, estiloa, dotorezia... Hire inguruan bildutako zaletu guztiekin bat egin eta hiri animuak emateko gogo bizia sentitu nian telebistari begira.

Baina ez nauk hasi gutun hau idazten hiri animuak emateko, jakina, eskuan izaten duanerako Tourra ongi amaitua izango baita, izan ere. Berez ez diat motibo zehatzik gutun hau idazteko, gutun honek ez dik helburu jakinik, oraingoz behintzat, idazten hasi berri naizela. Hiri idazten hasteko gogoia sentitu diat, zuei guztioi mintzatzeko gogoia, taldekide guztiontzako baita, azken

finean, gutun hau. Oso gogoan zaituztet, asko oroitzen nauk zuekin, hasieran uste nuen baino askoz gehiago, eta kezkatu egiten naik niri buruzko okerreko iritzirik ez ote duzuen izango pentsatzeak. Eta idazten hasi nauk, astia dudalako eta beharra sentitu dudalako; eta gogoa dudalako, beti gogoko ditudan gauzak egiten saiatzen ari bainaiz azken aldi honetan, gogoz kontrakorik ezer ere ez.

Ondo sentitzen nauk, Asier. Ez dakik zer eder den bizarra gorputz osoan zehar hazten uztea, batere ardurarik gabe, basati eta oldarkor, bizi eta libre. Ohetik jaikitzen naizenean, zango bizartsuei begira poztu egiten nauk. Muturra garbitzerakoan, berriz, ispilu aurrean, aurpegia estali nahi didan bizar lodiarri begiratzen zioat irribarrez, «hazi hadi, motel» esanez bezala, «hazi hadi libre nahi duan adina». Eta zintzo eta eskuzabal sentitzen nauk horrelako pentsamendu inozoekin.

Ez dituk hala ere hain inozoak pentsamendu horiek, Asier, ondo aztertzen badira. Bizarrarekiko bezala, aurrean suertatzen zaidan guztiarekiko sentitzen bainaiz zintzo eta eskuzabal, lehen

ez bezala. Bai, bizitzeko beste era bat duk hau, eta pozik negok egin nuen aukerarekin, ez negok batere damututa. Aitortu behar diat sentitu izan dudala inoiz zirrara berezi bat, oroimin garratz bat, gogoahuldu eta gogor tristarazi izan naue-na. Aitortu behar diat orain ere batzuetan okerreko erabakia hartu ote nueneko errezeloak goibeltzen eta urduritzen nauela, loa galarazten, tri-pak jaten... Bazekiat, ordea, edozein bizimodu aukeratuta ere, edozein modutara bizita ere, tartekako zalantza eta tripa-jate horiek ezinbestekoak direla, derrigorrez pasatu beharrekoak, geure izaeraren muin-muinean daudenez gero.

Ez baitakigu non dagoen bizitza, horixe duk kontua. Ez zekiagu nondik joaten zaigun, nondik egiten digun ospa. Alderdi batetik eusten hasi orduko beste batetik ihesi sentitzen diagu. Bizitzeko era bat aukeratu eta geure egiten hastea aski duk bizitzeko beste modu batzuen bekaitza edo oroimina izateko, aukeratu duguna, geure egin duguna, bizitzen hasi garena gutxietsita, bizitza alferrik galtzen ari garela iritzita, zulo beltz handi batean sartu eta irten ezinik gaudela sine-tsita.

Eta garaipena ere, esate baterako, ospea eta fama eskuratu eta irabaztea, bizitzaren ihesa galarazten saiatzeko modu bat besterik ez duk, hasiera batean -kanpotik erakusten duen lilura distiratsua dela eta- erabatekoa dirudiena, behin betikoa. Baina apur bat ezagutzen hasi orduko jabetzen gaituk garaipena deitzen den hori ere ez dela aski bizitzari behar bezala eusteko eta, aitzitik, okerrago, garaipenaren bidea hautatzeak zulo zabal eta erosoak zabaltzen dizkiola bizitzaren ihes etengabeari.

Heuk ere ikus dezakek hori, garbi askorik ikusi ere gainera, ez al da hala, Asier? Har ditza-gun garaipenaren adibiderik garbienak: Indurain, Rominger, Berzin, Pantani, Chiappucci, Bugno, Ugrumov, De las Cuevas... Munduko txirrindularirik onenak, dudarik gabe. Ospetsuak, aberatsak, protagonista beti, tropel osoak begiratzen ditik bekaitzez. Garaipenaren bizioak zeuzkak harrapatuta horiek, eta bizitza ukitu gabe ari dituk iragaten eta iraungitzen gaztaro osoa, bizitza zer denik batere jabetu gabe. Eta zenbat eta txirrindulari hobekak izan orduan eta okerrago, gainera. Ez al da hala, Asier? Horiek ez

zekiate zein ederra den ohetik jaiki eta zangoetan ilea hazten ari zaiela ikustea, ispilu aurrean begiratu eta bizarra dutela, erlojua begiratu eta egun osoa norberaren eskuetan dagoela, etxe osoa, herri osoa, herri inguruko mendi guztiak, itsasorainoko bidea, euria egiten duenean ater-bea, gerizpea eguzki berotan...

Garaipenaren poz faltsuak deitzen ziek horiei, eta heuri ere bai oraindik, zuei guztioi alegia, tropel profesional oso-osuari, eta baita amateurrari ere. Poz faltsua duk hori, bai, neure uste apal baina ziur eta sendo samarrean behintzat, gizaki mendebaldarraren konbentzioetan duela-ko bere oinarri bakarra, ez beste ezertan. Gehiegikeriak al dira esaten ditudanak? Benetan sinesten al duk gehiegikeriak direla?

Bizio bat gehiago duk garaipenarena, bere neurrian bizipoza eman diezagukeena eta alai-garri eta lagungarri gertatu. Baina, bizio guztiak bezala, kaltegarria duk neurriz kanpo, eta txirringulari profesionalok neurria ondo pasatua duzue bizio horretan, derrigorrez, bestela ezin iraungo baitzenukete denboraldiaren laurdena ere bizi-kleta gainean, euri eta eguzki, aldapa gora eta

aldapa beheara, ihesean batzuetan, ihesitakoak harrapatzeko borrokan bestetan. Zertarako hainbeste ahalegin eta oinaze hutsal eta antzu, alfer-alferrikako?

Txirrindularitza oso gustukoa izan diat beti, heuk ere badakik hori, Asier. Neu ere ondo harrapatu izan naik bizioak. Eta gaurko mendi bueltan ere, nahiz eta oinez ibili, bizikleta gainean nindoala imajinatzen nian behin eta berriz, multiplikazioa kalkulaten nian aldaparen arabera, bihurguneari nondik eta nola ekin pentsatu, esprint estua imajinatu... Baina konturatzen al haiz zer den benetan txirrindularitza, Asier? Zer den kirola gaur egun? Gure gaurko gizartearen isla eta metafora ezin garbiagoa duk, garaipenari begira egindako mundu baten metafora, ospearen eta diruaren bila antolatutako lehia estu eta hilgarriaren metafora. Mundu gaizto baten metafora gaiztoa. Txirrindularitza propaganda hutsa duk, ez bakarrik elastikoan, kuloteetan, txapelean, bizikletan, eskularruetan, are galtzerdi eta zapatiletan ere iragartzen dituzuen produktu, erakunde, talde eta abarren propaganda, ez bakarrik helmuga inguruetan, tartekako helmuge-

tan, mendate gaintan, irteeretan eta abarretan ezarritako pankartek eta txaplatek egiten duten propaganda, ez bakarrik irrati eta telebista kateek karreraren berri eman bitartean okatzen duten propaganda, baizik eta batez ere propaganda bera, norgehiagoka itsua eta diruaren nagusitasuna aldarrikatzen dituen mundu eznatural eta anker baten propaganda, indar guztiak edo itxura faltsua eskaintzeko lanean alferrik galtzen eta hutsalkeari antzuenara bideratzen dituen mundu gizajale baten propaganda. Oker al nabil, Asier? Esaidak, Asier, zuzen nazak oker banabil.

Mundu horretan lepotik goraino murgildua nengoan neu ere, noski, lehenengo urteetan. Pentsatu eta konturatu egiten ninduan, bai, non sartuta nengoen, zer zen egunero inguruan bizituen guzti hura, baina garaipenaren lilurak itsutu egiten nindian. Jakin egin nahi nian zer sentitzen zen helmugara lehenengo iritsi eta eskuak altxatzean, kazetariak atzetik galdezka izatean, begi guztiak neroni begira eta dirua barra-barra... Garaipena ezagutu nahi nian eta prest ninduan garaipenaren bila eginahalak egiteko,

ahal zen guztia. Txikitatik erakutsi zigutek garai-  
penaren lilura hori, horrela ikasi izan diagu, eta  
asko kostatzen zaiguk kontuak beste era batera  
ikusten ikastea, bizitzari beste era batera begira-  
tzea, begi berriekin alegia. Nekeza zaiguk, bai,  
bizitza beste era batera uler daitekeenik ameti-  
tze hutsa ere.

Ez askotan baina, gutxi batzuetan bada ere,  
probatu nian helmugara lehendabiziko iristeare-  
na, bakar-bakarrik gainera, besoak lasai altxa-  
tzeko astiarekin. Oso zirrara berezia dela aitortu  
behar diat. Heuretzat ere hala izango duk, jaki-  
na, heuk ere behin baino gehiagotan egin baituk  
aproba. Hegan egitearen antzekoa duk. Zerua-  
ren parekoa: egin beharreko dena ondo baino  
hobeto egin ondorengo sari ederra. Une batez  
jainko izatearen pare. Une bakar bateko lilura  
berehala amaitzen duk, ordea, eta berehala has-  
ten haiz kolpeak jasotzen. Helmuga zeharkatu  
ondoren, frenatu, gelditu, zangoak leher eginda  
sentitzen dituk, gorputz osoa zigortua. Kazeta-  
riak datozkik galdezka, denak batera, eta ez  
haute bakean uzten, ez diate unea behar bezala  
errespetatzen. Eta orduan konturatzen haiz ka-



rretera bat irabazi duala, besterik ez, eta horixe dela dena, ez dagoela besterik, ez dela horrenbesterako. Denboraldiak karrera asko dituela konturatzen haiz, eta hik irabazitako horrek berak ere bere historian zehar garaile asko eta asko izan dituela, eta hire izenak letra txiki batzuk besterik ezin osatuko dituela inoiz txirrindularitzaren historia nagusian. Eta anti-dopina pasatu behar duala, eta masaiak hartu, eta hotele-  
ra joan, edota hegazkina hartu beharbada. Eta okerrena zera duk hala ere, biharamunean edo hurrengo batean, laster, beste karrera bat dagoela, eta hurrengo astean ere beste bat edo bi, edo hiru, eta denboraldi baten atzetik bestea datorrela, eta beti prest egon behar duala, beti gertu borrokarako, zintzo bete behar dituala beti zuzendariaren aginduak, etxean hagoenean ere entrenatu egin behar duala egunero...

Txirrindulariak bere zeregina garbi ezarria dik: garaipena. Irabazten saiatu behar dik, irabazteko gauza bada, edota taldeko beste bati lagundu beharko zioke bestela, hainbestearino iristen ez bada. Eta garaipenarekiko hurbilpenak neurtzen dik guztia hasiera-hasieratik. Azkenean

batek ahaztu egiten dik nor den ere, nondik datorren, zer zen lehen, zein diren bere benetako adiskideak eta bere benetako nahiak eta asmoak. Azkenean batek ahaztu egiten dik zertarako bizi den ere. Bazirudik garaipena lortzeak behar duela izan bizitzaren zentzu eta helburu bakarra.

Nazkatu egin nindian azkenerako derrigor irabazi behar hark. Bizi egin nahi nian. Neu izan. Ahaleginak egin behintzat ni neu izatetik ahalik gertuena hurbiltzeko. Horretarako gorde bestela garaipen antzuen bila galdu beharreko indarrak.

Beharbada, hitz gutxi samarrekoa izaki, oso ondo disimulatzen jakin izan nian eta zuek ez zenidaten ezeren susmorik hartu inondik ere, baina ni azken bi urteetan ibili ninduan arazoari jira eta bueltaka. Askotan hartu nian neure artean txirrindularitza uzteko erabakia baina gero, inertiaren indar goxoaren eraginez edo, lehengoan segitzen nian. Izan ere, jakina, ez baita batere erraza horrelako erabaki bat hartu eta burutan ateratzea. Pentsa ezak herorrek egin beharko bahu... Arrazoizkotzat jotzeko moduko motibo asko izaten dituk beti ere txirrindularitzan segitzeko, eta nik zaletasuna ere banian gainera, eta

badiat oraindik ere. Eta ez duk hori dena: jende asko izaten duk inguruan, adiskideak ere bai, zuek behintzat, eta beste batzuk ere bai, eta nola azaldu hori guztia denoi? Neure burua engainatzea zuan errazena, noski: «Gaurkoagatik korritu egingo diat, eta hurrengorako hobeto mamitu erabakia, hobeto prestatu ingurua eta orduan bai, orduan benetan...»

«Begi berrien bila» ibili ninduan horrela bi urtetan, bai, «mundua ikusteko begi berrien bila», halaxe definitzen bainuen egonezin eta desoseguzko egoera desorekatu hura neure arterako. Aldaketa baten beharrean ninduan, ezin nian hala segitu, ikuspuntua aldatu behar nian, beste era batera ikusi nahi nian mundua, beste era batera bizi.

Halako batean, ordea, iazko abuztuan, loak ezin hartuta ohean bueltaka nenbilen gau batean, zorioneko Donostiako Klasiko hura baino pare bat egun lehenago, ideia bat etorri zitzaidan burura, ideia benetan bitxia baina neurea, neure-neurea. Nik banekian jende askok gaizki hartuko zuela, jende askok gaitzetsi egingo zuela nire jokaera, nik banekian askok eta askok

gorrotatu egingo nindutela ideia hura burutan ateratzeko lain ausardia izanez gero. Umekeria bihurria zuan, ganberrokeria lotsagabea. Baina nik umekeria ganberro hura egin egin nahi nian, batez ere umekeria bihurri haren pozak azken bi urteetan ezin hartu izan nuen erabakia hartzen lagunduko zidalakoan, batez ere ganberrokeria lotsagabearena ordura arteko inertzia garaitezin hura apurtu eta behingoz begi berriak bilatzeari ekiteko akuilu ezin egokiagoa izango zelakoan. Ez zekiat nola azaldu. Ideia erridikulu eta ganberro hura oso ona iruditzen zitzaidaan, indar eta bitxitasun izugarrikoa, jeinu handi baten izpiritu argi eta zorrotzaren ondorio, nahiz eta jakin publikoki, oro har, oso gaizki ikusia izango zela nik ideia hura gauzatzea. Niretzat aproposa zuan ganberrokeria hura, neure ideiak adierazteko eta neure benetako pentsamoldea eta neure benetako izaera azaldu eta kaleratzeko. Eta ziur nengoan, gainera, ideia hark neu izateko bidean, neure burua aurkitzeko bidean lagunduko zidala, eta aurrerapauso erabakigarria izango zela mundua ikusteko begi berrien bilaketari ekiteko. Kolpe lehor bat izan behar zian hark, bat-bate-

koa, garai berri bati hasiera emateko, ordura artekoarekin erabat hausteko, eta ideia errebelde eta bitxi haren pozetan prest sentitzen ninduan azkenean ere neure gogoia betetzeko.

Ez zegoan harrotasunik nire planteamenduan, askok eta askok hala pentsatu eta hala leporatu izan didaten arren. Aldez aurretik ere banekian nik hori gertatuko zela baina garbi ikusi nian une hartan huraxe zela neure aukera bakarra eta ez nuela inola ere alferrik galdu behar. Eta garbi ikusi nian itsu-itsuan egiten banuen planeatutakoa, pentsatzera gelditu gabe, arrazoibidearen ahulkeriei amore eman gabe, ez zizaidala inoiz damutuko. Eta halaxe izan duk, Asier, halaxe izan duk, ez baitzait inoiz damutuko egun hartan egindakoa, ez diat uste, ez horixe!

Idea hura aurrera eramateko arazo bat zegoan hala ere. Donostiako Klasikoan bertan kome ni zuan ideia gauzatzea, bero-beroan, ideia berriaren poz suspertzailea bizi-bizirik zen artean. Hartan huts eginez gero, beste karrera garrantzitsu baten zain egon behar izango nian, eta ordurako ideiak indarra galdu eta neuk, ondorioz, be-

tiko inertziaren dinamikara etsitzeko arriskua ere handia zuan. Eta, gainera, jakina, non hobe etxetik gertu baino? Horregatik, gogor irten ninduan egun hartan, fede handiz, indartsuena neu izango nintzela ziur, Jaizkibelgo aldapetan inork ezin segitu izango ninduela konbentzitura.

Eta halaxe izan zuan, espero bezala, behar bezala. Jaizkibeldik Donostiara bidean, atzean Txomin kotxetik oihuka nuela, erreferentziak eta animuak ematen etengabe, inoiz ez bezala sufritu nian, neure onena eman nian, neure muga guztiak gainditu nitian, baina lortu nian nahi nuena, ez zuan inor heldu nire parera. Gogoan izango duk heuk ere, noski. Niretzat huraxe izan zuan sekula korritu dudan karrerarik ederrena. Zoragarria! Azken metroak batez ere, Donostiako Bulebarrean, jendez inguratuta, garaipena neure eskuan eta ez beste inorenean zegonean. Hantxe hasi zuan festa. Zorabiozko uneak izan zituan haiek niretzat. Urduritasun kontrolaezin batek dardarka jarri nindian baina barnetik sekulako indarra sentitzen nian, estu itotako adierazkortasun bortitz baten itsumustuko aska-

penari zegokion indar basatia, geldiezia, primitiboa.

Pedalak eragiteari utzi eta, denek eskuak altxatu behar nituela uste zutelarik, telebistako kamerei begira keinu zakarrak egin, elastikoa erantzi eta bota, oinetakoak ereberdin, eta azkenean kulotea ere jaitsi, dena agerian utzita, aurreko egunetako planak egiterakoan horrenbestereinoko adorerik izatea espero ez nuen arren. Helmugako marra zapaldu baino lehen bizikletatik jaitsi gero eta, bukatzeko, bizikleta harrika bota airean. Eta kito. Besterik ez. Hortik aurrerakoa ez zegoan nire esku. Horixe izan zuan guttia. Gogoan izango duk, noski.

Mundu guztiak ikusi ahal izan zian zuzen-zuzenean, edo Mendebalde ia osoak behintzat. Segundu gutxi batzuk, minutu erdi inguru, ez askoz gehiago, baina nahikoa izan zuan. Egina nian neurea eta kito. Karrera irabaz zezala nahi zue-nak! Nik ez nian nahi! Utikan garaipena! Utikan begi zaharrak! Gora begi berriak!

Gero etorri zirenak oso gogorrak izan zituan niretzat, jakina, pentsatu ahal izango duanez. Zuek -hasierako harriduraren ondoriozko nahas-

ketaren bat edo beste ahaztuz gero behintzat-oso ondo portatu zineten eta nire esker ona zor dizuet, Txomini bereziki, berari egin bainion beste inori baino kalte handiagoa, baina beste batzuek benetan gogor eraso nindiaten, eskuan zituzten arma indartsu guztiak neure aurka erabiltzeko ahalkerik gabe. Lehen ere esana diat, ordea, aldez aurretik nekiela nik zer gertatuko zen, eta prest nengoela aurkako iritzi, salaketa eta zigor guztiei aurre egiteko. Horrek ez zian axolarik. Egindakoa ondo egina zegoan eta ondorio mingarri gutxi batzuk izatea zuan gutxienekoa. Kontua zuan sendatuta nengoela. Kontua zuan azkenean ere hitz egiten ikasia nintzela. Kontua zuan begi berrien bila abiatzeko bidea zabaldua nuela, nolana ibili eta norana jotzeko libre bainintzen aspaldiko partez.

Horrelaxe izan zuan guztia, Asier. Horrelaxe sentitu nian neuk, horrelaxe bizi, eta horrelaxe kontatzen dizuet orain neure ikuspuntutik. Zuek dena ontzat eman eta ametitu zenidaten arren, iaz eman nizkizuen azalpenak bat-batekoegiak eta nahasiegiak izan ote zireneko irudipena izan diat denbora honetan guztian, eta ea gutun



honen bidez orduan ilun samar utzi nizekinen argiago ikusterik baduzuen. Horixe duk gutun honen xede nagusia. Ez zekiat ondo egin ote nuen ala gaizki, eta ez zaidak batere axola gainera. Ulertzen al duk, Asier? Konturatzen al haiz? Orain inoiz telebistatik ikusten zaituztedanean, tropeletik pare bat txirrindularik, edo hiruk, edo lauk, berdin zaiok, ihes egin eta bizikleta gainean musuka, lastanka eta xirrika hasiko ote diren iruditzen zaidak, keinu lizunak egiten kamera aurrean. Oso aukera ederra baita, dudarik gabe, horrelakoak egiteko.

Tira, bazekiat zuek ez duzuela horrelakorik egingo, eta ez beste inork ere seguru asko. Bazekiat, ondo jakin ere, horrelakoak errazagoak direla pentsatzeko edo esateko egiteko baino. Eta bazekiat, bai, motibo asko dituzuela denok horrelakorik ez egiteko. Bazekiat ez litzatekeela batere arrazoizkoa, batere errentagarria, inguratzeko gaituen gizartearen arrazoimenaren eta ekonomiaren neurrietan behintzat.

Oso maiz gogoratzen nauk zuekin, Asier, oso adiskide onak izan zarete nirekiko eta zuen adiskide sentituko nauk beti. Emaizkiek goraintziak

denei nire partetik, eta jaso ezak etorkizunik onena eta garaipenik distiratsuenak opa dizkian adiskide zahar honen besarkada estua.

**Josu Oñederra**

# Ez du amaierarik

Hirurogeita hemezortzi urte ditut eta horrenbestez zahartzat jo behar dut neure burua, nahi ala ez. Horretan alfer samarrik uste dut izango liratekeela edonolako azalpen antzuak. Baina benetan uste dut beti ere garaian garaiko gizona izan naizela. Gizon modernoa urtez urte hamar-kada luzetan zehar, oraintxe bertan ere, ez jakin noiz arte. Eta hori pozgarria zait oso, harro nago denbora berriei aurre egiteko izan dudan gogoia eta gaitasuna dela eta.

Gizon publikoa izan naiz, gazte denboran batez ere, eta nire izenaren sonak badirau oraindik. Badira hor zehar nire izena begirune berezi batez ahoskatzen duten gazteak ere, nik garai batean pentsatu, idatzi eta egindakoaren berri izan nahi dutenak eta are neurekin hitz egitera etxeratu nahi izan zaizkidanak ere. Paristik ere etorri izan zaizkit bisitak Baionako nire etxe ttipi apal honetaraino.

Norbera den bezalakoa izaten da eta neu horrelakoaizan. Niretzat axola handikoa da pertso-

nak buru-argitasuna izan eta mantentzea, inoren menpe ezin eror dadin, inork ez diezaion adarrik jo. Hor zehar, bai gure herrian eta bai mundu osoan, zer gertatzen ari den jakitea eta norberari dagozkion kontuetan behintzat iritzi propioa izatea, inoren agindupekoa ez dena. Garaian garaiko kontuez hitz egiten jakitea, alegia; hitz batez, inoiz ere erretirorik ez hartzea lan horretan, giza-harrotasuna eta giza-duintasuna inoiz ere ez galtzea.

Estimu handitan dudan idazle adiskide batek idatzitako pasarte hau datorkit gogora erretirorik ez hartzearen eta giza-harrotasunari eustearen auzi honetaz mintzatzen hasita: «*Bizitzan aurrera egin ahala adinaren zama daramagu herrestan. Berrogei urtetik gorakoari gaztea inguratu eta barrezka hasten zaio. "Zer egin duk hik heure berrogei urte horietan? Zer egin dezakek orain?" Zaharra zeri heldurik ez duen naufragoa da orduan tristuraren itsaso zabalean.*» Bada horixe da hain zuzen ere gertatzerik komeni ez dena. Zeri eutsia izan behar du beti pertsonak tristuraren itsaso zabalean itoko ez bada.

Gainera argi dago gaztea ere ito daitekeela itsaso horretan, gaztea ere ez dela libratzen ezintasunaren mindura latz horretatik. «*Zahartutakoan zera esango diot neure buruari*», idatzi zuen beste batean arestian aipatu berri dudan idazle berberak, «*badakit zera esango diodala, ez naizela inoiz behar bezain gaztea izan. Badakit.*» Badaki baina ezin du ezer egin. Gaztea ere ezin itzuri zaio hondoratze horri, zaharrak baino sasoi hobea izan arren bere buruari ur azalean eusteko.

Blok berde koadrikulatu honetan idaztera ekarri nauena ez da, ordea, neure zahar izate honi zuribideak bilatu nahia. Gaur gertatu zaidan zerbait kontatu nahi nuen, eta gero gogoeta egin gertaera horren inguruan, luma lagun dudala. Bego ordenagailua bestelako lanetarako, lan akademiko eta serioetarako, zeregin honetan nahiago baitut gazte-gaztetandik lagun izan dudan lumak betiko orri koadrikulatuari egiten dion fereka gozo eta samurra. Ez dago aurrerabide teknikoekin itsutu beharrik, eta bihotzaren kontuei arnasa hartzeko aparteko zirrikituren bat uztea ere komeni izaten da.

Gaur arratsaldean bisitan izan ditut Irungo ilobak eta beren seme-alabatxo txikiak. Gure familiarian aitona Asmodeoren sona harrotasunez aipatzen da nire aurrean, batzuetan errezeloak eta susmo gaiztoak agertu arren neu aurrean ez na-goela. Nire iloben seme-alabentzat, horrenbeste, osaba-aitona berezia naiz, oso ondo ulertzen ez badute ere nire berezitasuna. «Oso gizon azkarra eta argia» naizela aditu dute behin eta berri-ri, eta baita seguru asko «beste mundu batean» bizi naizela ere. Baina ni ondo konpontzen naiz umeekin, oso ondo. Izan ere, umeen aurrean Asmodeo zaharra ume txiki bihurtzen baita, are gehiago gainera inguruan nagusirik ageri ez bada. Eurekin bakarrik naizenean, nire berezitasuna, nire apartekotasuna, nire inguruko misterioa exageratu eta azken muturreraino eramatea gustatzen zait. Esate baterako, eurei hain arrotz eta arraro egiten zaien minitelaren bidez munduko zein mundutik kanpoko gizaki zein bestelako izaki ugarirekin komunikazioa dudala sinetsita daude eta, pertsonaiarik urrun eta harri- garrienen berri izateko aukera hori aitzakia- tzat hartuta, mila istorio asmatzen ditut etxera

etortzen zaizkidan bakoitzean, umeak liluratuta uzten dituzten istorio bitxikeriaz beteak. Niretzat hain arrunt eta aspergarria den minitela inoiz asmatu den tresnarik miragarriena bihurtu da haurtxoen irudimenean, nire asmazio eroei esker.

Gaur horietako ume batekin, hazitxoenetako bat den Allanderekin, aritu naiz hizketan eta jolasean, nik beti umeekin jolasean jarduten baitut, jolasak asmatzen eta astakeriak esaten, jende helduarekin inoiz ezin izaten dudan askatasuna ematen baitidate horretarako. Hizketan aritu garenean neu haur nintzeneko garaiak aipatzen hasi gara, nolakoa zen orduan irratia, nola artean telebistarik ez zen, nolakoak izaten ziren gure jolasak eta abar. Baina laster gogoahuldu egin zaidala sentitu dut, gezurretan ariko banintz bezala, umeari iruzur egiten. Garai hura eta jolas haiek ezagutu zituen edonork askoz ere azalpen egokiagoak emango zituelako irudipena izan dut, eta horrexek ahuldu dit hain zuzen ere gogoan. Beti gertatu izan zait hori. Beste inork neuk baino hobeto egingo lukeena egiten has-teak gogorik gabe uzten nau, edozertarako ez-

gauza bihurtzen nauen tristuraz. Hutsaren hurrengo sentitzen naiz, munduan enbarazu baino egiten ez duen izaki hutsala. Horregatik izan nintzen gaztetan izan nintzen bezalakoak, eta horregatik naiz egun ere hain «berezia», horregatik bizi naiz «beste mundu batean». Eta horregatik izan bide zen, hain zuzen ere, inoiz ez ezkontzearena. Zer egin niezaiokeen nik emazteki bati beste inork ezin egin liezaiokeenik?

Zer pentsatua eman dit Allanderekin gertatu zaidanak. Nik uste dut garai ezberdin askotako bizimoduen berri jakitea, kontuak garai horietan nola izaten ziren, nola gertatzen ziren, nola sortzen eta deuseztatzen ziren, horrelakoak jakitea, oso gauza ederra eta aberatsa dela. Bizigiro ezberdin askoren ezagutza izatea alegia, atsoek eta agureok dugun bezala. Nik giro ezberdin ugari ikusi, ezagutu eta bizi izan ditut, eta aurreaurretik batzuetan gainera ere. Gaur bertan esan dio bere aitak Allanderi, neure aurrean: «Egunkarietan idazten zuen aitona Asmodeok eta irratietan hitz egiten ere. Orduan ez pentsa edozeinek egin zezakeenik horrelakorik.» Eta Allandek esan digu ikastolan historiako liburu ba-



tean nire izena irakurria zuela: Asmodeo Urrutikoetxea. Hala ere, gizaixoa!, nire haurtzaro garaiko giroaren berri inori emateko gauza ez ni ordea!

Allanderi neure gaztaroari buruz hitz egiteko gogo gaizto, gaia aldatu eta minitelaren bidez jakindako istorio harrigarriari lotu naitzaie. Ilargira doan autobusa eramaten duten txoferren gora-beherak izan ditut hizpide. Esan diot Allanderi autobusetako txofer gutxik nahi izaten dutela ilargirako zerbitzua egin, han ez dagoelako oraindik tabernarik atsedendietan tragu bat hartu ahal izateko, eta gainera autobus horietan doan jendea aspergarria delako autobus txoferrentzat, beti kontu serioetan ari diren zientzilari burutsuak alegia. Sinetsi ez zidan egiten, jakina, horrelakoak sinesteko adinik ez baitu honezkero, baina txantxa aurrera eramaten parte hartzen zuen pozik. Solas horretan poza berreskuratu dut atzera, inork ezin baininduen ordezkatu, behar-beharrezkoa nintzen berriro ere, une hartarako egokiena, aproposena, ordezkazina. Osaba-aitona Asmodeo zuen ondoan Allandek, Asmodeo Urrutikoetxea hain zuzen ere, eta As-

modeo Urrutikoetxea Asmodeo Urrutikoetxea da.

Oso ondo pasatu dugu elkarrekin umeak eta biok, nagusiek etxeratzeko ordua zela erabaki duten arte. Baina bisitariek aldegin dutenean ez naiz lasai sentitu. Gogoia ahuldu egin dit nire ezintasunak, umei neure umezaroko eta gaztaroko kontuen berri emateko ezintasunak, edozein aitonentzat -edo osaba-aitonentzat- izan daitekeen bizipozik handiena ukatu didan ezintasunak. Allande joan denean, ustegabeen oldartu zaizkit garai ahantzietako oroitzapenak. Gure txikitako jolasak esate baterako, gaurko umeek ezin ezagutuko dituztenak. Bazen bat gure jaioterrian baino jolasten ez zena, beste inon ere ez. Guk oharkabeen egiten genuen jolas eta orain maite egiten ditugu jolas galdu haiek oroiminen indarrez, oroitzapenei eta oroitutako kontuei darian poesia ergela besterik ez den oroimin hutsal horren indarrez. Allanderekin nengoela, itxi egin diet bidea oroitzapen horiei, eta orain oroitzapenok ez naute lasai utzi nahi, koska egiten didate ariman. Harroegia izan ote naiz? Ez dut uste. Kontu zahar haiek ezagutu zituen beste

edonork baino hobeto egiterik ez nuenez, zertarako ekin? Ezin nion horrelako arrunckeriarik ametitu neure buruari, are gutxiago Allanderen aurrean. Ezin nuen amore eman.

Ez didate, ez, oroitzapen gordeen horzkadek arima desegingo, ez naute oroiminaren eztenaren ziztadek hilko, ezta hurrik eman ere. Nik badakit atso-agure guztiok dugula barruan kanpora atera nahi eta inola ere ezin dugun mundu oso eta handi bat, dagoeneko barruan nekez kabitu ere egiten zaiguna. Baina balkoira irten eta aurrera begiratzen jakin behar dugu. Balkoi aurrean nola edo halako bide bat dago: bidezidor estua mendi aldeko baserrian, autopista hiriaren kanpoaldeko etxe zatarrean. Ez du axolarik horrek. Bide horrek ez du amaierarik.